

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-05-05
ASTELEHENA
451. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Ikasle izandakoen %80 lanean daude, eta aurten lan-poltsa sortuko dugu"

Rikardo Lamadrid | Aretxabaletako Lanbide Heziketa Institutuko zuzendaria | 8

Tontorrean eta plazan, festa giro ederra Atxorrotz Egunean | 12



Labidea, Gatzagan: leku txikian, zerbitzu handia | 11



Dantza garaikidea eta breakdancea eskutik hartuta Arrasaten | 30

Hamargarrenak arrastoa utzi du

Ionut Zinca eta Ana Conde izan dira Aloñako X. Igoeran azkarrenak; urteurrena asteburu osoko festa bihurtu da. | 22



Ionut Zinca, Imanol Goñiren aurretik. Parekatuta joan ziren la ibilbide osoan.

ARITZ GORDO



Egunotan itxiko da Fagor Etxetresnen alegazio epea

Egunotan bukatuko da Fagor Etxetresnen likidazio planari alegazioak aurkezteko epea; segurueneren, oraingo astean. Epea bukatu ostean, Fagor Etxetresnen eta Edesaren aktiboengatik eskaintzak jasotzeko epea irekiko da. Epaileak izango du azken hitza. | 7

SINADURAK

| | |
|--|-----------------------------|
| | GOIO ARANA 9 |
| | 9 AITZIBER ARANBURUZABALA |
| | ENEKO FERNANDEZ 14 |
| | 16 MARIJE UGALDE |
| | MIEL GURIDI 18 |
| | 19 MARIJO PAGALDAI |
| | OIHAN VEGA 37 |
| | 40 MARKOS BALENTZIAGA |

Mendiaren gaineko film ikusgarrienak Arrasaten | 29

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 8 | IRITZIA 9 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39

Bergarak gertu dauka giza kate egunerako jai-egitaraua

Ekainaren 8ko bost jai-guneetako bat izango da eta 12.000 lagun etorriko direla aurreikusten da | 5

943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

ISO 9001:2008

ISO 14001:2004

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

JULEN IRIONDO | OÑATI

Urrexolako urak, edo, zehatzago esanda, inguruko mendietan jaso eta hodietan auzora iristen direnak ezagun dira, Oñatirako argindarra sortzeko erabiltzen direlako Olateko zentrolean. Inola batu beharrik gabe, berez iristen da, ostera, uratsa auzora. Eta ur sufretsu horiek osasunari eragin diezaioketen onura dela-eta, bi bainuetxe egon ziren han, Oñati errekaaren arroaren sakonera joanda dagoen landa auzoan. Eta hori zuten berezitasunetako bat, hain justu: kokapena eta kokapen horri lotutako izaera.

Izan ere, bainuetxe ugari izan ditu Debagoienak historian zehar. Leintz bailarakoak, baina, jarduerarako propio eraikitako eraikin handiak izan ziren; Oñatikoak, ostera, kanpotik etortitako jendeak bainuak hartzeko egokitutako baserriak: Garaikua eta Urrexolako Errota.

Bainuetxea, betidanik

Urrexolako Errotan Mari Juana Madinabeitiak betidanik ezagutu ditu bainera eta gainerakoak –lehenago errota ere izan zen euren etxea, nahiz eta eurek jardun hori ez ezagutu–. Bere gurasoek eramaten zuten bainuetxearen martxa, gaztetxo zela, 1970ean, itxi zenera arte. Mari Juanaren gaztaroa bainuei lotuta egon zen, beraz, ezinbestean. Harena, eta etxeko gainerakoena: amak baino lehenago amandreak prestatzen omen zituen, adibidez, bainuontziak, uraren tenperatura neurtu eta bainua hartzeko puntuan utziz. Astebeteko egonaldia egitera joaten ziren asko, erreuma edo bestelako minak edo azaleko arazoak zituztela-eta, adibidez.

Ia mende erdi pasa da jardueraren zutenetik –mende erdi besterik ez, bestalde, lehenagoko kontua eman dezakeen arren, askoren belarrietara bainuetxe-ari buruzkoak iritsi ez direla erreparatu gero–, baina bainurako sistema eta instalazioen itxura ez da askorik aldatu ordutik hona. Mari Juanak lagundu gaitu ura etxe ingurura iristen den tokitik baserriko geletako batean txukun-txukun jarraitzen duen bainuontzira egiten duen bidean.

Argiak ez ezik, pertsonak ere piztu izan dituzte Urrexolako urek

- Bi bainuetxe egon ziren Oñatiko auzoan, azkena 1970era arte martxan
- la itxieran moduan daude sistema, bainera eta abarrak Urrexolako Errotan
- Herriko eta inguruko jende ugari joaten zen bertara urats bainuak hartzera

Etxetik ehun metrora, Aitzgain aldetik errekaaren aldamean datorren errekaostora garmatza: "Esaten dute haizpeetatik datorrela, eta hemen izkinatxoan agertzen da uratsa". Handik metro gutxira dago ate urdindun depositua, bi metroko sakonera duena: "Beteta egoten da beti, goraino; mantendu egiten da"; erreka ur gutxirekin datorrenean ere bai. Kanpotik urdin edo gris traza hartzen zaio urari: "Baina argi-argia dago"; eta putzuan eskua sartu eta erakutsi digu.

Handik etxepera lurrazpiko hoditerian doa ura, sarrerako iturriraino. Han pilatzen da berriro, eta gaur egun iturrian behe-bera bakarrik doan arren, garai batean etxean gora ere egiten zuten, paretan jarritako punparen bitartez. Iturrian erreparatuta, agerikoa da denboraren poderioz

ur emariak bere bidean utzitako geruza grisa, Mari Juanak errauts deitzen duena: "Jendea etortzen da oraindik, eta hostoetako errautsa hartu –zilar koloreko gezurretako hosto apaingarriak dirudite–, eta ezemak dituenak, belau-ean edo orpoan, egiten du hau", dio errautsarekin azala igurtziz. Oraindik ere bai: "Halako jendea badago oraindik ere". Baita hosto horiek hartu eta potean sartuta etxera eramaten dituenik ere –eta ura botiletan eramaten dutenak; eurek ere lehen astero eramaten omen zieten lagun batzuei herrira, han bizi baitira eurak ere orain–. Paseoan doazela, aprobetxatuz, joaten dira batzuk iturria dagoen lekuraino, baina "espresuki" ere bai beste batzuk beraz; ura edatera ere bai. Eta ura edateak duen efektuaz galdetuta, "barrua garbitu" egiten duela esaten dutela dio.

Bertan egonda, nabarmen antzematen da urari darion usain berezia, arrautza ustelarenaren antzerakoa; eta edatea gustagarria ote da? Ohituta dagoenak arazorik gabe edaten duela dio; esan eta egin: iturri albotik edalontzia hartu, bete eta tragoan hustu du.

Guardaren anekdota

Urak uzten duen aztarna grisera itzuliz, kontatu digu Mari Juanak nola guarda joan zitzaizen behin, esanez ez zezatela gehiago ibaira isuririk egin –etxekeok orbana uzten zuen produkturen bat erre- kara botatzen zutelakoan–, hura urak berez uzten zuen marka behar du, bai, uratsaren osagai berezi horrek, bitxiak-eta ere hondatu egiten ei ditu-eta, ukitu ere egin gabe, sortzen den "atmosferagatik".



Urrexolako Errotako Mari Juana Madinabeitia, ba

Eta punpari eraginda ura eramaten zuten terrazara goaz, honenbestez, eskaileretan goratu. Terrazako zoruaren azpian beste depositu bat dago. Handik bi bide hartzen ei zituen urak, zuzenean bainuontzi gelara bate- tik –hotza– eta galdarara berotzera bestetik. Gogoan du Mari Juanak nola, txikiak zirela, sartzen ziren depositura, hura garbitzera, bestela zikinkeria pilatu eta ubideak oztopatzeak arriskua zegoela eta. Eta deposituko ur kopurua gutxitzen joan ahala, ura igo behar izaten zen berriro, zenbat eta jende gehiago bainuak hartzen, sarriago: "Egunean, behin baino gehiagotan". Aita ibiltzen ei zen zeregin horietan, bere oroitzapenen arabera.

Eta berriz ere behera, galdarara. Adreiluz estalitako edukiontzian pilatzen zen ura, beheko aldean sua egin eta berotu,

Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Aramaion ere bai

XIX. mendean sona handia izan zuten Gipuzkoako bainuetxeek: hor ziren Zestoakoa, Altxolako edo Ataungoa, adibidez, eta baita Leintz bailarakoak ere; aukera zabala zegoen gurean.

1825ean eraiki zuten lehenengoa, Arrasateko Gesalibar auzoan. Santa Agedako uren bertuteak, baina, ezagunak omen ziren XVI. mendearen erdi aldera. 1897an etorri zen bainuetxearen gainbehera, Angiolillo izeneko anarkista italiarrak Espainiako Ministroen Kontseiluko presidente Canovas del Castillo erail zuenean bertan. Izan ere, zuen mailaren erakusle, goi kargudunen ohiko atsedan toki zen hura.



Arrasateko Gesalibarko bainuetxea. | GOIENA

Aretxabaletan, 1843an eraiki zuten Ibarako bainuetxea; 1867an, berriz, Otalorakoa. Europako onen jotzen zuten bigarrena, kokapenagatik eta

eskaintzen zituen erosotasunengatik. Eskoriatzako bainuetxea ere garai hartakoa da, 1866an eraikia, eta inguruko lau iturburutako urak erabiltzen



Ibarako bainuetxea, Aretxabaletan. | GOIENA

zuten. Aristokrata madrildarrak ohikoak omen ziren denetan, eta hortik Aretxabaletan Portasol izenarekin geratu izana bertako auzoetako bat.

Aramaiok ere izan zuen bainuetxea, 1827an irekia. Sasoi oparoenean, 1880 eta 1885 artean, 400 lagun jasotzera heldu ei zen denboraldiko.



Bainuetarako gelan. | ARGAZKIAK: JULEN IRIONDO



orduan bai, bainugelara bideratzeko: "Ur beroa gehiago erabiltzen zen hotza baino, urak beroa behar zuten", dio Mari Juanak, behin gelara iritsita. Hor ditu bainuontziak bi iturriak –bestea lehen aipatutako ur hotzarena, zuzenean terrazatik zihoanarena-. Eta bainuontzia bera marmolezkoa. Bi bainuontzi erabiltzen zituzten Urrexolako Errotan, eta dio gure gidariak akordatzen dela nola bidaltzen zituzten umeak –zazpi anai-arreba ziren– bainua hartzen ari zirenei galdetzera ea ondo zeuden, gelako atearen bestalde: "Erantzuten zuten eta listo".

Izaten omen ziren 15-20 minutuko bainuak: "Uretan leporaino sartuta". Eta denbora hori pasata, aldameneko gelara, ordu erdi batean edo egotera, gorputzak izerdia bota zezan –uda aldera arbolen gerizpetan ere hartzen

ei zuten atseden batzutan-. Eta erakutsi digu gela ere, antzinako itxuraduna.

Gela horiek bainu osteko atsedenerako izaten ziren soilik, ez lotarako, libre geratu behar izaten zuten-eta hurrengo bainua hartzera zihoanarentzat. Goiko solairuan omen zituzten bi ohe-dun lau gela. Haietan pasatzen zuten gaua geratzeko joaten zirenek. Izan ere, eguneko bainua hartu –eguneko bainu bakarra izaten zen– eta etxera itzultzen zirenak egon baziren ere, beste hainbatek egonaldiak egiten zituzten bainuetxean, bost egunekoak adibidez. Hirukoak ere izaten omen ziren, zazpi egunekoak gutxiago, eta bederatzikoa bakarren bat.

Leku askotako jendea

Pentsatzekoa da kanpotik etortzen zirenen kasuan izango

zirela gehiago bertan lotan geratzen zirenak –oñatiarrak ere baziren, hala ere-. Eibartik eta Elgoibartik hasi eta Gatzagara artekoak etortzen omen ziren; eta Legazpi eta Zumarraga aldekoak ere bai, nahiz eta gutxiago. Eta jendea ibiliko zen, ze diote etxeokoe Errotako logelak betetzen zirenean Olateko osaba baten etxean ere egiten zutela lo bezeroek, baita eurek ere. Eta belar gainean ere lo egindakoak omen dira, bainu-hartzaileentzat logela gehiago izatearren.

Arrakastatsua ziren, hortaz, Urrexolako urats bainuak, benetan mesede egiten zutenaren seinale. Ba omen ziren medikuaren aginduz joaten zirenak ere, eta gogoan dute bertakoek bazela, adibidez, Torreazoko gizon bat astoak tiratutako organo joan behar izaten zuena bainua

hartzera, erreumak bihurrituta: denborarekin, bizikletaz joateko gai izan ei zen.

Urrexolako Errotako bainuetxean jarduerari 1970ean utzi bazioten ere, guztia bere horretan, erabiltzeko moduan egon zen 1983ra arte. Urte hartako uholdeetan ur eta lokatz asko sartu eta instalazioak hondatu egin ei ziren, eta baita berriz ere hamar bat urte beranduago. Poliki-poliki joan dira etxeokoe dena bere onera eramaten, eta asmoa dute etorkizun hurbilean berriz ere bainuak hartzeko moduan gera dadin: "Geuretzako, bai", dio Mari Juana Madinabeitiak.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Baita Garaikua baserrian ere

Hamarkada batzuk lehenagora artekoak dira Urrexolako beste bainuetzeko kontuak. Garaikua baserriaren ostean etxetxo bat egin eta hortxe jarri zituzten lau gela, haietako bakoitza bainuontzi batekin. Eta hara ere joaten omen jendea, eta denek gaua pasatzeko adina lekuri ez; aldameneko etxeokoe apropos eraiki omen zuten ostatua, hori ikusita. Gipuzkoako urats fuerteenetako omen zen bertako iturritik ateratzen zena.

MARI JUANA MADINABEITIA | URREXOLAKO ERROTAKO

"Atsedena ere egiten zien mesede, bainu ostekoak; baina urak ere bai"

Urrexolako Errotako zazpi anai-arrebetako bat da Mari Juana. 1970ean, baina, neba eta ahizpa bana galdu zituen zoritxarreko auto istripuan, amarekin batera, eta hark ekarri zuen bainuetxeari lagatzea. Ordura arteko jardun dugu.

Ze jende etortzen zen, ba, bainua hartzera?

Jende nagusia. Gerritik gaizki zebilena, edo erreumarekin, bainu beharra zeukan jende nagusia.

Dirudun jendea?

Ez, dirua beno... Egindako esfortzuekin minez zegoen jendea gehiago, esango nuke. Dirudunak baino, halakoak gehiago.

Bailaran izan dira bainuetxe gehiago, baina hau desberdina zen, beraz; mendian... Bestetara agian joango zen beste erabateko jendea, baina...

Bai. Baina hona asko oinez-eta etortzen ziren, edo ekarri egiten zituzten; baten bat astoz ere etortzen zen, edo gurdian [ez zegoen bide onik bertara iristeko]...

Herrian ezagunak ziren hemengo bainuak?

Bai, bai. Oso ezagunak ziren herrian. Hemengo jendea ibiltzen zen batez ere.

Beraz batzuk egingo ziren etorri, bainua hartu eta etxera itzuli ere

bai, baina beste batzuek egonaldiak egiten zituzten.

Bai. Ni gogoratzen naiz jangelan sei edo zazpi gizon egoten zirenekoak. Agian bazkaldu egingo zuten eta alde egin, hori ere egingo zuten.

Eta gelditzeko etortzen zirenak, gainerako orduetan zer, hemen ibili?

Bai. Tertulian egoten ziren, jangelan tertulian. Gizonak izaten ziren normalean, eta lasaiago ibiltzeko modua zuten.

Uratsak mesede egiten duela konprobatutako gauza da?

Bai, bai. Lehen baserrietan-eta lan asko egiten zen, eta jende hori nahikoa gaizki ibiltzen zen gerritik-eta. Eta etortzen ziren, ezta arintzen zitzaien mina. Atsedena ere egiten zien mesede, bainua hartu osteko atsedena. Baina urak ere bai.



Bainuetarako gelako altzaria.



Bainuontzia.



Atsedena hartzeko gela.




Galdara.



Urats depositua.



Etxe aurreko iturria.



Bergara Bizi I. Moda Erakustaldia

Maiatzaren 10ean, 18:00etan, San Martin plazan

PARTE HARTZAILEAK:



A.J. Poltsak
Ibargarai hiribidea 34
943 76 13 23



AINHOA
Erloju denda
Boni Laskurain pasealekua 2
943 76 47 40



ALGA
lurrindegia
Ibargarai hiribidea 10
943 76 00 85



AMPARO
Ile apaindegia
Boni Laskurain pasealekua
943 76 56 05



AMUA
Jantzi denda
Ibargarai 2
943 54 00 68



ANEZKA
Jantzi denda
Espoloia 8
943 76 59 25



ANNIKA
Jantzi denda
Herrilagunak 6
943 76 25 31 08



BEGO & MARIJE
Ile apaindegia
Telesforo Aranzadi z/g
943 25 37 29



DISDIRA
Ile apaindegia
Masterreka 7
943 76 00 55



G21 Gizonezkoentzat
oinetako denda
Irala 3 behea
943 76 52 98



GALARRETA
Oinetako denda
Irizar pasealekua 2
943 76 12 39



IGARO
Lurrindegia
Barrenkalea 35
943 76 17 27



JAIZKI
Ile apaindegia
Bidekurutzeta kalea 42
943 76 38 95



JAUJA
Kirol denda
Irizar pasealekua 1 behea
943 76 14 95




JEAN LOUIS DAVID
Ile apaindegia
Ibargarai hiribidea 43
943 76 22 48



JOKA
Jantzi denda
Domingo Irala kalea 5 behea
943 53 46 16



JOLAS
Jantzi denda
Barrenkalea 27
943 76 46 48



JUNBIJU
Jantzi denda
Barrenkalea 14 behea
943 76 97 86



KB PHOTOESTUDIO
Argazki denda
Barrenkalea 35
943 76 24 12



KILIKA
Jantzi denda
Barrenkalea 18
943 76 34 08



KEIXA
Ile apaindegia
San Lorentzo 21
943 53 24 52



LONBIDE
Oinetako denda
Bidekurutzeta kalea 5
943 76 10 57



MAKA
Oinetako denda
Ibargarai hiribidea 8
943 08 28 68



MANSO
Optika
Irizar pasealekua 2
943 76 27 86



MILUK
Ile apaindegia
Osintxu auzoa 13
943 76 51 82



MUJIKA SASTRERIA
Jantzi denda
Barrenkalea 1
943 76 29 91



NINIKALORADENDA
Ramon Maria Lili kalea 8
943 76 10 01



OSTADAR
Ile apaindegia
Ibargarai hiribidea 42
943 76 72 76



SUBIJAI
Umeendako jantzi denda
Irizar pasealekua 1
943 76 42 41



SUGOI
Bazarra
Irizar pasealekua 2
943 76 59 54



XUXU
Jantzi denda
San Pedro 14 behea
943 76 07 55



ZUBIKUA
Jantzi denda
Barrenkalea 24
943 76 10 16

ANTOLATZAILEAK:



- BEDELKAR
- HERRIKO KOMERTZIOAK
- BERGARAKO UDALA

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo



Kilometro hartzaile eta bisitariak talde argazkia atera zuten, Gure Esku Dagoko muralaren aurrean. | IMANOL SORIANO



Herri ezberdinetako ordezkariak, Bergarako koordinatzailea entzuten. | I.S.

Bergarak gertu dauka ekainaren 8an 12.000 lagun hartzeko jai-egitaraua

Jende kopuru hori aurreikusten da bailaran, Gure Esku Dagoren giza katerako

GOIATZ ARANA | BERGARA

Hilabete pasatxo falta da erabakitze eskubidea aldarrikatzeko giza katearen egunerako, eta prestatze lanak aurrera doaz. Debagoiengan 20 kilometro izango ditu, Arrasate, Bergara eta Antzuolan barrena, eta 12.000

pertsona inguru aurreikusten dira, eskuz-esku, ibilbidea osatzeko; debagoiendarrak izango dira gehienak, eta baita bizkaitarrak ere, Ezkerraldekoak eta Getxokoak tartean. Egubakoitzean bilera egin zuten elkar ezagutu eta ibilbidea bisitatzeko.

Bergara, jai-gune

Bost jai-gune izango dira egun horretan eta Bergara izango da horietako bat: giza katea amaizuta, Kanpantzaritik Deskargara bitartean batutakoek ekitaldi berezia egingo dute San Martin Agirre plazan, eta bi gune izango dituzte,

gazteentzat bat eta haur eta familientzat bestea, jateko aukerekin eta askotariko ekintzekin.

Ilusio "konpara ezina"

Gure Esku Dagoko lan batzordeak bat etorri dira hasierako hilabeteak "zailak" izan direla esaterako orduan, baina diote eguna gerturatu ahala gero eta jende gehiago ari dela animatzen. Zentzu horretan, egubakoitzean Bergaran izan zen Getxoko Iñaki Zarrakoa jeltzaleak zioen 50.000 pertsona baino askoz ere gehiago izango direla, eta sinetsita dagoela parte hartzen ez duena

damutuko dela betirako. Eskubide bat defendatzeko ekimena dela ekarri zuen gogora, ezberdinen artekoa eta gero zer gertatuko den aurreratzen ez duena. Bergarako taldeko Asier Larrañagak, bere aldetik, ekimenak sortu duen ilusioa nabarmendu zuen eta ondorengo belaunaldiei eginda utz diezaiekegun lan polit bat dela gehitu zuen.

Egitaraua ikusteko:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



JUAN ANTONIO ITURBE
ANTZUOLA



"Bisita honek balio izan digu ikusteko autobusentzako lekuak, jendea errepidean nola zabaldu... Beharrezko harreman bat zen eta oso positiboa izan da".

SANTI UGARTE
OÑATI



"Oñatik, Sopelak eta Sestaok hartutako kilometroak kudeatuko ditugu eta eurekin batera joan gara dagozkigun tokiak ezagutzera. Pozik itzuli gara".

BALEN TRAMON
ARRASATE



"Harreman polita egin dugu bizkaitarrekin, eta Bergarako jai-egitaraua ezagututa, gainera, asebeteta geratu gara erabat. Zoragarria izango da".

KOLDO CASTAÑOS
BARAKALDO



"Deskargan egokitu zaizkigu kilometroak eta kezkatuta geunden lanen ondorioz nola dagoen ikusirik, baina gaurkoa eta gero askoz lasaiago gaude".

IÑAKI ZARRAKO
GETXO



"Hemengo koordinatzaileek izugarritzko lana egin dute eta jarrera oso ona erakutsi dute. Uste dut ekainaren 8an bertan gertatuko garela".

Ernai eta Kataluniako Arran gazte antolakundeak elkarrengandik ikasten

Esperientziak elkartrukatzeko jardunaldiak egin dituzte aste bukaeran

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Independentzia lantzeko batu dira bi gazte antolakundeak, *Hazi, Hezi, Izan* dinamikaren barruan. Izan ere, diskurtso independentista eta ezkertiarra kalera ateratzeko "beharra" ikusi dute, "Europatik datorren olatu-kolpe independentista eta Espainiaren gainbehera ikusirik".

Bi herrialdeak daude "une interesgarrian", euren esanetan, eta nahiz eta bateko eta besteko prozesuak fase ezberdinetan egon eta hainbat aspektutan ez etorri bat, ezaugarri komun asko dituzte: "Bi prozesu subiranista daude martxan -Kataluniakoa aurrerratuago behar bada, baina gurea ere une interesgarrian-. Horregatik, irakurketa bateratu bat egin gura genuen", adierazi du Debagoieneko Ernaiko Igor Tomek.

Idea horietatik abiatuta, hausnarketa egin zuten egubakoitz arratsaldean, Oñatiko Antixena gaztetxean. Elkar ezagutu eta



Ernaiko eta Arraneko gazteak elkarrekin, Antixena gaztetxearen aurrean. | I.S.

izotza apurtzeko joko batzuk egin zituzten aurretik; ondoren, berriz, mural bat margotu zuten "bi antolakundearen arteko anaitasuna eta bi herrialdeen arteko lotura irudikatuz".

Zapatuan, *Larrutu sistema, eraldaketa gure baitan* lelopean, Ernaik antolatutako lehen mani-

festazio nazionala egin zuten Bilbon eta bertan izan ziren Debagoieneko eta Sabadelletik etorritako gazteak ere, "prekarietatea salatu, eta alternatiba bat eraiki eta eskaintzeko gazteriari".

Ernaiko gazte debagoiendarrek Kataluniara joan asmo dute *Diada* egunerako.

LAB, Fagor Etxetresnetako lanpostuei eustearen alde

IRATI GOITIA | ARRASATE

Fagor Etxetresnen likidazio prozesuaren harira, "lanpostuak mantentzea ahalbidertuko duten proiektu industrialen alde" egingo duela jakinarazi du LAB sindikatuak. Eroslea hautatzerako orduan langileen ordezkarien iritzia kontuan hartzeko eskatu du, bi aldagairi eginez erreferentzia: batetik, ahalik eta enplegu gehiena mantentzea, baldintza duinetan; eta bestetik, proiektu industrialen sendotasuna, enplegu zuzena eta eskualdearen etorkizuneko garapenerako sortu daitekeen aberastasuna kontuan izanik. "Inplikazio handiagoa" eskatu die Mondragon Taldeari eta Eusko Jaurlaritzari, besteak beste; eta konponbidea, Fagor Etxetresnak Taldeko langile guztientzat.

AHTk Udalaitez zeharkatzeko tuneleko lanak, esleituta

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Bost zati izango ditu Bergarako lotuneak, eta lehena (2,9 km.) egiteko obrak lizitatu ditu Espainiako Sustapen Ministerioak: Bergara eta Arrasate artean, Kobaten. Zailtasun tekniko handiko tartea da eta *Euskal Y*-aren tunelik luzeenaren zati bat barne hartzen du; 6.900 metro izango ditu tunel horrek eta Udalaitez barrena joango da. Hitzemandakoa baino urtebete beranduago eman du urratsa Rajoyk eta gaur egun gehiagotarako dirurik ez dagoela esan du. "Seriotasun falta" egotzi dio Eusko Jaurlaritzak, eta "erabaki sendoagoak" eskatu. EHBilduk salatu du 133 milioi euro "xahutuko" direla hiru kilometro egiteko, eta 5.000 milioi euro "xahutu" ostean, erdia ere ez dutela bukatu.

Sindikatuak eskatu dute politika ekonomikoa aldatzea

Langileen Nazioarteko Eguna mobilizazio eta aldarrikapen eguna izan zen

IRATI GOITIA | ARRASATE

Maiatzaren Lehena aldarrikapenerako eguna izan zen langile, langabe eta sindikatuentzako. Gure bailaran ez zuten agerraldirik deitu sindikatuak, baina hainbat mobilizaziotan parte-hartzeko deialdia egina zuten.

ELAk autobusa jarri zuen bailaratik Bilbora joateko; bertan zuten antolatuta manifestazioa. "Jende asko etorri da Bergara, Oñati eta Arrasatetik, baita Euskal Herriko txoko guztietatik ere", adierazi zuen ELAko eskualdeko arduradun Amagoia Lasagabasterrek, mobilizazioaren ostean. Horrela, balorazio positiboa egin zuen. "Antolatuz eta borrokatuz bakarrik lortuko dugu egoera honi buelta ematea. Taldean lortuko dugu beste gizarte eredu bat. Horixe aldarrikatu dugu Bilbon", zehatu zuen.

LABek 28 mobilizazio zituen deituta Euskal Herriko zazpi herrialdeetan zehar, horietako bat Eibarren. Hain zuzen, bertara joateko deia zuten egina eskualdeko LABeko ordezkariak. "500 pertsona inguru elkartu gara. Iaz baino jende gutxiago, zubiak zeresana izan duela uste dut. Hala ere, pozik gaude", adierazi zuen LABeko Debagoieneko ordezkari Jose Ramon Kortabarriak. Egungo egoera ekonomikoa salatzeaz gain, erabakitze eskubidearen aldeko aldarrikapena egin zuten. Hala, eredu ekonomikoa Madrilen beharrean hemen erabakitzea eskatu zuten, eta baita Euskal Herriak herri bezala erabakitze eskubidea izatea ere. Hain zuzen, *Langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan* izan zen aukeratutako leloa.

CCOO eta UGT sindikatuak Bizkaiko hiriburuan egin zuten mobilizazioa, elkarrekin. Deialdi honetara ere autobus bat irten zen Arrasatetik. "40 lagun inguru joan gara bailaratik. Bilbon, berriz, 20.000 pertsona inguru batu gara. Balorazio positiboa egiten dugu", zioen Arrasateko



ELA sindikatuak Bilbon egin zuen manifestazioa. | AMAGIOIA LASAGABASTER



LAB sindikatuak Eibarren egindako mobilizazioa. | JON KIRRU IPARRAGIRRE



Oñatiko BBVA bankua pinturaz zikinduta, eguen goizean. | J. IRIONDO

Banketxeen aurkako erasoaldiak

Eguazten gauean eraso egin zieten Oñatiko kaleko ia banketxe guztiei. Pintura bota zieten leiho, ate eta persiane, eta aparrez estali zituzten kutxazainetako batzuk. *Zuen aberastasuna gure miseria* pintaketa ere irakur zitekeen. Hurrengo gauean, 01:00ak aldera, Arrasateko Garibai kaleko banketxeei bota zieten pintura gorria. "Pinturaz betetako bonbillak bota dituzte hiru banketxeren aurka", zehaztu zuten Ertzaintzatik.

CCOOeko kide Iago Reimundezek, Bilbotik bueltan. "Murrizketekin amaitzea eta lan-hitzarmen alde egitea izan dira egin ditugun eskaeretako batzuk. Jendea ez dago isiltzeko moduan, eta parte-hartzea handia izan da".

Iruñean batu ziren sindikatu txikiak. Gobernuaren politiken aurrean "bizi-baldintza duinak" aldarrikatu zituzten, baita "lanaren eta aberastasunaren banaketa" ere. "Aski da" esateko unea da, euren esanetan, eta "esnatzea eta behetik borroka egitera"

deitu zituzten herritarrak sindikatuak ordezkariak.

Langabeak ere protestan

Herriko hainbat langabe deituta, elkarretaratzea egin zuten Oñatin. *Gora langabeen borroka!* lelopean egin zuten agerraldia eta helburua langabeen egoera ikusaraztea izan zen. "Lanaren eta aberastasunaren banaketan badago beste eredu posible bat", adierazi zuten antolatzaileetako batek. Eta gaineratu: "Elkartasunak indartsuago egiten gaitu".

Haritxelar zenari azpijana egin zioteneko

Elgetan gertatu zen eta Pello Salaburuk 'Errateko nituenak' liburuan azaltzen du gertatutakoa

GOIENA | ARRASATE

Kontatzen du Pello Salaburu euskaltzainak oraintsu atera berri duen liburuan, *Errateko nituenak*, zelan 2000. urtean, hor nonbait, Elgetan bapo bazkaldu ostean, zenbait euskaltzain afaltzera joan ziren txakolindegi batera, eta bertan zelan konspiratu zuten Haritxelar zenari Euskaltzaindiaren kanpoko atea iradokitzeke. Hauxe dio Salaburuk 60-61 orrialdeetan:

"Haritxelar zenari ere jarri zitzaion izarra. Hil zelarik hutsune handia sentitu genuen euskaltzale guzkiek. Horien artean, batzuk negarrez eta zotinka ibili ziren, tristorari eta goibeltasunari ezin eutsi, atsekabez beteak. Arima hain dohakabe sentitzen zutenen artean baziren, bai, urte batzuk lehenago mahai baten inguruan bildu ziren zenbait kide. Eguna Elgetan hasi zuten liburu baten aurkezpenarekin, eta arratsalde apalean

hurbileko herri batean dagoen txakolindegi batera joan ziren, elkarrekin afalduko zutela, mundua konpondu behar zuten eta. Eskuetan dut gau hartan zerbitzariak, egonaldia akitu zelarik, aurkeztu fakturaren kopia eta, egia erran behar baldin badut, ez zen neurritz kanpokoa izan afari hura jan-edariei dagokienez. Segur aski ere, asexek ziren dagoeneko, eguerdian Elgetako alkateak gonbidaturik bazkaldu baitzuten, bertze batzuekin batera. Ordea afaria ez zuen alkateak ordaindu: biharamunean deitu zuen ostatuko jabeak Euskaltzaindira, han egon zirela-eta

"Haritxelar bistatik kentzeko erabakia hartu zen mahai baten inguruan"

jaun batzuk bezperan, euskaltzainak omen, eta xarmanki afaldu ondoan ez zutela deus ere ordaindu, ea zer egin behar zuten fakturarekin. Euskaltzaindiko batzorde baten aurrekontuetatik ordaindu zen azkenean Haritxelar bistatik kentzeko erabakia hartu zuten jaun haiek egin afa-riaren kontua. Mahai haren inguruan izan ziren Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi eta Henrike Knörr jaunak, denak Haritxelar baino lehenago zenuak. Baina baziren bertze batzuk ere, nik hemen diodana gaur egun orainik protagonistak gisa baieztatzen ahal dutenak. Ez dute eginen, egon trankil.

Bai: han erabaki zuten bazela ordua Haritxelar jarraulkitik lekutzeko. Ez zutela, ez, egun batetik bertzerera, eta gauek goizera kenduko, baina bidea erakutsiko ziotela nondik atera. Hori bai abilezia, bide zuzena zeharka erakustearena. Adiski-

de, orain aurkeztuko zara azkeneko aldiz, baina ez dituzu hauteskunde hauetan, lehen bezala, boto guztiak zure alde izanen, ongi neurtuko dugu hori guk. Lehenbiziko txandan ez zara aterako, bertze buelta bat egin beharko duzu zeren plazan, belau- niko, eta gehiengo soilarekin aukeratuko zaitugu, ez duzu boto bat bera ere sobran izanen.

Hola, lehenbiziko bozketan 11 boto izan zituen, eta bertze 11 boto izan ziren zuriak. 2000ko abenduaren 22a zen, Euskaltzaindiko egoitza nagusian (lau urte lehenago 18 boto eskuratuak zituen Bilbon egin bileran). Biga-

"Erakutsiko ziotela nondik atera. Abilezia, bide zuzena zeharka erakustearena"

rren itzulian boto bat gehiago izan zuen alde, bat bakarra, ongi kontatua, ateratzeko aski, eta bertze hamarrak zuri, haien garbitasuna ez zezan inork ere zikindu. Buruordea aukeratzea aise errazagoa izan zen: Knörr zenak 18 boto izan zituen alde, hori da oparotasuna. Miren Azkarate ere hasia zen dagoeneko markak hartzen bizkarrean, eta berak bere burua aurkeztu gabe, 11 euskaltzainek eman zituen botoa debalde, gratis eta amore, nolana ere (hemen nolana hitza arruntean baino polisemikoa da, beldur naiz), Iker sailburu izateko. Kargua ez zuela hartuko erran zuen Mirenek goiz hartan, gehiengo absolutua eskuraturik ere, halaxe dio argitaratu agiriak. Zergatik? Norbaiten helburua baitzen Oiarzabal, orduko Iker sailburua, bistatik kentzea, eta hori gertatuko zen Mirenek hain eskuzabal eskaintzen zioten kargu hura hartzerara. Hori ez du erraten, bistan denez, bilerako agiriak. Oiarzabalek karguan segitu zuen, hortaz, eta handik urte batzuetara kendu zuten, oraingoan zurikerietan ibili gabe".

Teleaginte konpatible eta berritzailea sortu du JMAk

Irrati-frekuentziako teleaginte garatu du JMA Alejandro Altunak, eta marka gehienetarako balio du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Arrasateko JMA Alejandro Altuna enpresak teleaginte konpatible sorta bat garatu du, kopia-ahalmen handiagoarekin. Irrati-frekuentziako teleaginteak dira; bereziki, garajeetarako sarrabideak eta barrerak. JMA Alejandro Altunak garatu duen gailuak lau teleaginte txertatu ditzake gailu bakarrean, eta gaur egun merkatuan dauden teleaginte gehienak txerta daitezke bertan, bai kode finkokoak zein kode ebolutibokoak, kodifikazioa enkriptatuta edo babestuta dutenak, hain zuzen.

Arrasateko sarrailagintza enpresak Gaitek programara aurkeztu zuen bere proiektua, eta aurrekontuaren gaineko laguntza lortu zuen. Bestalde, Europako FEDER Ekintza-Programan sartuta dago Gaitek, eta, alde horretatik, Europako laguntza ere jaso du.

Merkatuan bakarrenetarikoa

Oraingo proiektuaren berritasun nagusiak bi dira: batetik, gertutasunezko Rolling Code izeneko kodigoen teleaginte garatu dute, kopiatzeko ekiporik behar ez duena; bestetik, Rolling Code eta kode finkoak teknologia bakarrean batzeko aukera ematen dute garatutako dispositiboek, eta bi auke-



Teleaginteak. | JMA

retako bat hautatu daiteke. Hauxe esan dute arduradunek: "Azken erabiltzailearen esku-garajea irekitzeko teleaginte duen edozein-kopiazko teleaginte ipintzen dugu. Gaur egun, aztertu ditugun

merkatuetan, hori ez da lortzeko hain erraza, irekitzeko sistema horien instalatzaileen sektorea ez dagoelako gertatuta teleaginteak ordezkatzeko zerbitzua emateko".

Subordinatuen gaineko epaiketarik ez da egongo

L.K. | ARRASATE

Epaileak ez du tramitera onartu Adicae elkarteak Laboral Kutxa, Eroski eta Fagorren aurka ipinitako talde-demanda, ekarpen finantzario subordinatuen harira. Donostiako 1. Merkataritza-Epaitegiko Edmundo Rodriguez epailearen iritziz, erreklamazioak "akats asko" ditu eta, aurrera jarraituko balu, epaileak berau atzera bota behar izango luke, eta horrek aurreztaileak kaltetuko lituzke. Beraz, ez da epaiketarik izango, baina horrek ez du esan nahi aurreztaileendako auzitegien bidea itxi denik; Adicaek taldeko demanda ipini zuen, eta aurreztaileek banaka jo ahal izango dute epaitegietara. Adicaeren salaketarekin bat 69 lagunek egin zuten.

"Ez da argi geratzen"

Rodriguezek dioenez, akatsen artean, ez da argi geratzen Adicaek zer eskatzen dion Laboral

Kutxari eta zer Eroskiri eta Fagorri; ez dira ustezko klausula abusiboak identifikatzen; ez eta baliorik gabe uzteko eskatzen diren kontratuak ere.

Epaileak dioenez, prozesuak aurrera jarraituko balu, Adicaeren eskaerari uko egitea besterik ez luke izango. Ontzat eman ditu, beraz, Laboral Kutxaren, Fagorren eta Eroskiren alegazioak eta orain arteko kostuak Adicaeri eta 69 eskaiztaileei egozten dizkie.

Aurretik, Adicaeren alde

Aldez aurreko bistak, apirilaren 11n, Adicaeren eskaeraren aldekoak izan ziren. Bertan, epaileak Adicaek aurkeztutako froga guztiak onartu zituen. Adicaek orduan data ipini zion epaiketari: irailaren 8an, Fagor eta Laboral Kutxaren aurka, eta irailaren 15ean, Eroski eta Laboral Kutxaren aurka. Baina azkenean ez da halakorik izango.



Fagor Etxetresnen Garagartzako instalazioak. | GOIENA

Fagor Etxetresnen alegazio epea bukatzeaz dago

L.K. | ARRASATE

Egunotan itxiko da Fagor Etxetresnen likidazio planari alegazioak aurkezteko epea; seguruenik, oraingo astean.


Orain arte, intentzioak

Behin epea bukatutakoan, Fagor Etxetresnen eta Edesaren aktiboengatik eskaintzak jasotzeko epea irekiko da. Eskaintza horiek finkoak eta zehatzak izan beharko dira. Orain arte, intentzioak dira agertu izan direnak. Bereziki, bi: Aljeriako Cevital taldearena -dagoeneko Frantziako markak bereganatu dituena eta Frantziako aktiboak erosteko oniritzia jaso duena eta Kataluniako CNA taldearena. Biek agertu dute Garagartzako eta Eskoriatzako lantegien gaineko interesa, eta hainbat lanposturi eusteko edo sortzeko asmoa ere. Bestalde, Geysarren inguruko interesa agertu du PHI inbertsio-fondoak.

Prezioa, enplegua...

Epaileak izango du azken hitza. Bere erabakian pisua izango dute hainbat irizpidek; garrantziaren arabera, hauek: prezioa eta ordaintzeko modua; eskaintza bakoitzak proposatzen duen enplegu maila; eroslearen kaudimena edo solbentzia; aurkeztu den proiektu industriala; langileek ager dezaketen babes; zamadun aktiboaren jabeekin edo pribilegiatutako hartzedunekin egindako akordioak; eta lurraldeko beste enpresekiko lortutako sinergiak.

Likidazio Planaren helburu nagusiak hauek dira: industria-jarduera berriz hasia, ahalik eta lanpostu gehienei eutsiz; eskaintzaileek edo erosle potentzialak ahalik eta arrakasta handiena izateko moduko plan industrialak lortzea; eta hartzedunetik zorrak kentzeko ahalik eta diru gehiena lortzea.



FAGOR AUTOMATION

Automationen ukitua duen teleskopioa

Hawaiin instalatuko den eguzki-teleskopioak -munduko handienak- Fagor Automationen zenbakizko kontrol sistemarekin egindako piezak izango ditu. Audioko Gometegui enpresak egin ditu pieza horiek, Fagor Automationen sistemekin ekipatutako makina-erremintak erabilia; bere makina guztien kontrolak aldatu zituzten orain urte batzuk, eta Automationenak ipini zizkieten. Teleskopioaren kupulak 600 tona pisatzen du, 26 metroko diametroa du eta 24 metro altu da.

Rikardo Lamadrid | Aretxabaletako Lanbide Heziketa Institutuko zuzendaria

"Aretxabaletako Lanbide Heziketa Institutuko ikasle izandakoen %80 lanean daude"

- ▶ Aurten, ikasleen lan-poltsa sortuko du institutuak, ikasleak enpresetan kokatzeko
- ▶ Industria, osasun eta gizarte arloetako ikasketak ematen ditu Aretxabaletako zentroak

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABALETA
Igorren jaioa da, baina Aretxabaletako Lanbide Heziketa Institutuan dihardu azken hamar urteotan Rikardo Lamadrid; horietatik azken biak, zuzendari gisa.

Debagoieneko lanbide heziketa institutuen artean ezagunenetakoa eta ospe onenetakoa da Aretxabaletakoa, nahiz eta Aretxabaleta ez izan herri handiena. Zergatik da hori, zure iritziz?

Eskerrik asko! Horren arrazoi handienetako bat izan daiteke hemen badagoela ziklo bat, bere garaian galdu zena eta orain berreskuratu dena, Fundizio eta Polimetalurgiako zikloa, eta azken hiruzpalau urteotan estatuan ziklo hori ematen duen ikastetxe bakarra garena.

Bestalde, Eraikuntza Metalikoen, Soldaduraren eta Automobilgintzaren zikloak indartu dira. Eta aspaldiko zikloa da Erizaintza. Mendeko egoeran dauden pertsonen arretaren zikloa ere badaukagu. Azken hori krisiarengatik eta gizartearen zaharzteari begiratuta ipini genuen. **Zenbat ikasle dituzue laster bukatzera doan ikasturte honetan? Zenbat mutil eta zenbat neska?** 230 bat ikasle ditugu, 1. eta 2. mailak kontuan izanda. Gure eskolako ikasketa gehienak industrialak dira, eta argi ikusten da mutilen eta nesken banaketa: industrialetan, %90-95 mutilak dira, eta erizaintzan eta mendeko pertsonen arretako zikloan, %70 bat neska dira.

Zenbat erdi mailako eta goi mailako ziklo eskaini dituzue ikasturte honetan?

Zortzi ziklo ditugu; bi, goi mailakoak, eta sei, erdikoak. Goi mailakoak Fundizio eta Polimetalurgia eta Eraikuntza Metalikoak dira; eta erdi mailakoak, Erizaintza, Arreta soziosanitarioa, Ibilgailuen elektromekanika, Karrozeria, Mekanizatua eta Soldadura-Galdaragintza.

Datorren ikasturteko eskaintzan nobedaderik badago?

Krisian gaudenez, ez digute utzi eskaintza hori asko aldatzen eta ziklo berberak jarraitzen dute, baina eskatu dugu modalitatea aldatzea: Mekanizatueta, goizeko zikloa dugu eta eskatu dugu, horretaz aparte, arratsaldeko zikloa eskaintza partzialan eman ahal izatea: bi urtean egin beharrean, hiru urtera pasatzea, ordu gutxiago emanda egunero. Horrela, erraztu egiten da lanean dauden ere etortzea. Baina erantzuna oraindik ez dugu jaso.



Rikardo Lamadrid, Aretxabaletako institutuko sarreran. | LEIRE KORTABARRIA

Laster hasiko da aurre-matrikula egiteko epea. Nor animatu nahiko zenuke bereziki?

Aurre-matrikula maiatzaren 27tik ekainaren 6ra arte da. 2. maila egin behar dutenak ekainaren 17tik uztailearen 4ra arte matrikulatu behar dira, eta 1. mailarako aurre-matrikula egiten dutenak uztailearen 9 eta 16 artean egin beharko dute matrikula.

Azkeneko urteetan, gure ikasleen adina nahikotxo aldatu da. Lehen DBHtik etortzen ziren; 16 urtetik gorakoak eta 24 urtera artekoak ziren. Orain, 40-50 urte arteko asko datoz, lanean ibilitakoak, kalean geratu direnak eta beste lanbide bat egin nahi dutenak. Ikasle asko ikusten ditugu ere titulazio aldetik oso maila handia dutenak, Unibertsitatetik datozenak, gehienak goi mailako zikloak egitera. Nik

guztiak animatu nahiko nituzke. LHko zikloetan eta arratsaldeko kurtsoetan bizi guztirako irakas-kuntza ematen dugu. Animua eta motibazioa duen edozein animatuko nuke.

Aretxabaletaz gain, beste herri batzuetako ikasleak ere badituzue?

Bai. Horretan ere krisiaren eragina igarri dugu: nahiz eta zikloa urrutia egon, ikasleak etorri egiten dira. Aurten, Zarautz, Erorrio, Gasteiz, Urretxu, Legazpi eta beste herri batzuetako ikasleak ditugu.

Lanbide Heziketan dagoen eredu da Hezibi. Zertan datza eta zeintzuk dira abantailak?

Ikasleak modulu batzuen ordu teorikoak ematen ditu, ikastetxean, eta beste ordu batzuk, enpresan. Ikaslearendako lan-kontratu bat da Hezibi. Hitzarmen bat egiten da ikastetxearen eta enpresaren artean eta ikasle horrek, urte baten, ordu batzuk ikastetxean eta beste batzuk enpresan egiten ditu. Soldata baten truke doa lanera; Irakaskuntza-ikaskuntza kontratu mota dauka. Hortaz, bere kotizazioa, gizarte segurantz... dauka. Gero, enpresa horrek, ahal badu, ikaslea kontratatzeke konpromisoa hartzen du. Betetzen ez bada, enpresaren egoerarengatik, ez da ezer gertatzen; baina ikasle horrendako aukera bat da enpresa horretan gelditzeke. Hezibirekin, ikaslearen espezializazio eta kualifikazio maila indartzea bilatzen da.

Ikasle guztiak sartzen dira Hezibi ereduari?

Modalitate hori talde oso baten dako ematea oso zaila da, ezinezkoa izango litzatekeelako tutore baten dako 12-15 lagun ingururi jarraitzea egitea. Irizpide batzuk ditugu eta horiek kontuan izanda filtro bat egiten da. Kontuan hartzen dira zein den Hezibin sartzeko konpromisoa duen enpresa; ze profil eskatzen duen enpresak, eta profil horri lotuen dauden ikasleei eskaintzen zaie. Ikasleen artean, kontuan hartzen dira jarrera, iniziatiba, notak...

Jarraitzen dituzue ikasle ohiak, ea lanean dabilen?

Aurten pentsatu dugu ikastetxean lan-poltsa sortzea. Guk, zorionez, Lanbideko orientazio bulegoa dugu gure institutuan, eta horrek asko laguntzen digu goizeko zikloko bai kurtsoetako ikasleen jarrai-

pena egiteko. Lan-poltsa horrek hemendik irteten diren ikasleak enpresetan kokatzeko aukera emango digu.

Orain arte ditugun datuen arabera, hemendik irteten diren ikasle gehienak lanean daude: %80 ia-ia, nahiko datu altua. Lehen altuagoa zen: krisi aurretik %90 ingurura ailegatzen zen. Badakigu lanean ez dauden gehienak beste ikasketa batzuk egiten daudela. Datu onak dira.

Euskadiren Lanbide Heziketa eredu Europako onenetarikoa dela esaten da. Zer esportatu da hemendik beste herrialde batzuetara?

Lanbide Heziketako sailburuordea Bruselasera joan zen hemen go eredu aurkeztera eta oso harrera ona izan zuen. Maiatz bukaeran, Donostian, Lanbide Heziketako kongresua egingo da eta Finlandia, Norvegia, Suedia, AEB eta Kanadatik etorriko dira. Guk Europa iparraldeko herrialdeak hezkuntzan oso onak direla entzuten dugu beti, baina Lanbide Heziketan behintzat, hemengo potentzial handikoa dela dirudi.

Esportatzeko hemendik gehien balio duena da, nire ustez, enpresekin daukagun lotura. Confabasken, Adegiren eta, orokorrean, patronalen aldetik badago Lanbide Heziketarekiko sentsibilizazioa, beste leku batzuetan hainbestearinokoa ez dena.

Bestalde, Alemanian -eta hori da hona ekarri nahi dena- enpresak eurek eskolak sortzen dituzte eta euren langile izango direnak handik pasarazten dituzte. Horrek bermatu egiten du enpresa horretan erabiliko diren teknologiak ikasiko dituztela, eta filtro bat egiteko aukera ematen du. Horretarako, enpresaren babesa erabatekoa izan behar da, baliabideak enpresak ipintzen dituelako. Hemen, oraingoz, ez gara horraino heldu. Eredu hori hona ekartzea lortuko balitz, izugarrria izango litzateke.

Kritik irtetea eta enplegua sortzea noizko ikusten duzu zuk?

Esaten dute hasi garena irteten, baina zenbakiak ez dute oraindik hori erakusten. Zentzu horretan, Debagoienean, Lanbide Heziketako zentrook gure arteko komunikazioa asko indartu dugu, zentro publikoek eta kontzertatuek berdin, eta bakoitzak dauzkagun kontaktuak eta ezagutzak mahai gainean ipintzen hasi gara. Horatik hasi dira hitzarmenak, kolaborazioak... irteten. Esan daiteke mota horretako elkarlana hasten edo hasteko zorian gaudela.

"Hemengo Lanbide Heziketa ereduak interesa piztu du Europan"

"Patronalak oso sentsibilizatuta daude Lanbide Heziketarekin"

"Ikasturte berrian, oraingo ziklo berberak eskainiko ditugu"

"Animua eta motibazioa duen edonor animatzen dut etortzera"

ZABALIK

GOIO ARANA
goiena.net/komunitatea/



Mundua gizaki eta AHT barik

Oraingo astean lizitatu dute AHTren zatietako bat, hain zuzen ere, Bergara eta Arrasate lotuko duen zatia. Argitaratu denaren arabera, 133 milioi euro beharko dira bi herrien arteko 2,9 kilometroko trenbide zati hori eraikitzeko. Gure ibarra ei da, eraikitzeko orduan, egitasmorraldo horren gunerik zailenetako bat. Izan ere, hemen kokatzen da Y dontsu horren korapiloa. Zailtasunak zailtasun, eta ondo bidean, guztira, 600-700 milioi euro inguru gastatuko ditugu 16 kilometro eskaseko ibilbide zati hori egiteko. Tartean, Udalatx mendia zulatzeke.

Joan den astean ikusi nuen Youtube-n Christopher Dedrick estatubatuarren *La tierra sin habitantes* (Aftermath: Population Zero) 2008ko dokumentala. Ikus-entzunezko hori ez da sekulako artelana, baina zer pentsatua ematen du. Dokumentalake derki azaltzen du nola aldatuko zen mundua, une batetik bestera, gizaki guzti-guztiok lurretik desagertuko bagina. Esan barik doa, panorama izango litzatekeela naturaren errekupeprozesu motel, baina, etengabea.

Hego euskal herritarrok, behintzat, jarri dugu gure aletxo mundua hondatze jardun sistematiko honetan. Beste kontu batzuetan aitzindari izan beharrean (kultura, ongizatea, plazerra...), tristea da ikustea nola tematu garen "garapen" itsu honetan. Hala, harrigarria da ikustea nola utzi ditugun luzerako hondatuta inguruko bazter asko eta asko: industrialdeak, bideak, autobideak, autopistak, aipatutako tren azkarren bideak...

Gorago aipatutako dokumentalean ikusten da zelako astakeriak egin ditugun mendeetan zehar gizakiok. Baina, batez ere, filmak erakusten du gu trabatik kenduz gero, kostata -egin dugun kalteen tamainagatik-, baina, munduak eta bertako espezie gehienek majo bizi eta aurrera egingo zutela gu barik.

Onartu behar dut, batzuetan, aukera izanez gero, gogoia ematen duela *botoi gorria* sakatzeko.

"Triste da ikustea nola tematu garen 'garapen' itsu horretan"

USTEAK USTE

AITZIBER ARANBURUZABALA | aaranburuzabala@goiena.com

Nik ere egiten ditut

Gomazko pultserei buruz ari naiz. Hilabete pasa inguru ezagutu nituen eta hasieratik gustatu zitzaizkidan, eskulan-zalea naiz-eta. Eta egia esan, oporretan konturatu naiz beste hainbat abantaila edo onura dituztela: ama baten poltsan ez dute leku askorik okupatzen eta egoera askotan oso erabilgarriak dira entretenimendu moduan (bidaiatzen, itxaronaldietan...); jendearekin harremana sustatzeko aitzakia ere bada, batak besteari erakutsi edo elkarrekin egiteko ere bai; opari merke bat egiteko aproposa; atzamarrak *play*-tik askatu eta beste era batera mugitzeko... Horregatik guztiagatik izan ote du horrenbesteko arrakasta? Bejondeiola, bada, asmatzaileari!

KALE INKESTA

Ikusi duzu 'Ocho apellidos vascos' pelikula? Zer iruditzen zaizu euskal estereotipoekin umorea egitea?




EUGENIO VICENTE
BERGARA

"Ez dut oraindik ikusi baina proposamen interesgarria iruditzen zait; ikustera ohituak gauden film amerikar horiengandik ezberdina".



AINARA MANTEROLA
BERGARA

"Ikusi dut eta gustatu zitzaidan. Baditu puntu batzuk kritikatzeko modukoak burla apur bat egiten duelako, baina orokorrean ondo dago".



AURKEN MAIZTEGI
BERGARA

"Ez dut pelikula ikusi baina oihartzun handia du eta ikusiko dut. Estereotipoena? Ikusi egin behar ze umore mota egiten duten!".



IRATI ELORTZA
BERGARA

"Ikusi dut pelikula eta euskaldunen inguruko txiste onak egiten dituela iruditzen zait. Batzuetan, akaso, gehiegixto, baina dibertigarria da".

HANDIK ETA HEMENDIK

Ze pagotxa

Aritz Galarraga
berria.info/blogak/ekografiak/

Pixka bat da ipuin hartan bezala, hotzak egotea eta, ez oihartzegatik, hotzik ez sentitzea: "Baina nahikoa da norbaitek esatea: Hotz egiten du, ezta?, edo baten batek galdetzea: Hotzak zaude?, bat-batean berogailu batera hurbiltzeko beharra senti dezazun".

Bada, antzeko gauza bat gertatu zait: prime time-a aurreratzea zer iruditzen zaidan galdetu didaten arte, ez dut sentitu nire larruan aldaketa horrek geure bizitzetan izango lukeen eragina.

Ana Mato Espainiako Osasun eta Gizarte gaietako ministroak prime time saioen ordutegiak aurreratzeko eskatu die telebista kateei —eta eskatu badie, egin beharko dute; eta bestela planteatuko dute lege bat, zergatik ez abortuarena bezalakoa, arbuio sozial handiena izanik ere aurrera aterako dutena—. "Prime time ordutegiaren aldaketak herritarrei lehenago oheratzen eta gehiago deskantsatzen lagunduko die". Eta gero politikariak ez omen daude herritarren zerbitzuko.

Zehatzago, eskatu die ordutegi nagusia 23:00en buelta horretan bukatzea, eta albistegiak ordu erdiz-ordu betez aurreratzea.

Piezatxo bat eman zuten ETBko albistegietan, oso argigarria. Xabier Madariagak Frantziako prime time-aren berri eman zigun, eta, ondorioz, bide batez Hendaia-koa. Txantxa eta guzti: "Informatiboek gertatzeko denbora ere ez diete ematen albisteei". Hain zuzen, albiste guztiak Espainian Frantziarekiko dugun ordu beteko décalage horretan gertatzen baitira. Ez dakigu ze pagotxa dugun espainol izatean. Hendaian, beraz, 20:00etan hasten da ordutegi nagusia, eta 23:00etan amaitzen. [...]

Joselu Blanco ETBko programazio arduradunak esan zuen irratian: "Oso zaila da geure ohiturak aldatzea; 22:00etan joaten gara afaltzera, ez da beste inon gertatzen". Eta arrazoi osoa du. Telebistari dagokionez, 23:00etan biltzen da jende gehien aparatua aurrean. 20:00etan eta 00:30ean ikuslego berdina daukazu. Gauerdian 18 milioi lagun daude telebista ikusten. "Ohiturak ezin ditugu aldatu. Gu egokitu egiten gara. ETBren prime time-a 22:30 inguruan hasten da". Esaten nizuena, ze pagotxa dugun espainol izatean.

Arrazismoa futboleko zaleek jaurtitako banana jan du Alvesek

Jon Torner
argia.com/blogak/jon-torner/

Hainbatetan ikusia dugu, nola futbol jokalariek beltzei tximu imintzio eta soinuak zuzentzen dizkieten beste taldeko zaleek.

Batzuetan bananak ere botatzen dizkiete, gauzak argi utzi nahian-edo.

Jokalariek, normalean, ez ikusiarena egiten dute.

Igandean, ordea, Dani Alves Bartzelonako jokalariek Villarrealen zale batek jaurtitako banana hartu, zuritu eta jan egin zuen.

"Halaxe hartu beharra dago. Ez dago hau aldatzerik.

Hamaika urte daramatzat hemen eta guztiak berdin jarraitzen du. 'Atzeratu' hauez barre egin behar da...", adierazi du jokalariek brasildarrak.

Alvesek arrazismoa jan zuela esan dute hedabide batzuek.

Gehiegixto da hori esatea, baina gaia azaleratu du behintzat...

goiena⁴
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Altor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailatoko arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Goiatz Arana
Maketaria Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Cordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko apirileko zozketetako irabazleak



ARRIKRUTZ
Oñatiko kobak

Arrikrutz kobak bisitatzeko sarrerak

Nerea Garai Kortabarria (Arrasate)

Jose Ramon Idigoras Oñate (Aretxabaleta)

Luken Martin Izurrategi (Aretxabaleta)



Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

Navman F360 GPSa GPSa


Antxon Gutierrez Miranda (Arrasate)



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuek

Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra

Juana Arana Barandiaran (Oñati)



XII. LEOIA TA SAGUA

Sagu txiki batek igo zuen lotan zegoen leoiaren bizkar gañera. Esnatu zuen leoia, ta arrapatu zuen sagutxo atzapar artean. Sagu gaxuak garraizika onela otoitzen zion leoiari:

—Azketsi jauna! Utzi bizirik, arren, ordainduko dizut-eta!

—Ze ordain eman lezake sagu gaxu onek? — zion leoiak bere artean, ezetsirik saguaren laguntza. Bañan, errukitu zuen, ta utzi zion pakean.

Geroago, eizari batek arrapatu zuen leoi ori zareaz, ta indartsua izan arren gelditu sareartean buru ta anak loturik, zirkinik ere egiteko etzala.

Ikaragarritzko sumintasunez asi zuen orroaka. Sagu txikia, orroia entzun ta beriala, atera zuen zulotik eta joan zuen leoi-gana.

—Zer dezu leoi jauna? — galdetu zion saguak.

—Zer detan? Arrayo-pola! Arrapatzen badiat anka-biko ori! —erantzun zion orroi aundi bat egiñaz.

—Ez estutu, nik azkatuko zaitut-eta.

—Bai, zera egingo dek!

—Egon geldi —esan, da eldu zion sagutxoak bere ortz zorrotzakin sareari, ta lokarriak ebakiaz azkatu zuen leoia.

Orrela erakutsi zion saguak leoiari, aundi ta indartsua izan arren ez dala ezetsi bear txiki ta argalak baitu lezaken laguntza.

Arrasateko Eroski Hipermerkatuak emandako E-reader bat

Nagore Moia Murguzur (Oñati)

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

SARIAK JASOTZEKO:

Harreman dendako otarra. Harreman Dendak Arrasateko Eroski Hipermerkatuan dagoen dendan jaso behar da.

Beste sariak. Jaso itzazu GOIENAREN egoitzan.

Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.

GOIENA. Oñati Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05

Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 17:30. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

Labidea: leku txikian, zerbitzu handia

Egin duten eraldaketa material birziklatutarekin eta euren eskuekin eta diruekin egin dute

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

"Buelta eman diogu denda-zerbitzu guztiari. Lokalak zituen bi espazio, eta banaketa hori apurtu egin nahi izan dugu; epeak behar-tuta, goiko partea egin genuen lehenengo (urtarrila-otsaila), behintzat, zerbitzua ematen hasteko. Orain, bigarren fase moduko batean egin dugu beheko txokoa: mahai batzuk jarri, proiektorea, soinu ekipoa... bilerak, ikastaroak, hitzaldiak, tailertxoak, emanaldiak... egiteko; lehen komunera-ko pasoa eta biltegia zena aisialdirako txoko izan dadin egokitu dugu"; bi berba horiekin laburbildu dute Inaxio Gabilondok eta Ixidor Salaberrik, Labidea denda-tabernaren arduradunek, Gatzagako zerbitzu publiko horri hila-beteotan egin dioten eraldaketa.

Aldaketa hori, baina, ez da espazio fisikora mugatu, berorrek ekarri du Labidearen zerbitzu handitzea.

Aisialdi txokoa

"Dagoeneko eman dugu pelikula bat umeendako, beste film batzuk ere bota ditugu, futbola, pilota... Egia esan, giroa sortu izan da (...) Eta adibidez, gazteei eskaini diegu eta herriko edozeini eskaini gura diogu proiektorea erabiltzeko aukera, guk pelikula noiz ipini zain egon barik", kontatu dute Gabilondok eta Salaberrik, proiektorearekin lotuta.

Aisialdi txoko horri laster astindua emango diotela aurreratu dute. Astindua, erabilera aldetik. Izan ere, dagoeneko bi ikastaro bertan egitea badute aurreikusita: bata, Chufamix delakoaren gainekoa, tresna horren sortzaileetako batekin; eta bestea, jertseak egitekoa.

Eta horrez gainera, elikaduraren subiranotasunaren filosofian bueltan herrian eratuko



Bi mutiko aisialdi txokoa, proiektorearekin.



Tabernako mahaiak.

den taldearendako bilera-areto izango dela ere aurreratu dute.

Informazio puntua

Handitu egin dute, baita ere, informazio zerbitzua. Batetik, Internet duen software libreko ordenagailua jarri dute, kanpotarren zein herri-tarren eskura; wi fia ere erabilgarri dute eta bi arbel gehitu dituzte: taberna-dendan nagusiendako,

Bertakoa eta gertukoa

Astean birritan Gatzagako ogi osoa eta Arrasateko baserriko ogia eta astean behin Aretxabaletakoa ekartzen dute. Baita gazta ere... Aramaiotik, berriz, sagardoa eta sagar-zukua. "Zukua dabil izaten demaseko arrakasta, jendea erosi eta erosi dabil. Guk txikitoetarako erabiltzen dugu, alkoholik edan ezin dutenak Coca-Cola, mosto eta halakoekin kokoteraino daude, eta hau ekologikoa, naturala... da, eta, txikitoaren prezioan... Eta arroz osoa, eta lenteja eta garbantzuk Argedastik (Naf.) ekartzen ditugu, ekologikoak. Bidezko merkatarizatik, berriz, hemen produzitzen ez direnak: kinoa, kuskusa... eta Jakionen produktuen salmenta-puntua ere bada".



Ixidor Salaberri eta Inaxio Gabilondo, elikagaien salmenta txokoa.



Labidean dagoen taberna-gunea. | ARGAZKIAK: UBANE MADERA

jakinazpenak, hitzorduak... bertan jartzeko; eta aisialdi-txokoa "umeendako eta gazteendako. Ikastaroren bat egiten dabilenari ere ondo etorri ahal zaio azalpenak emateko, eta txikitxoaren altura errespetatu dugu", esan dute.

Eta orokorrean erraz antzematzen den aldaketa nabarmenena elikagaiekin lotutakoa da. Apustu garbia egin dute Labidean bertako

edo gertuko eta ahal denean produktu ekologikoen zein bidezko merkataritzan oinarritutako alde (erdiko taulan).

Ildo horretan, kontsumo taldea sortu behar dute maiatzean; eta "asmoa dago herriko baserri-tarrekin harremanetan jartzeko eurek ekoizle txiki moduan zein ekarpen egin dezaketen kontsumo talde horretan banatzeko".

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net

ESKORIATZA

Eskoriatzar ugariren topaleku izan da, beste behin, Atxorrotz gaina

Goizean tontorrean eta arratsaldean plazan, festa giro ederra izan zuten



Giro ederra, atzo eguerdian, Atxorrotzen. | JOSEBA GABILONDO



Erromeria, arratsaldean, Herrixa Dantzan ekimenaren baitan. | IMANOL BELOKI

LARRAITZ ZEBERIO | ESKORIATZA

Eguraldia lagun izan zuten eta eskoriatzar ugari animatu zen atzo Atxorrotzen goiz pasa egitera. Egun seinalatuua zen, izan ere Atxorrotz Eguneko ekitaldiak zeuden iragarrita. 11:00ak alderako jende kopuru polita zegoen tontorrean, baina apur bat beranduago pilatu zen jende gehien: 13:00ak aldera, hain zuzen ere.

Gaztelekuak antolatuta, gazteendako ginkana egin zuten Atxorrotzen; eta Txirikila elkarrekin antolatuta, umeendako jolasak ere egon ziren. Kobazuloan ibili ziren atzera eta aurrera, oreka zintarekin ere ekinaldi polita egin zuten eta eskulantxo

batzuk ere ez ziren falta izan: bertan aurkitutako adar eta hostoekin entretenitu ziren neska-mutikoak.

Okasiorako Atxorrotzen ipinitako tabernan ere lanpetuta ibili ziren. Pintxo salmenta bikain joan zen eta sagardoa agortu egin zen. Eskoriatzar askok goiz pasa baino gehiago egin zuten Atxorrotzen, asko bazkari eta guzti igo baitziren tontorrera.

Arratsaldean, plazan

Festa egunak herriko plazan izan zuten jarraipena arratsaldean. Herritarrek egindako patata tortilla pintxoaren salmenta solidarioa ondo joan zen. Batutako dirua Atxorrotz gobernuz kanpoko elkartera bideratu dute.

Dantza egiteko aukera ere izan zuten eskoriatzarrek *Herrixa dantzan* ekimenaren baitan. Patxi Monterok gidatuta eta Jainaga eta Narbaiza trikitilarien eskutik, erromeria berezia egon zen plazan. Sokan, bikotean, korruan... askotariko dantzak egin eta ikusi ziren. Guztiak maila errazekoak.



Herritarrek egindako patata tortilla pintxoak saltzen, plazan. | IMANOL BELOKI

ONATI



OIHANA ELORTZA

Omenaldiak eta pilota finalak Olabarrietan

Auzoko sei emakumek omenaldia jaso zuten egueneko meza ostean. 30 urtetik gora egin dituzte auzoko eliza zaintzen eta lore sorta eta oroigarri bana jaso zituzten. Pilota txapelketa, berriz, estu joan da aurten. Sergio Uriartek eta Ander Biainek irabazi dute, baina ez da erraza izan Jokin Leibar eta Julen Zumalde —azpi-txapelkunak— mendean hartzea.



OIHANA ELORTZA



Arantxen taldea, basilikarako eskaileretan talde argazki atera zuten momentuan. | JAGOBA DOMINGO

OÑATI

6tik 87 urtera arteko Arantxak hartu ditu aurten Arantzazuk

130etik gora batu dira, eta giro ezin hobean igaro dute eguna

GOIATZ ARANA | OÑATI

Arantxen zortzigarren topaketa ospatu zuten atzo Arantzazun, eta izen hori duten Euskal Herriko txoko ezberdinetako hainbat eta hainbat emakume elkartu ziren bertan, 130 baino gehiago; haur,

gazte eta helduak batu ziren, azken multzo horretakoak gehienbat. Goizean, Gandiagan, Arantzazuko proiektuak ezagututa, meza entzun zuten 12:00etan, eta sermoia egin zuten Iñaki Beristain frantziskotarrak alaitasunaren mezulari

izateko deia luzatu zien, Emausen gaineko pasartetik abiatuta. Ondoren, Arantzazuko Amaren babesean eta apostoluei begira, talde argazkia atera zuten; giro ezin hobea lagun, pasioan egin; bazkaldu, kantatu eta dantzatu.


ARANTZAZU ARREGI
AZPEITIA

"Arantzazuko Amaren egunaren biharamunean jaio nintzelako ipini zidaten izen hori; Arantzazu jartzen du nortasun agirian, nahiz eta Arantxa deitzen nauten. Gipuzkoan asko entzuten da eta niri asko gustatzen zait".


ARANTXA ETXEBERRIA
AZPEITIA

"Amabitxia zestoarra zen eta nahi zuten Arantxa edo Itziar izena jartzea niri; amari lehena gustatzen zitzaion gehiago eta huraxe jarri zidan. Nik ere gustura eraman dut beti. Eguna oso polita da gaurkoa; gazte gehiago batzea besterik ez da falta".


ARANTZAZU ZINKUNEGI
TOLOSA

"Nire amaren aldeko amonarengatik ipini zidaten Arantzazu izena eta pozik nago; euskalduna da eta gustuko dut. Duela 18 urte etorri nintzen lehenengo aldiz gaurko egunez eta saiatzen naiz hutsik ez egiten. Meza entzun dugu eta, orain, bazkaltzera!".

ARRASATE

San Andres auzoko jaietan inoiz baino jende gehiago

Eguenean eta barikuan antolatutako ekintza guztietan jende ugari hartu zuen parte

MAIDER ARREGI | ARRASATE

San Andres auzoko jaiak martxa oso onean abiatu ziren eguazte-nean. Batukadak giroa berotu bazuen, gori-gori, Sinkope tal-

dearen kontzertuak jarri zuen gau-giroa. Gudarien plaza inoiz ez bezala, jendez gainezka ikusi genuen. Jaietara ezin hobe eman zizela kontatu digu Jon

Barriocanal auzo alkateak eta halaxe jarraitu zutela eguenean ere: "Ikusi egin behar zen plaza nola zegoen, gainezka! Oso pozik gaude, kontzertuan jende ugari egon zen; puzgarrietan txikitxoek gozatu egin zuten eta poteoan txarangarekin batera auzotarrak animatu egin ziren".

Auzo bazkarirako, berriz, 120 lagun elkartu ziren plazan. "Eguraldiak lagundu digu eta horrek ere asko egiten du. Ekintzak bi egunetara mugatzean, jaiak bizia- goak egitea lortu dugu".



Egurdiko poteoa Motxila Band elektro-txarangarekin. | MAIDER ARREGI



Sinkope taldearekin Gudarien plazak gainezka egin zuen. | IMANOL SORIANO



Auzo bazkarian 120 lagun batu ziren. | M.A.



Puzgarrietan ilara luzeak sortu ziren. | M.A.



BEDOÑABE ETA MUSAKOLA HAURRESKOLAK

0-2
URTE

Matrikulazio epea maiatzaren 5etik 14ra

2013-2014an jaiotakoentzat
BEDOÑABE HAURRESKOLA. Alfonso VIII 1. Arrasate

 Tel.: 943 79 76 86. bedonabe. arrasate@haurreskolak.net
Ate irekiak: maiatzaren 6an, 17:30etik 19:00etara
MUSAKOLA HAURRESKOLA. Elkano 8. Arrasate

 Tel.: 943 79 13 03. musakola. arrasate@haurreskolak.net
Ate irekiak: maiatzaren 5ean, 17:30etik 19:00etara




Maiatzaren 1ean igo zituzten 22 behi eta bost behor Kurtzetxikiko tontorreko hamar hektareako larrera. | GOIENA

Kurtzetxikiri balioa eman, lehen sektoretik hasita

Herriko zortzi baserriko ganadua eraman dute tontorrera, bertan bazkatzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Ohikoa izaten da maiatza hastearrekin batera baserrietako abereak mendiko larreetara eroatea. Bada, horixe bera egin dute Arrasateko zortzi baserri joan den eguna ezker: orain arte pinudia izan den Kurtzetxikiko larreetara eroan dituzte euren behi eta behorrak. Hamar hektareako lursailen 22 behi eta bost behor egongo dira uztaile arte. Animalia karga handirik ez izateko, baserri bakoitzak animalia kopuru jakin bat igotzeko baimena jaso du: "Baserriarrek animalia gehiago igotzeko eskatu digute baina hamar hektareek ez dute gehiagorako ematen", esan du Ingurumen teknikari Pello Garaik. Udazkenean 150 ardi igotzeko asmoa dute, gainerako abereak uzten duten bazkarekin amaitzeko.

Bestalde, abereendako ura lortzeko zundaketak egin ziren, baina ez zen urik lortu. Hala, Udalak sareko ura bideratu zuen

duela hiru aste: "Herriko ura nahiko gertu zegoenez, obra txiki bat eginda lortu dugu ura bertaraino eramatea. Beraz, ura bermatuta dago animalientzako", dio Garaik. Era berean, kalitatezko bazka ere izango dute abereek: "Diputazioko teknikariek egindako lurraren analisisen arabera, kalitate onekoa da. Fosforoa

falta zitzaion, baina ongarriritu dugu eta orain orekatuta dago. Hala ere, esan beharra dago gune hori pinudi bat izan dela urtetan zehar eta horregatik behin betiko zelai bihurtzeko urte batzuk behar dira. Hala ere, belarra oso ondo dator, bide onetik goaz".

Baserriarrek batera arautu
Baserriarren artean ekimenak izan duen erantzun ona azpimarratu du Garaik: "Sektorearen egoera horren latza izanda, animaliak bertan elikatzeo aukera izatea oso garrantzitsua da baserriarrendako". Hasiere baten, Udala arduratuko da larreen kudeaketaz, baina asmoa da aurrera begira erabiltzaileen inplikazioa sustatu eta 2015ean baserriarrek batera araudi bat lantzea. Herriarrei begira, 2014an zehar hainbat informazio panel jarriko dituzte; bai ibilbidean eta baita tontorrean ere, eta eskolekin ere egin gura dute lan.

ESANAK

"Sektorearen egoera horren latza izanda, abereak bertan elikatzea aukera garrantzitsua da baserriarrendako"

PELLO GARAI | INGURUMEN TEKNIKARIA



Herriko merkatariak, euskaraz ikasi eta hobetzen

Udalak behin baino gehiagotan jo du herriko merkatariengana euskaraz ikas dezaten edo dakitena hobetu eta erabil dezaten. Aurten izena eman dutenak urtarrilaren 15ean hasi ziren eskolak jasotzen; batzuk ikasteko eta beste talde bat euskara maila hobetzeko. Astean birritan elkartzeko dira Kulturaten, bi orduz. Ikastaroa 60 ordukoa da eta maiatzean amaituko dute; Udalaren arabera, "gustura" aritu dira orain arte.

NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ



Urrutiegia joan gabe

A skotan bidaiatu dut. Batzuetan urruti, duela urte batzuk motxila hartu eta urte sabatikoa egin nuen Asia eta Hegoamerikan zehar, eta txundituta bueltatu nintzen: "Hemen bezain ondo ez da inon bizi", ez nuen berriz esango. Kontsumismoa bizi kalitatearekin nahasten dugu. Hura izan omen zen ikasgaia... Hala ere, hemen bota nituen erroak, kooperatiban lanean hasi, etxea erosi, kirolari amorratua bihurtu... Orain parrandetarako dirua goi mailako kirol materialean xahutzen dut. Azken bidaia opa-roa izan da. Lagun bati alforjak eskatu eta aitaren bizikleta astunarekin Granadatik Almeriara joan naiz Alpujarretatik. Men-

ditik, patxadaz, baina izerdi ederrak botaz! Eta hara non topatu dudan nire paradisua! Asiako ur gardenik ez dut behar izan, ezta Bolibiako 6.000 metroko mendirik edo Caribeko hondartza ikusgarriarik. Berriz ere prisak gainetik kentzea behar nuen, besterik ez. Telefonoa itzaltzea, nire burua entzutea eta inguruaz gozatzeta. Txoriak nituen lagun goizetan, eguzkia zein paisaia paregabeak eguerdian eta tapa itzelak iluntzean.

Baina nire inkoherentziei jarraiki, Orbea Monegrosera joan nintzen bueltan; 6.700 partaide! Bizikleta ultrarinak, lasterketa, banderak... Nazkagarria benetan. Bill Nyereren hitzak gogoratuz: "Zerbait gaizki dago bizikleta estatiko baten ibiltzera gimnasia kotxean dioan gizarte baten".

"Kontsumismoa bizi kalitatearekin nahasten dugu"

Tuperra erabiltzen duten bezeroendako, sariak

'Ontziratu Zaituz!' kanpainaren barruan bihar egingo da lehen zozketa, parte-hartzea saritzeko

J.B. | ARRASATE

Herriko dendetan paper eta plastikozko poltsen erabilera murriztea eta arrasatearren artean kontsumo arduratsuen aldeko jarrera zabaltzea da *Ontziratu zaituz, erosketak gonoraz!* Erabiliztu tuperra! kanpainaren helburua. Martxoaren 31n jarri zen martxan, eta, sei hilabeteen, herriarren parte-hartzea saritzeko, zozketak egingo dira. Saridunek 30 euro-

ko balio duten produktuak jasoko dituzte. Bihar jakinaraziko dute lehen sariduna; hau da, sei hilabeteen, hileko lehen martitzenean egingo dira zozketak. Udalaren webgunean jakinaraziko dira irabazleak.

Udalaren arabera, tuperrak erabiltzeak bi abantaila ditu: erosketak egitea erosoa dela eta etxera heltzerakoan tuperra hozkailuan sar daitekeela, modu garbian.

Corazon de Encina elkarteak Kultura Astea ospatuko dute hilaren 11ra arte, hainbat ekintzarekin

Urteroko ohiturari eutsiz, Extremadurako Corazon de Encina elkarteak Kultura Astea ospatuko dute maiatzaren 11ra arte. Aste osoan egongo dira ekintzak, baina hilaren 9tik 11ra izango dira ekitaldi garrantzitsuenak. Hilaren 9an, Isabel Fernandez eta *El Rubio* gitarra jolearen kontzertua (23:00); hilaren 10ean Flor de Tomillo eta Al Andalus taldeen emanaldiak eta bazkideendako afaria (21:30) eta hilaren 11n mahai-jokoen finalak izango dira, besteak beste, ekitaldi azpimarragarrienak.

Nordic Walking edo Ipar Martxa probatzeko aukera egongo da hilaren 10ean, Aukearen eskutik

Nordic Walking edo Ipar Martxa ariketa probatzeko aukera eskainiko du Aukeak maiatzaren 10ean, 09:00etatik 12:00etara. Hankei ez ezik, besoei eta orokorrean soinaren goiko alde osoari eragiten dien ibiltzeko modua da: "Mugitzeko era berri bat da, gorputz osoari eragingo diona; atsegina, leuna eta, aldi berean, oso eraginkorra. Giharren indarra, bihotza, koordinazioa eta mugikortasuna areagotzen ditu", diote deitzaileek. 30 euroko prezioa du, eta Xabier Madina izango da irakaslea. Izena emateko: 943 77 16 77.

Ruper Ordorikaren kontzertua dago hilaren 23an Monterronen

Lau hitzaldi egongo dira maiatzan Kulturaten; bi, independentziari buruzkoak

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Divenire dantza ikuskizunak hasi zuen zapatuan maiatzeko kultura egitaraua; hasi bakarrik. Izan ere, ekitaldiz betetako hilabetea dago aurrez aurre; horien artean Ruper Ordorikak eskainiko duen kontzertua. Kooltur Ostegunen lau garren edizioa agurtuko dute emanaldi horrekin, hilaren 23an; Monterronen izango da –eguraldi txarra bada, Amaian–, debalde.

Eguaztenetan hitzaldiak

Maiatzeko eguaztenetan, oster, hitzaldiak izango dira Kulturateko areto nagusian, 19:00etan. Hala, oraingoan, maiatzak 7, euskal baserrien gainean, bereziki Debagoieneko baserrien gainean, jardungo du Alberto Santana historialariak. Eta maiatzaren 14an, *Gerra karlistak Euskal Herrian* hitzaldia egingo du Mikel Alberdi historialariak.

Hurrengo bi eguaztenetan independentzia izango da berbetagai. 21ean, *Cataluña hacia la independencia* izenarekin, Luis Martínez Garatek, Nabarralderen sortzaile eta kideetako batek, jardungo du. Eta 28an, *Independentziaren bidean zenbat gara?* galderari erantzungo diote Floren Aozek, Anjel Rekaldek eta Txente Redondok. Zuztarrak Errotuz, Nabarralde eta Arrasateko Udalak antolatutako mahai-ingurua da.

Maiatzaren 29an, eguena, Victor Küppers (Eindhoven, 1970) irakasle, hezitzaile eta hizlariak *Vivir la vida con sentido* liburua aurkeztuko du; "pasioz eta gogotsu" bizitzeko jarrerren gaineko liburua.

Mendiko filmik onenak

Beste urte batzuetan legez, Besaide elkarteak eta Udalak Mendi



Ruper Ordorika abeslaria gitarra esku artean duela. | GOIENA

Film Festival ekitaldiko filmik onenak ekarriko dituzte. Aurten, honakoak ikusi ahal izango dira Amaia antzokian, hilaren 13an (19:30): *Cascada* (AEB, 2013), Bilbao Mendi Film Festivaleko film labur onena; *Valhalla* (AEB, 2013); eta *Cerro Torre* (Austria, 2013) mendiko film onena.

Martitzenetako zinemaren barruan antolatu dute mendiko filmen emanaldi hori, eta gainerako martitzenetan izango dira: *Mercado de futuros* dokumentala bihar; *Quai D'orsay* komedia hilaren 20an; eta *Joven y bonita* drama, 27an.

Horrez gain, film arrakastatsuenek ere izango dute lekua Amaian, maiatzan: *Noe*; *Gran hotel Budapest*; eta *Capitan America: soldado de invierno*.

'Aladdin' antzezlan

Umeek, zinemas gain, Gorakada taldeak eskainitako *Aladdin*

antzezlan izango dute hilaren 17an (17:00). Bertsoek ere izango dute tokia: Gipuzkoako eskolarteko finala eta Gipuzkoako bertso eskolen eguna ospatuko dituztelako hilaren 25ean, Amaian.

Eta Arrasate Margo Taldeko kideek antolatuta Arte azoka izango da hilaren 24an, Seber Altube plazan.

Umeen danborradarako entseguak hastear

Bi hilabete baino gutxiago geratzen da San Juan jaietarako eta SUDC elkarteak hasi da danborradak antolatzen. Hala, zabalik dago umeen danborradan parte hartu gura dutenendako izen-emate epea. SUDCek Nafarroa hiribidean duen bulegora jo behar da, 17:00etatik 18:30era bitartean.

Entseguak, oster, zapatuan, hilak 10, hasiko dituzte. Arizmendi Ikastolako Gazte-lupe gunean izango dira, 11:00etan.

Sanjuanetan kalean saltokiak jartzeko izen-ematea zabalik

Sanjuanetan kalean jartzeko saltokietarako lizentziak eskatzeko epea zabalik dago. Maiatzaren 17an bukatuko da epe hori, eta ondoren, maiatzaren 19an zozketa egingo dute eskaeren artean. Lizentzia horiekin, Garibai eta Kontezino kaleetan saltokiak jarri ahal izango dituzte. Salmenta jarduera egingo da ekainaren 23tik (17:00etatik aurrera) 26ra artean (egun osoz). Postuen muntaia, oster, ekainaren 23an, 09:00etatik aurrera, egin beharko da.

Mendi bizikleta irteera dago domekan Musakolan

M.A. | ARRASATE

Musakolako jaiei ongi etorria egiteko mendi bizikleta irteera egingo dute, azken urteotan legez. Domekan izango da, hilak 11, Ziar-Ola elkarte gastronomiko albotik irtenda, 09:00etan, eta 250 lagunendako lekua dagoela iragarri dute antolatzaileek. Izena aurrez eman daiteke www.musakola.com helbidera idatzita (10 euro) edo egunean bertan ordubete lehenago (15 euro). Proba bukatutakoan, mokadutxo eskainiko diete partaideei eta opariak zozketa-tuko dituzte.

Umeen bizikleta jaia

Umeen bizikleta jaia ere egingo dute domekan, Ziar-Ola elkartearen. Bertatik 10:30ean irtengo dira hurreratzen diren umeak, eta bi ibilbide izango dituzte aukeran. Ibilbide erraza hautatzen dutenak Musakolan hasi, Ekiloreraino joan eta itzuli egingo dira. Eta zaila gura dutenak, Elorgeraino joan eta itzuli. Umearen mailaren arabera heldu batek lagun egin beharko diola iragarri dute antolatzaileek.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/herearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

Panero: "Zentzuak ukatzen dituen sistema bat da psikiatria"

Santa Agedako ospitalien urte bi eta erdi eraien Leopoldo Maria Panero poetak. Psikiatriaz eta beste gauza askotaz egin euen berba madrildarrak.

ABC periodikora bielketan zittuen artikuluak: "Aldizkari batetan esan dezakezuna ezin duzu ileapaindegian edota dendan esan, azken bi hauek aldizkarian esaten denaren ohiartzuna bait dira".

Psikiatrikuen gaiñien pregunteute, oso kritikue zan idazlie: "Gaur egungo psikiatria medikamenduak baino ez dira. (...) Zentzuen nolabaiteko desagerketa ontzat ematen du eta era horretan tortura alegializatzen du".

Alkohola edatiek alde onak eta txarrak dituela esan euen: "Bere alderdi txarra gehiegi edateak nortasuna aldarazten duela da. (...) Mozkor bat harrapatu ondoren, hurrengo egunean altxatzea eta egin dudana ridikuloa ikustea, egunero egunero ameskaiztoa da".

Txoratute egotie, argi euen ze zan hori: "Zoramena pekatu egiteko aitzakia da. Gaur egungo gizartean zoroa deabroduna bailitzan hartzen da. (...) Zoroa gizarte kapitalista honen muga da, bere proletarioa eta bere aingeru suntsitzailea da".

Bañez de Artazubiaga palazie XVI. mendekue da Bañez de Artazubiaga palazie. Iturriotz kalien dau, goikaldien. Asensio Bañezek jaso eragin euen.

Erdi Aroko Ahaide Nagusixen burruka odoltsuetan, Bañez-Artazubiaga familixakuek Mondraueko ganboatarren jefiek zien.

20. zenbakia 1989-04-29

elkarrizketa

Leopoldo M^o Panero: "Psikiatria medikamenduak baino ez dira"

Leopoldo Maria Panero idazlea, leizez madrildarra bada ere, Arrasaten, Santa Agedako Ospitalien bi urte i erdi daramaten. Liburu ugari argitaratu ditu, 12 alergia eta, nahola bat, *Beldurrikako (orror)* ipuin liburu bat ere beste gutxiak poema libururak dira. Hurrez gain, hilabete ugari emanen ditu, *Zorroak*ko antzerkietan jaso den antzerkian, *Berrikalki* gertakari antzerkiarekin batera dago eta bere hitzak, sikatari buruz dituen erlitzak eta beste gauza askori buruz hitz egin ahal izan dugu.

— Arrasate Press: Leopoldo, ze idazlea zara, baina zure familiak Madrile ageri izan dira, horrek zuregan eragilek izan du?

— Leopoldo Panero: Egia esan gero antzerki ere dugu hurrengo orok, izan elkar gertatzen dugu, ez dugu familia asko hitz egin. Nire orain, familia osoz bizi puzteko da; familia eta maitasuna, bai, berrazken jabea bai da izan toki haren onerari. Medikalatzen ariko fisikan, ez dago eta beste giza hurrengo medikalatza izan orok. Hala ere, nire amaia Juan Luisek, *Revista de Historia de la Medicina*, hitz egin.

— Zu Psikiatriko haren interpretatzen zauden, zein da psikiatriari hurrez daren erlitzak?

— Gaur egungo psikiatria medikamenduak baino ez dira. Ni Ospitalen psikiatriari haren Nere naherari, psikiatriari haren daren erlitzak mediko hain jarraitu nahi dit. Psikiatria, orokorik ukatzen dituen sistema bat da, zentzuen nolabaiteko desagerketa ontzat ematen du eta era horretan tortura alegializatzen du. Psikiatriari endo ikusien dit, zentzurik ez dagoen tokian, zentzurik ukatzen saiatzen bati da. Keinuak ikertzen dituen EITBko medikalatza, hitz egin.

"psikiatria" era hurrez puztetzen dute zure daren. Eta hurrez geroz puztetukoan puztetuko da. Zoroa gizarte kapitalista honen muga da, bere proletarioa eta bere aingeru suntsitzailea da. Gaur egungo psikiatriari ez eragin zere, Gaur egun zoro bati erlitzak ser ditzen baina zoro ez erelitateko gipuz. Hala



Leopoldo M. Panero



Uribarriko grafitia hondatuta

Uribarri etorbidean dagoen Iberdrolaren argindar-gunean ume baten irudia duen grafitia dago; arrasatear baten ustez, grafiti "dotorea". Orain dela aste batzuk, baina, pintura bota zioten, eta marrazkia hondatu. Paseatzen ibiltzen den herritar horrek dio gune hori ez dela batere polita eta grafitiak "apaindu" egiten zuela; orain, oster, "gutziz zatartu" dutela.

Ainhoa Garitano | Jo'Ka arropa-dendako arduraduna

"Desfilean herriko denden eskaintza erakutsiko dugu"

- Bergarako komertzioak maiatzaren 10eko desfilerako prestatzen ari dira
- Herriko 45 boluntario inguruk parte hartuko dute modelo lanak egiten

JON MOÑUX | BERGARA

Bergara Bizi ekimena osatzen duten 30 bat dendak moda desfilea egingo dute zapatuan. Ekitaldia arratsaldeko seietan hasiko da, San Martin plazan. Euria eginez gero, desfilea Udal Pilotalekuan egitea aurreikusi dute antolatzaileek. Ainhoa Ibarra Jo'Ka arropa-dendako arduraduna eta Bergara Bizi egitasmo ko parte-hartzailea da. Zapatuan egingo den desfilean parte hartuko duela dio Jo'Ka dendako langileak.

Nola bururatu zitzaizuen desfile bat egitea?

Bergara Bizi egitasmo bilertan ideia batzuk agertzen hasi ziren. Neguan leku itxietan antolatu behar direnez askotan ekitaldiak, udaberria eta uda gerturaten zihozazenez, herriko plazan moda desfile bat egitea interesgarria izan zitekeela pentsatu genuen.

Aldaketa nabarmena ekarriko du euria eginez gero?

Baietz uste dut. Herriko plazan ezin badugu egin, Bergarako Udal Pilotalekuan egingo dugu, egun eta ordutegi berean. Hala ere, atzamarrak gurutzatzen gabiltza eguraldi ona egin dezan, politagoa baita kalean egitea. Jendea errazago hurbiltzen da kalean leku itxi batera baino.

Zein da desfilearen helburua?

Gure asmoa da Bergarako dendok eskaintzen ditugun produktuak maiatzaren 10ean kalera ateratea. Izan ere, bergararrei askotan kosta egiten zaie herriko dendetan sartzea. Hori dela eta, dendariok barrera horiek apurtu nahi ditugu, nolabait, zapatuan.



Ainhoa Garitano. | JON MOÑUX

"Dendetara sartzen ez diren horiei, gure produktuak kalean erakutsiko dizkiegu"

Herritarrek ez badira dendetan sartzen, gure dendan daukaguna aterako dugu kalera.

Boluntario asko animatuko dira desfilean parte hartzera.

Bai, hala da. Desfilean parte hartuko duten denden 45 bat bezero animatuko dira modelo lanak egitera. Apirilaren 29an egin genuen lehenengo entsegua eta oso ondo irten zen, artista hutsak dira guztiak. Laguntza handia eskaintzen dihardute. Harrituta gelditu ginen, gainera, animatu den gazte kopuru handiarekin. Boluntarioez gain,

Bergarako Udalaren, Goiena Komunikazio Taldearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ere izango dugu egun horretarako.

Zer aurkeztuko duzue desfilean?

Lehenik eta behin, parte hartuko duten lau edo bost ile-apaindegiek beraien karakterizazioak erakutsiko dituzte. Eta gero, zapata-dendek, osagarriak eskaintzen dituztenek, arropa-dendek eta optikek bakoitzaren produktuak aurkeztuko dituzte.

Desfileaz gain, beste ekitaldi batzuk ere egingo dituzue zapatuan.

Hori da. Alde batetik, musika-ekin edo dantzarekin loturiko ekitaldi txikitxo bat egin nahi dugu. Hala ere, ez dago guztiz zehaztuta. Bestetik, zozketa dago. Aste honetan zehar zenbakiak emango ditugu eta zapatuan zozketa egingo dugu. Bonuak izango dira sariak, Bergarako komertzioetan erabiltzeko.

Nolakoa izan zen bergararren erantzuna Bergara Bizik azaroan egin zuen ekitaldian?

Dendariok oso balorazio positiboa egiten dugu. Orduan, komertzioak zabalik izan genituen egun osoan, eta beherapenak eskaini genituen. Gainera, musikarekin ere animatu genituen kaleak. Herritarren erantzuna oso polita izan zen. Jende asko ibili zen kalean eta dendetan.

Zer eskatzen diozue zapatu honetarako bergararrei?

Guk eskatzen duguna da ahalik eta herritar gehien hurbiltzea plazara. Izan ere, azken asteotan prestatzen ari gara eta egun hauetan prestatuko dugun guztia bergararrei eskaintzeko da.

MARIJE UGALDE



Artea, debalde?

Artistak nonahi aurkitu ditzakegu: margolariak, eskultoreak, idazleak, dantzariak, aktoreak, musikariak... Egiten dutenak zerbait sentiarazten du besteengan: poza, tristura, maitasuna, gorrotoa, mirespena, amorrua... bezalako sentimenduak. Era berean, askotan, artistak desiragarriak izaten dira, euren lanbidea idilikoa ikusten baita.

Gustuko duzun zerbait egitea eta horretaz bizitzea guztion ametsa izan daiteke, baina jende ugari entzaten, artistak, gustuko zerbait egiten duelako, beti egon behar du bere artea erakusteko prest. Eskakizun baten aurrean artistaren ezezkoa jasotzea ulertezina da batzuentzat.

NIRE USTEZ

Artistak bizimodua aurrera ateratzeko erabiltzen du artea, eta hori horrela izanda, arteaz atsedean hartzeko premia ere izaten du. Halaber, ezjakintasunean, artistek euren nortasunean, odolean, eramatzen dutela artea pentsatzen dutenak asko dira.

Pentsamendu sinplea berrant! Aitzitik, modu batean horrela bada ere, artista baten atzean lan eta esfortzu handia egoten dira, urteetako prestakuntza eta ordu askoren dedikazioa eskatzen baititu artelan batek. Horrez gain, ahaztu egiten zaigu artistek, guztiok bezala, ardura ezberdinak dituztela: hipotekak, eskolak, janariak... Hori ere ogasun deklarazioa egiteaz ez dira libratzen!

Laburbilduz, artea bai, baina ez debalde!

"Artistarentzat artea bere bizimodua da"

Herriko korrikalariak oso pozik bueltatu dira Trailwalker lasterketa solidariotik

I.G. | BERGARA

"Giroa ezin hobea zen eta lagun asko egin ditugu", dio Txus Iglesias korrikalariak. Duela astebete bueltatu ziren Gironatik, eta pozik segitzen du.

Jendea, helburua, proba... Iglesiasen ustez, guztia primerakoa izan da. "Proba honi buruzko Whatsapp talde bat sortu genuen, eta jendearen mezuekin batera ez agortzeko, lasterketan eroan beharreko telefonoak itzali egin behar izan genituen", argitu du Iglesiasek. "Bai Gironan bai Bergaran oso babestuak sentitu gara".

Helburu bikoitza

Lasterketa bat baino gehiago festa solidario bat den proba horrek helburu handi bat dauka. "Izena emateko, Intermon Oxfamen alde 1.500 euro batu behar dira; guk 4.576 bildu genituen", azaldu du Iglesiasek. 100 kilometroak 17 orduan egiteko helburua ere bete zuten.



Probaren une bat. | IGAM-BERROS 2014

Korrikalariak argi dauka: "Oraindik data zehatzik jarri ez dugun arren, hurrengo edizioaren batean osterata parte hartzeko asmoa dugu".



MARIAN MELLADO

Igoera lortu dute junior mailako mutilek

Soraluce Bergara KEko saskibaloitako junior mailako mutilen azken garaipenak hirugarren postuan kokatu zituen jokalariek bergararrek. Horrela, partaidetza ligatik errendimendu ligarako igoera eskuratu dute. Bergararren azken partiduan 64-47 gailendu zen herriko taldea Oñatiko Aloña Mendiren kontra.

OHARRAK

MUSIKA ESKOLAKO OHIKO BATZARRA

Hilaren 13an, Bergarako Musika Eskolak ohiko batzar nagusia egingo du. Lehen deialdia 19:00etan da eta bigarrena, ordu erdi geroago. Bada, zuzendaritza Batzordeko hautagaitzak maiatzaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dira eskolako idazkaritzan.

KOLDO ELEIZALDE

Lehiaketara lanak aurkezteko epea eguaztenean bukatuko da. Gogoan izan behar da telebistako elkarrizketa-proposameneko epea martxoan itxi zela.

1954KOEN KINTADA

Maiatzaren 17an Lizarrara egingo dute txangoa. Irteerara joan nahi duenak 13a baino lehen 75 euro sartu beharko ditu Laboral Kutxaren 30350009110091145651 kontu zenbakian.

Pol Pol Mushing taldea sortu dute, Bergaran, txakur krosa egiten duten hamar lagunek

Azaro amaierarako, Gorlan, Euskadiko txapelketa antolatzeke konpromisoa hartu dute taldeko kideek

LARRAITZ ZEBERIO | BERGARA

Lau urte dira Fernando Cobos bergarra txakur krosa –edo canicross delakoa– egiten hasi zela. Inguruotan ez zegoen federatutako talderik, eta Pasaiako Euskanikross elkarte baxkide egin zen. "Lau elkarte zeuden Gipuzkoan, Donostialdean gehienak. Bizkaian orain sortuko dute lehenengoa, eta Araban ez dago", adierazi du. "Bergarako Pol Pol Mushing taldea sortu dugu orain eta hamar lagun gaude izena emanda. Bergarako gara batzuk, ni neu eta Peru Azkarate, esaterako. Kanpoko jendea ere badago, Elgoibarko eta Zumaiako jendea, tartean". Txakur krosa kirol modalitate ezezaguna da oraindik ere gurean. Neguko kirolen federazioaren baitan dago, mushing diziplinaren barruan. Lasterkaria eta bere txakurra homologatutako lokarriekin lotuta doaz, eta batera egiten dute lasterketa, txakurra aurretik. "Setter arrazako txakur batekin jokatzeko nituen lehenengo lasterketa, baina alaskano arrazakoa daukat orain. Egokiagoak dira lasterketa mota honetarako", azaltzen du Cobos.

Azaroan Euskadiko txapelketa

Sortu berria den Pol Pol Mushing taldeak azaroan du lehenengo hitzordu garrantzitsua. Gorlan Euskadiko txapelketa antolatzeke konpromisoa hartu dute. "Proba ikusgarria izango da, mushing modalitate guztietako lasterketak jokatu baitira. Data zehatza ipintzeko daukagu oraindik", azaltzen du Cobosek. "Azaro amaieran da jokatzeko Europako txapelketa, Parisen, eta data hori ezagutuzekoan ipiniko dugu gurea. Aurretik egin nahiko genuke. Seguruena, Gorkoak izango da Euskadiko txapelketako lehenengo proba".



Cobos eta Gari txakurra Cercedillan egindako Espainiako Kopan. | F. COBOS

Diziplina ikusgarria

Sei lasterketak osatzen dute Gipuzkoa txapelketa, eta beste sei Espainiako. "Oso proba ikusgarriak dira, benetan. Hemen orain hasi da jendea kirol modalitate hau ezagutzen, baina Europar jarraitzaile asko ditu. Ikusle asko elkartu ohi dira, benetan ikusizun polita delako".

Lasterketak 5-10 kilometrokoak dira, eta txakurrei begira araututa dago ezin direla jokatu 18 gradutik gorako temperatura badago. "Epaileek bertan behera uzten dituzte lasterketak", azaltzen du Cobosek.

Bergarako Pol Pol Mushing taldearen helburua kirol modalitate ezagutzera ematea da. "Jendea animatuko nuke azaroan Gorlan egingo dugun proba ikustera joateko. Eta baten batek parte hartu nahi izanez gero, hurbildu besterik ez du", esan du.

FERNANDO COBOS | TXAKUR KROS LASTERKARIA

"Pozik nago, aurten Europako txapelketarako sailkatzea lortu dut-eta"

Zer moduz joan da denboraldia?

Aurten oso ondo ibili naiz. Oso denboraldi ona izan da. Egia esan, oso txakur ona dut.

Ze emaitza lortu dituzu?

Gipuzkoako eta Espainiako txapelketetako lasterketa guztiak jokatu ditut; 14-15 bat izango ziren. Asteburu guztietan jokatu dut lasterketaren bat urritik martxora bitartean. Gipuzkoako txapelketan, lehenengo egin dut nire kategorian. Euskadiko txapeldunordea ere banaiz, bai elurretan, bai belarretan. Eta Espainiako txapelketan bigarren egin dut nire kategorian. Pozik nago, ze Europako txapelketarako sailkatu naiz-eta.



L.Z.

Non entrenatzen zara?

Nirekin ditut txakurrak eta ohikoena da Gorlan dugun zirkuituan entrenatzea. Aralar aldera ere egiten dut, batzuetan. Gehienetan, bakarrik entrenatzen gara, inguruan jende gutxi dardurdu-eta modalitate honetan. Txakurrendako, ordea, ona da tarteka beste txakur batzuekin entrenatzea. Horregatik, batzuetan, taldekook hitzordua egiten dugu denok elkartzeko.

Ze asmo duzu datorren denboraldiari begira?

Aurtengoa errepikatzea. Europako txapelketarako sailkatu naiz, eta hori izango da lehenengo erronka. Zorte apur batekin, Pol Pol mushing taldeko bi kide izango gara proba horretan. Konfirmatzeke daukagu oraindik, baina uste dugu Iñigo Etxaniz zumaiarra ere sailkatu dela. Gorkoak proba antolatzea ere beste erronka bat izango da.

Atzerritartasun araudiari buruzko saio informatiboa

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergarako Udalak atzerritartasun araudiari buruzko informazio saioa egingo du eguztenez Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta atzerritarrek gizarteratzea eta kulturarteko bizikidetzaz arduratzen den Biltzen elkartearen laguntzarekin. Hitzaldia Irizar jauregiko azken solairuko gelan egingo da, 18:00etan.

Saioa zuzenduta dago atzerritarrei nahiz atzerriko pertsonekin harremanetan daudenei eta atzerritartasun kontuetan informazioa behar duten bertakoei. "Hitzaldia guztiek ulertu ahal izateko, gazteleraz izango da", aipatu du Iñaki Lasak, Udaleko Gizarteratze teknikariak.

Tramiteei buruzko saioa

Eusko Jaurlaritzako Biltzen Zerbitzuko etorkinekin lan egiten duen abokatu batek atzerritartasunaren araudiari buruzko galderak erantzun- go ditu. Besteak beste, bizitzaren arlo desberdinetan legeak duen eraginari buruzkoak: bizitzeko eta lan egiteko baimenak, berritzeak, familia elkartzeko, ikasketa-egonaldiak, nazionalitatea, pertsona komunitarioen eta senideen araudia, zigorrak, kanporatzeak...

Saioko antolatzaileek azpimarratu dute atzerritarrei ez ezik eurekin harremana duten pertsona edo senideei zuzendutakoa dela, bertan informazio praktiko ugari emango da-eta. "Eguazteneko saio irekia izango denez, gai honetan interesa duen bailarako edonon hurbil daiteke Irizar jauregira", argitu du Lasak teknikariak.

Musika izango da nagusi maiatzean Bergaran

Balkoiak apaintzeko lehiaketa, eta Auzoko eta Beart elkarten ospakizunak nabarmentzen dira

L.Z. | BERGARA

Musika emanaldiak, antzerkia, ipuin kontaketa, erakusketak, Egubakoitzak Kartzelan... maiatzerako ere adin guztietako publikoarentako kultura agenda aurkeztu dute Bergaran.

Udal Musika Bandak maiatzaren 11n egingo du hileroko emanaldia; gaztetxoendako DJ jaialdiak hilaren 3an eta 24an izango dira eta ipuin saioak, berriz, hilaren 27an helduendako eta 30ean umeendako.

Bi antzezlan

Bi antzezlan izango dira Bergaran maiatzean. Hilaren 16an, Ados teatroa taldeak *Figuranteak* lana eskainiko du; eta hilaren 17an, Lastima teatro konpainiak *Aberats gajoak* antzezlan egingo du. Biak, Zabalotegi aretoan.

Bestelako ikuskizunen artean nabarmentzen da Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek hilaren 11n egingo duten *Dantzari* ikuskizuna.



Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak. | TXIRRI MIRRI ETA TXIRIBITON

Hitzordu bereziak

Belceblues taldekoek *Blues didaktikoa* kontzertu saioa egingo dute hilaren 18an Zabalotegin, eta musika eskolak udaberriko kontzertua eskainiko du hilaren 31n.

Bergara Bizik antolatuta, berriz, moda erakustaldia egingo dute hilaren 10ean San Martin plazan. Eta *Los 40 principales* izenpean, dantza emanaldia iragarri dute hilaren 23rako, pilotalekuan.

Auzoko egitasmoak jai egingo du hilaren 24an Seminarioko patioan, eta lore eta landareen azokarekin lotuta balkoiak apaintzeko lehiaketa antolatu du Udalak hilaren 14rako. Aurretik, balkoiak apaintzeko tailer teoriako-praktikoa antolatu dute.

Beart elkarteak, berriz, erakusketak egingo du San Martin plazan hilaren 11n.

Egubakoitzak kartzelan

Maiatzeko lehenengo lau egubakoitzetarako kontzertu lasaiak iragarri dituzte Gazta Asanbladatik. El Txef A, Amorante, Lou Topet, Bakelite, Petti, Isuo Sasiia, Bergarako Orkestrako hari taldea eta Enekora izango dira hil honetako gonbidatuak. Kontzertu guztiak gaztetxean izango dira, 22:00etan hasita. Sarrera hiru euro da.



Lezuri Ormazabal, Astorerako egindako bildumako diseinu bat erakusten. | M.A.

Lezuri Ormazabal | Diseinatzailea

"Oso aberasgarria izan da Astorerekin lan egitea"

- Klean bizikletan ibiltzen direnendako kamiseta bilduma bat diseinatu du
- Bost irudi dira; hiriko mugikortasuna eta *vintage* estiloa nahasten dituztenak

MIREN ARREGI | OÑATI

Diseinatzailea da afizioz eta ofizioz Lezuri Ormazabal. Astore markak udarako atera duen kamiseta bilduma baten irudiak diseinatu ditu Ormazabalek. Kirol arropak egiten dituen enpresarekin egindako lehen kolaborazioa da hau. Pozik dago egindako lanarekin, hori baita gehien gustatzen zaiona: ehunen diseinua, alegia. Harekin izan gara, diseinuen eta sorkuntza prozesuaren gainean.

Astorerekin lan egin duzun lehen aldia da. Zer nolako esperientzia izan da?

Oso polita. Gustura egin dut lana

eurekin. Hori da benetan gustatzen zaidana. Ehunen diseinura dedikatu gura dut. Ez da erraza izaten eta pozgarria izan zen Astorek nirekin lan egin gura zuela jakitea.

Noiz hasi zineten lanean?

Joan den urte hasieran deitu ninduten eta bi hilabetetan bukatu genuen lana. Orain ipini dute salgai. Udako denboraldirako diseinatutako bilduma bat da.

Kamisetak dira?

Bai, gizonetzkoendako kamisetak, kotoi organikodunak. Bizikletan klean ibiltzen direnei zuzendutakoak.

Zein izan da prozesua?

Astorekoek bazuten izan behar zuenaren ideia bat. Eurekin egindako bileratan joan ginen dena lotzen. Zer gura zuten esan zidaten. Kaleko bizikletarako arropa izanik, hiriko mugikortasunaren ideiarekin gainean lana egiteko

"Txirrindularitzaren lehengo garaietan inspiratu nintzen irudiak sortzeko"

eskatu zidaten. Gainera, *vintage* ukitua izan behar zuten irudiek.

Eta nolako da emaitza?

Bost diseinu dira, bost irudi, eta guztiek dituzte bizikletarekin lotura duten elementuak. Txirrindularitzaren lehengo garaietan inspiratu nintzen.

Bost diseinu, elkarren artean oso desberdinak?

Proposamen desberdinak egin behar dira. Denek ildo bera jarraitu ezker, oso berdintsu geldituko lirake. Astorekoek bilatzen zuten desberdinak izatea euren artean.

Estiloa, zer nolako?

Abangoardiako diseinuak dira. Lerro sinpleak erabiltzen ditut, hori da gustatzen zaidana eta horrela egin dut hau ere. Asko jolastu dut argazki muntaiekin, collage estilora...

Sortzea ez da erraza izan behar...

Gustura egiten dudana da, baina ez da erraza. Denbora behar da. Denak ildo bera jarraitu behar du eta ideia hori garatu behar da. Askatasun handia izan dut zentzu horretan. Baina gauza asko izan behar dira kontutan: Koloreak, diseinuak, tendentziak...

Astorendako lan egin izanak profesionalki lagunduko dizu?

Bideak zabaltzeko balioko du, seguru asko. Bestetik, interesgarria izan da Astore bezalako enpresa batek nola lan egiten duen bertatik bertara ikustea. Oso aberasgarria izan da eta oso motibagarria, bestetik. Poztu egiten nau, nik egindako diseinuak gero klean ikusteak eta jendea-ri gustatzeak.

Gaur egun kolaborazioena ohikoa omen da...

Bai, marka askok lan egiten dute horrela. Astorek baditu diseinatzaileak baina bilduma jakin batzuetan kolaborazio bidez lan egiten dute.

Enpresa bat duzu. Zer moduz?

Ari dira gauzak irteten. Ezpeletan ere badihardut diseinatzen eta harekin eta irteten zaizkidan beste gauzekin ondo dihardut. Gurako nuke aurrera begira ere produzitzen hastea. Diseinatutakoak nik neuk estanpatzea.

NIRE USTEZ

MIEL GURIDI



Hizkuntzarekiko ardura

Gogoan ditut haurtzaroko eskola garaiak eta nola goraiatzen zituzten garai hartako irakasleek gizakiaren lorpenak eta ahalmenak. Beno, egia esan ez bakarrik irakasleek, baita etxeetan sartu berri zirenen telebistetako saioek ere. Bazirudien mundua gizakiaren beharrak asetzeko sortua zela, iturri agortezina.

Urteak pasa dira eta ikuspegia erabat aldatu da, eskerrak! Gure mundu hau ez da iturri agortezina, eta behar baino gehiago zukutuen badugu, ez da tantarik ere geldituko ondorengoentzat. Iraunkortasuna edo jasangarritasuna bezalako hitzek hartu dute indarra, eta horiekin batera ardurak, norbanakoaren ardurak. Izan ere, gu ez gara munduaren jabe, mundua ez da gurekin batera amaituko, aurrekoekin amaitu ez zen bezala. Beraz, gure arduraz izango da ondorengoei ahalik eta mundurik egokiena uztea.

Eta mundua osatzen duten itsaso, zuhaitz, haize, animalia eta abarren artean hizkuntzak sartuko bagenitu? Norena da euskara? Gurea da? Ez, gu ez gara hizkuntzaren jabe. Hizkuntza jaso eta erabiltzen dugun zerbaitekin, eta ekologiarekin ikuspegiarekin lotzen badugu, zein izango da gure ardura hizkuntzarekiko?

Zein izango da ba, jaso, ahalik eta ondoen erabili, aberastu eta ondorengoei jaso duguna baino egoera hobean utzi. Beraz, badakizu irakurle, orain arte konturatu gabe bazeunden ere, baduzu euskararekiko ardura ekologikoa.

Aurtengo Jaunartzeak, Ganbara Txikirekin

10. urteurrenaren barruan, Parisen izan dira Ganbara Txikiko hainbat gaztetxo Pazko Astean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aurtengo lehen Jaunartzeetan Ganbara Txikik abestuko du. Hala, horrelaxe egin zuten atzoko, domeka, Jaunartzeetan Ganbara Txikiko 11 eta 16 urte bitarteko 30 gaztetxeko inguruk.

Bi domeka

Lau pieza erlijioso aukeratu ditu Ganbara Txikik Jaunartzeetako elizkizunetan abesteko, horien artean, *Aleluia*, *Jubilata Deo* eta *Dona Nobis Pacem*.

Josean Larrañaga parrokoak baieztatu bezala, aurten 67 umek egingo dute Jaunartzea Oñatin: "Bi domeketan egingo dira elizkizunak, maiatzeko lehen bi domeketan". Atzo, domeka, egin zituzten aurtengo Jaunartzeetako batzuk, eta datorren domekan, maiatzaren 11n, izango da besteak. San Migel parrokan, 12:00etan.

Parisen

Bestalde, Ganbara Txiki Abesbatza Parisen izan da Pazko



Ganbara Txikiko kideak Parisen. | GANBARA TXIKI

Astean. 51 lagun izan dira guztira eta abestu ez ezik, Paris ere ezagutu dute. Hala, hango San Lazaro elizan kontzertu bat egin dute eta Eiffel dorrea eta Versailles jauregia, esaterako, bisitatu dituzte. Horrez gain, Eurodisney

-ra ere joan dira, hango eskaintzaz gozatzen. Pazko Asteko astelehenan joan ziren, eta egubakoitzean bueltatu. Autobusez egin dute bidaia.

Ganbara Txiki 10. urteurrena ari da ospatzen.

"Gu ez gara munduaren jabe, ez da gurekin batera amaituko"

Kantoikrit zozketako hirugarren sariduna ez da agertu oraindik

Kantoikrit froga antolatzen ateratako txartelen zozketa egin zuten The Gold Sprints lehiaketaren egunean. Lehen bi saridunek orduan jaso zituzten sariak, baina hirugarrena ez da oraindik agertu. Beraz, 1016 zenbakia duenak mezua bidali dezala saria jasotzeko. Helbidea, hauxe: kantoikrit@kantoikrit.com.

ESKORIATZA

Toponimoen erakusketa bisitatu ahalko da ostera

Egubakoitzean arratsaldean eta zapatuan eguerdi partean egongo da zabalik, herriko kultura etxean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako toponimoen gaineko erakusketa atzo, domeka, ikusterik izan ez zuenak bigarren aukera izango du oraingo asteburuan. Egubakoitzean, 18:00etatik 20:00etara bisitatu ahalko da kultura etxean; eta zapatuan, Aitzorrotz Kultura Elkartean Egunaren bueltan, 12:00etatik 14:00etara bitartean.

2011. urte bukaeran hasi zuen Ikermapek Eskoriatzako toponimoen azterlana; ordurako Aitzorrotz kultura elkarteak toponimoen gaineko azterketa bazuen eginda. Hasieran, artxiboak, erregistroak eta halako iturri dokumentalak aztertu zituzten, eta iaz, udaberrian, ahozko toponimiaren bilketa egin zen; Oxel Uribe-Etxebarriak egin zuen landa lan hori.

Idatziz nahiz ahoz jasotako dokumentazioa udalerriko lekuak ezagutzen dituztenekin kontrastatu ziren jarraian; besteak beste, elizateetako arduradunekin eta basozainekin; eta gero, toponimo bakoitza mapetan kokatu; hain justu, horixe da erakusgai dagoena egunotan.



Kultura etxean dago toponimoen erakusketa. | ESKORIATZAKO UDALA

Udalbatzaren oniritzia

Udalbatzak leku izenak behin betiko onartu aurretik, jendaurrean jarri gura izan ditu Udalak, egon daitezkeen akatsak zuzentze eta ekarpen berriak jasotze aldera. Horren bueltan, erakusketa zabalik dagoen bitartean lagun bat egongo da bertan, toponimoei buruzko azalpenak ematen eta egon daitezkeen ekarpenak jasotzen; Onintza Ezkibel eskoriatzarra da hura.

tzen; Onintza Ezkibel eskoriatzarra da hura.

Elizateetan ere ikusgai

Bestalde, Eskoriatzako Udaletik jakinarazi dute herrigunean ez ezik, elizateetan ere egongo dela ikusgai esandako erakusketa; hain justu, auzo bakoitzean dagoen lur zatiarena jarriko da. Datuk zehazten dabilta.

Eguenera arte aurkez daitezke udal lokala alokatzeko eskaintzak

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Gaztañadui kaleko 29. zenbakiko behean dagoen udal jabetzako lokala errentan emango da. Horren gaineko eskaintzak eguena, maiatzak 8, baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean, 14:30ak arte.

Lokalak 152,49 metro karrautuko azalera du eta hura osorik

edo partzialki hartzeko lehiatu ahal izango dela jakinarazi dute Udaletik. Prezioari dagokionez, oharatzen dute 60,42 euro ordaindu beharko direla, gutxienez, metro karratuko eta urteko.

Gehienez 20 urte

Kontratuak hamar urteko iraupena izango du. Dena dela, kon-

tratu berriak eta alde biak ados jarrita luzatu ahal izango da bost urteko beste bi alditan; kontratuaren iraupena, denera, bi urte baino gehiagokoa ezingo da izan.

Jardueraren inguruan, hirugarren sektoreko bulegoak, 1. eta 2. kategorietako merkataritza, hirugarren sektoreko askotariko erabilerak eta osasun zein sorospen arlokoak jarri ahal izango dira. Industria arloan, 1. kategoriakoa, etxebizitzari atxikitako erabilerak gisa onartuko da.

NIRE USTEZ

MARIJO PAGALDAI



Bizitzaren keinuak

Zer da bizitza? Errepikapena beharbada? Edo agian zerbait berria atera ahal diogu momentu bakoitzari?

Bizitzan badaude bideak hainbat bider ibiliak direnak, seinale oso nabarmen eta erraza uzten

durenak, beti horrela jarraitzeko.

Baina nahiko arretaz eta esnatzeko borondatez bagaude, bidexka desberdinak, sortzaileak, interesgarriak erakusten dizkiguten keinu finak eta isilak agertzen dira, momentu egokian. Bai, aukera berriak erakusten dizkigute. Eta adi ez bagaude edo kasurik ez badiugu egiten, itzali egiten dira.

Bidexka horiek ez daude inprimututako mapetan, ezta eguneroko kontzientzian ere.

Norberak aurkitzen ditu ibiltzen hasten denean, ez daki oraindik nondik nora jarraitu behar

duen, baina konfiantza du ez-jakite horretan eta adi eta arretaz doa bide horretatik.

Sarritan praktikatu eta horrela jardun egiten badugu, apurka-apurka, une ezezagunen aurrean, baita programatu edo antolatutako gabeko une horietan daukagun beldurra desagertzen joaten da.

Horrela uste dut, pixkanaka-pixkanaka osatzen goazela, osaketan ere; horrela esnatzen ditugula hainbat eta hainbat aukera bizitzari bere fruitu ugari ateraz eta gure osotasunaz jabetuaz.

Ausartzen gara bizitzako une bakoitza gu ezagutzeko abentura bat bihurtzera?

ARETXABALETA

Diru laguntzandako arauak argitaratu dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

2014ko udal aurrekontuan jasota geratu diren diru laguntzen berri eman du Udalak azken asteotan. Herriko elkarte eta erakundeek hainbat arlotan egindako jarduerak sustatzeko laguntzak dira, betiere, udal interesekoak izanda. Laguntza horien bitartez, askotariko proiektuak garatzen lagunduko die Udalak elkarte eta erakunde horiei; besteak beste, kirola eta kultura sustatzen, euskaren erabilera bultzatzen, garatu gabeko herrialdeetan lankidetzako proiektu solidarioak egiten eta enplegua sortzen.

Laguntzak banatzeko ezarritako arauak eta argibideak

apirilaren 15ean argitaratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean datoz. Bertan zehaztu dituzte, gainera, eskaerak nora bideratu eta laguntza bakoitzari ezarritako epeak.

Sei arlotarako laguntzak

Iragarritako diru laguntzok sei arlotarako izango dira: kultura, euskara, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, kirolak eta enplegua. Arlo bakoitzerako kopuru bat zehaztu dute; adibidez, kultura elkarteei laguntzeko 55.000 euro; kirol taldeen jarduerendako 14.000 euro; enpresa ekimen berriak sustatzeko 20.000 euro eta herriko enpresek langileak kontratatuzko 10.000 euro.



M.A.

Goxo-goxo Uxue Alberdirekin

Esnea eta tinta izenarekin amatasunaren eta haur literaturaren gainean jardun zuen Uxue Alberdi kazetari, bertsolari eta idazleak joan den martitzenean Kurtzebarri eskolan. Ia 30en bat lagun elkartu ziren haren inguruan, eta oso gustura jarraitu zituzten hark kontatutakoak, hala nola erditze momentua (bertsotan), bizitzaren zikloa eta amen segurtasun falta. Hori guztia literatur kontuekin bat eginda.

Proposamen bikoitza Loramendiren eskutik: Kurtzebarriko haitzak eta jendaurreko berbeta

Kurtzebarriko haitzak bertatik bertara ezagutzeko ibilaldia antolatu du Loramendi elkarteak datorren zapatarako, hilak 10, eta eguaztenean (19:00) horren berri emango dute udaletxe zaharrean; xehetasunak emango dituzte eta bideo bat bota. Irteera zapatuan da (08:00) Herriko Plazako kilometrotik irteera. Eguenean, ostera, Manu Marañon adituak jendaurrean zelan egin berba hitzaldia eskainiko du (18:00). Gako batzuk emango ditu eta gero *Jendaurrean hitz egitea* liburua aurkeztuko du.

OHARRAK

'GAZTA ZATI BAT'

IKUS-ENTZUNEZKOA GAUR

Gure Esku Dago dinamika antolatuta, Jon Maiak zuzendutako *Gazta zati bat* dokumentala eskainiko dute Arkupen gaur, astelehena, 19:00etan (2011, 99 minutu). Zapatuan, hilak 10, beste emanaldi bat egongo da, 22:00etan.

GOIO ARRIETAREN

BAKARRIZKETA EGUNEAN

Bakarrizketa saioa eskainiko du Goio Arrietak (Eskoriatza, 1961) egunean, hilak 8, Arkupen, 20:00etan. Hirugarren lana aurkeztuko du Aretxabaletan eta beste bi emanaldi ere egingo ditu: hilaren 23an eta 30ean (22:00). Prezioa, 4 euro.



Lehenengo eta bigarren mailako ikasleak, liburutegiko bisitan egindako ipuina erakusten. | GEAXI EZPELETA



Haurrak, liburutegian lanean. | G.E.



Liburutegian, margotzen. | G.E.

ELGETA

Herri Eskolako bi taldek bisita gidatua egin zuten aurreko astean liburutegian

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako haur guztiek ezagutzen dute udal liburutegia, baina aurreko astean egindako bisita gidatuen bitartez zerbitzuak eskaintzen dituen baliabide nagusien berri izan zuten. Astelehenean, apirilak 28, lehenengo eta bigarren mailako neska-mutikoak izan ziren liburutegian eta martitzenean, apirilak 29, bosgarren eta seigarren mailakoak egin zuten bisita.

Informazio erabilgarria

Geaxi Ezpeleta liburuzainaren ekimenez liburutegi zerbitzuaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten bi taldeetako ikasleek. Liburutegia zertarako erabil daitekeen, liburuak nola antolatuta dauden, bilaketak zelan egin daitezkeen, arautegia zein den... informazio erabilgarria jaso zuten umeei liburutegian eskutik eta amaitzeko jasotako informazio guztia

jasotzen duen liburuxka ere egin zuten eskulan moduan. Etxera eraman zuten umeei liburuxka hori.

Balorazio positiboa

Liburuaren Nazioarteko Eguna-ekin lotuta egindako ekintzek ere harrera ona izan dutela jakinarazi dute liburutegitik. Umeendako egindako itzal-txotxongiloen tailerrak, bereziki, harrera oso ona izan zuela esan dute.

LEINTZ GATZAGA

Hauteskunde-mahaian ezin egona adierazteko alegazioak, asteen

Bestalde, oraingo asteburuaz geroztik, herriko mezak Dorletako Santutegian emango dituzte

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Udalbatzak eratu du maiatzaren 25eko hauteskundeetako mahaia; bestela esanda, zozketa bitartez aukeratu ditu hauteskundeetan bozketa mahaian egon behar duten hiru herritarrak eta haien sei ordezkokoak. Guztira, beraz, bederatzi lagun. Bukatu berri den zubian dagoeneko jasota

beharko lituzkete jakinarazpenak herritar horiek. Izan ere, oraingo egubakoitzera arteko epea dute hauteskunde-mahaian egon ezin direnek horren gaineko arrazoiak edo alegazioak aurkezteko.

Bi lekutan egin daiteke hori: Leintz Gatzako udaletxean edo Bergarako epaitegian.

Mezak, Dorletan

Bestalde, ohiturari jarraituz, maiatzaren lehen domeka ezkerro (atzo) Leintz Gatzagako mezak Dorletako Amaren Santutegian esango ditu Martin Mendizabal apaizak. Ordutegia herriko mezen ordutegi berbera izango da: 12:30ean hasiko dira mezak. Eta Dorletako Santutegian esango dituzte mezak urriaren amaierara arte.

Edozelan ere, bada salbuespen bat: uztailko lehenengo domekan San Martin basilizian esango dute meza. Gero, beraz, azaroko lehenengo domekan hasiko dira atzera ere mezak herriko San Millan elizan esaten.

ARAMAIO

Lorabarri Astea dator, bertakoa mantendu eta esperientziak trukatzeko

Maiatzaren 9tik 17ra, tailerrak, hitzaldiak, azoka, dastatzeak eta beste hainbat ekintza izango dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramailur kontsumo taldeak eta beste zenbait taldek elkarlanean, Lorabarri Astea antolatuko dute maiatzaren 9tik 17ra: "Iazko esperientzia ona eta arrakasta ikusita, aurtur ere antolatu dugu. Elikadura burujabetza, herriko ondarea eta kultura, bertako ekoizpenak, herritarren ezagutzak konpartitzea, nekazaritza ekologikoa, sagargintza eta sagardoa... Denak izango dira presente".

zioa da 20 eurokoa. Hilaren 10ean sendabelarrak ezagutzeko ibilbide gidatua egingo du Gabi Villalbak plazatik abiatuta (11:00) eta hilaren 12an bideo emanaldia eta hitzaldia izango dira Sastiñan (18:00) Via Campesinaren mugimenduaren inguruan, Paul Nicholson-en eskutik. Hilaren 13an ekonomatoko produktuen dastatzea egingo dute arratsaldean; hilaren 15ean, berriz, Aramaioko sagardoak dastatuko dituzte Juan Zuriarrain etnologoarekin batera. Aurrez eman behar da izena, 669 946 594 telefonora deituta. Hilaren 16an baserriko konpostaren gaineko saioa gidatuko du Xabier Herrartek. Lorabarri Astearekin amaitzeko, azoka egingo da maiatzaren 17an; Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etan hasita.

la egunero ekintzaren bat

Lehen ekintza izango da Divina eta Rakel Arriolabengoak gidatuko duten ogi ekologikoa egiteko tailerra. Azkoagako abadetxean izango da, 18:00etatik 21:00etara. Izena emateko 688 695 763 telefonora deitu behar da hilaren 7a baino lehen; pre-



Iazko Lorabarri Asteko bisita gidatuko une bat. | ARAMAILUR KONTSUMO TALDEA

ANTZUOLA

Ikusi Makusi antzerki taldeak eguaztenean aurkeztuko du lan berria

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Oñatiko Pake Leku elkarteko antzerki taldeak *Vivir en villa Titiritaina* antzezlan aurkeztuko du. Landatxoek antolatuta, eguaztenean, maiatzaren 7an, Torresoroan izango da ikusgai, 17:00etan.

Gidoiari eta aktoreen lanari esker, ederki pasatzeko aukera izango dute ikusleek. Komedia da osagai nagusia.

Sei ezezagun

Kasualitatez Arantzazun topo egin eta elkarrekin bizitzera joatea erabakitzen duten sei adineko pertsonaren istorioa kontatzen du antzezlanak. Bost emakume eta gizonezko bat dira, guztiak ere asko bizitakoak eta elkarrengandik oso desberdinak direnak. Umerez, gaurkotasuneko kontuei erreferentziak ere egiten dira obran.



Ikusi Makusi taldekoren lan berria. | GOIENA

Goiena Klubeko maiatzeko zozketak


Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

Nintendo 2 DS + Pokemon jokoak

Etxeko gaztetxoarentzat Nintendo 2 DS + Pokemon jokoak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Nintendo 2DS

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin



ARRIKRUTZ
o ñ a t i k o o b a k

Sarrerak
Arrikruz kobak bisitatzeko,
6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz



Argia

Joko sorta
Nairobitarra eta Kirolaz Badakit
jokoek osatutako 2 joko sorta.

Parte hartzeko sariaren izena:
Jokoak



www.harremamenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuek

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez
osaturiko otarra.

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

ALOÑAKO IGOEREAREN X. URTERRENAREN JAIA

Ionut Zinca eta Ana Conde azkarrenak X. Aloñako Igoeran

- Ibilbide berriak izugarrizko arrakasta izan du
- Hamar urte hauetan aritutakoak omendu zituzten

IRATI GOITIA | OÑATI

Faboritoek ez zuten hutsik egin X. Aloñako Igoeran. Bi ordu eta lau segundo behar izan zituen Ionut Zincak helmugara iristeko. Lehen emakumezkoak, Ana Conde, bi ordu, 31 minutu eta 57 segundo. Biek ala biek indar erakustaldia egin zuten.

Gizonezkoetan parekatua izan zen lehia. Zinca eta Imanol Goñik elkarrekin egin zuten ibilbidearen zati handiena. Beherakoan, baina, Zinca aurrea hartu zuen. "Lasterketa guztian indarrak kontrolatzen joan naiz eta jaitseran oso gustura nengoen. Hor egin dut aurrera. Amaieran, ez nuen inor atzetik eta lasaitu egin naiz arratsaldeko entrenamendurako indarrak gordetzeko", adierazi zion errumaniarrak amaieran. Ez da ez ahuntzaren gauerdiko ez tula mutil honena. 35 segundo gehiago aski izan zituen, baina, Goñik helmugan sartzeko. "Berari itsatsi natzaio hasieratik eta tontor guztiak elkarrekin pasa ditugu. Berakoan, ordea, martxa bat gehiago sartu du eta ihes egin dit", zihoen bukae-

ran. Jokin Lizeagak ere biko honekin egin zuen gorako bidea, baina atzean gelditu zen gero. Hirugarren izan zen helmugan.

Emakumezkoetan lehia ez zen hain parekatuta egon. Ana Conde indartsu dago eta erraz egin zuen aurrera. Bera izan zen emakumezkoetan lehena eta 20 minutuko aldea atera zion bigarren egin zuen Alizia Olazabali. Andrea Gil izan zen hirugarrena.

Debagoienarre dagokionez, Iñigo Alzola arrasatearra izan zen lehena (2:13:22); sailkapen nagusian zortzigarren geratu zen. "Asko disfrutatu dut, azken bost kilometroak luze egin zaizkit, ordea", esan zigun. Emakumezkoetan Maite Zabaleta izan zen azkarrena. Hau ere zortzigarren geratu zen emakumezkoetan.

Guztira 342 dortsal banatu zituzten proba hasi aurretik, horietatik 24 emakumeei.

Klubun arteko Euskal Herriko Txapelketa ere jokatu zen atzo. Zincaren eta Goñiren taldeak izan ziren lehen eta bigarren postuak lortu zituztenak gizonezkoetan -Sestao Alpino eta Arratzuko Arro-

lape, hurrenez hurren-. Nesketan Sestao Alpino eta Aloña Mendi izan dira lehen bi postuetan.

Ibilbidearen arrakasta

Aurtengoan ibilbidea berria izan da, luzeagoa. 22,6 kilometro, 2.020 metroko desnibel positiboarekin. Bada, izugarrizko arrakasta izan du korrikalarien artean. Asko gustatu zitzairen eta askok Zegama-Aizkorri txiki bezala ere izendatu zuten. Eta bide guztian egon zen giroa izugarria; eguraldi ona eta jende asko tontorretan.

Urteurrena

Atzokoa lasterketa berezia izan zen bai ibilbidea berria zelako eta baita urteurrena zelako ere. X. edizioa izan da eta antolatzaileek edizio guztietan parte hartu duten lasterkariak omendu nahi izan zituzten: Mikel Madinagotia, Andoni Elosua, Koldo Urrestarazu, Iban Guridi, Josean Larrea, Manolo Morente eta Victor Luis De Pedro. Hala, aurrekoa dantzatu zieten zazpiei lasterketa hasi baino lehenago, plazan. Bestalde, antolatzaileek gogoan izan



Ionut Zinca eta Ana Conde irabazleak podiumean, xanpaina jaurtitzen. | JOSETXO ARANTZABAL

zuten baita Iban Isasti ere, hamar urte hauetan antolakuntza lanean ibili delako. Horrela, sari-banaketaren amaieran, oroigarria eman zioten. "Ez dakit saria izan den edo erretiroa eman didaten... Eskertzen da. Hemen, baina, lantalde *potente* bat dago, hau posible egin duena". Zorionak zuri abestuaz amaitu zuten aurtengoa. Ikusi egin behar hurrengo urtean izango den. "Ez gaude hurrengo urteari begira. Asmoa zen hamar urte hauei amaiera polita ematea. Ezin dut ziurtatu hurrengo urtean Aloñako Igoera egongo denik", zihoen Isastik. Ikusi behar...

Erreportaje osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



SAILKAPEN OROKORRA

GIZONEZKOAK

1. Ionut Zinca 2:00:04
2. Imanol Goñi 2:00:39
3. Jokin Lizeaga 2:02:58
4. Pedro J. Hernandez 2:07:41
5. Jabi Olabarria 2:08:25
6. Abderrahm El Qayed 2:10:25

EMAKUMEZKOAK

1. Ana Conde 2:31:57
2. Alizia Olazabal 2:51:40
3. Andrea Gil 2:53:13
4. Nerea Amilibia 2:55:34
5. M. Vazquez 2:59:59
6. Maddi Arrazoka 3:02:52




XABIER LETE / AITOR OTAMENDI
OÑATI

"Oso gustura, eguraldiak lagundu du eta baita jendearen animoek ere, igartzen zen etxean geundela. Mendilerroan lokatza zegoen, baina oso polita izan da. Ibilbide berria gehiago gustatu zaigu. Esan beharra dago, antolakuntzakoek oso lan ona egin dutela, hamarrekoa merezi dute!".



ALIZIA OLAZABAL
IRUN

"Gogorra izan da, baina nahiko ondo bukatu dut. Hasieratik jarri dut nire eritmoa eta igoeretan ere ongi sentitu naiz. Iaztik asko aldatu da lasterketa zailtasunari eta gogortasunari dagokionez. Teknika aldetik ere nekezagoa da. Horregatik joan naiz indarrak neurtzen, eta ondo bukatu dut".



JOXEAN LARREA
OÑATI

"Omenaldia jaso dugu eta eskertzekoa da, baina nik antolatzaileak eta ikusleak sarituko nituzke. Gustatu zait ibilbide berria, luzeagoa da eta gusturago ibiltzen naiz halakoetan. Urteak aurrera doaz, baina, eta mendilerroan beldur gehiagorekin eta ez lehen bezain eroso".



YOLANDA GURENDEZ
GASTEIZ

"Igoera ezagutzen nuen, izan ere, orain dela bi urte ere hartu nuen parte. Bestalde, ibilbide berria oso polita, gogorra eta teknikoa iruditzen zait. Mendilerroa, esaterako, arriskutsu zegoen eta poliki-poliki aritu gara, baita jaitseran ere. Oso esperientzia polita izan da niretzat, pozik nago".



Hamar lasterketak egin dituzten lasterkariei aureskua dantzatu zieten, proba hasi aurretik. | J. ARANTZABAL



Korrikalariak mendian gora; tartean, Iñigo Alzola (73 dortsala) helmugan lehen debagoiendarra izan zena. | ARITZ GORDO

IONUT ZINCA
IRABAZLEA

"Bazegoen lehia Imanolekin, azkenean neu garaile"

Zorionak, egubakoi-tzean hirugarren eta gaur garaile, pozik?



Bai, bietan izan naiz podiumean eta uste dut pozik egotekoa dela. Hoberena, baina, sentsazioak izaten dira. Ono bukatu dut eta gustura sentitu naiz. Lasterketa guztian zehar indarrak kontrolatzen joan naiz. Bestalde, Imanolekin egin dut ibilbide ia guztia eta ondo egon da, lehia ere bazegoen. Ibilbide berria, berriz, oso polita. Euskal Herriko interresgarrietakoa.

Baita taldeen lehia ere.

Pike sana eta polita dugu. Lagunak gara, ia familia. Biok tiratu dugu garaipena lortzeko eta azkenean nik lortu dut, baina oso talde indartsua dute eta zoriondu nahiko nituzke.

ANA CONDE
IRABAZLEA

"Mendilerroan sufritu dut, lasterketa gogorra eta konplexua da"

Pozik?

Bai, asko. Lasterketa gogorra eta konplexua da.



Desnibel handia du eta mendilerroa nahiko konplikatu zait. Izan ere, harriak ez zeuden guztiz lehor, gerrako zauri bat ere egin dut. Azken igoeran, jaitsiera bazetorrela ikusita, erlaxatu egin naiz eta harri batekin kolpatu naiz.

Ibilbide berria, gustuko?


Bai, igoera polita da. Mendilerroan, baina, sufritu dut. Zegama-Aizkorri dut jomugan eta ez nuen arriskatu nahi.

Bigarren neskari dezenteko aldea atera diozu...

Entrenatzera etorri naiz, nola nagoen ikustera. Igoeran exijitu diot neure buruari, jaitsieran lasaigo joan naiz, ez nuen atzeko erreferentziarik. Bukarera, eginikoaz kontentu.



Jokin Garai eta Joseba Molinero nekatuta, helmugara iritsitakoan. | J.A.



Korrikalariak Urtiagainen gora. | J.A.



Antolakuntzako kideak probaren amaieran; tartean, Iban Isasti orogarriaz eskuan. | J. ARANTZABAL

ALOÑAKO IGOEREAREN X. URTERRENAREN JAIA



Ikusleak, Iker Zabaleta animatzen, Arantzazun. | I. SORIANO



Deabrua bera ere lasterketan izan zen. | I.S.



Ruben Añua, Arantzazura iristen. | I.S.

Iñigo Lariz nagusi, Gaueko Lasterketa Bertikalean

Deabrua bera ere agertu zen Arantzazun, Aloñako lasterketek asteburuan zekartena iragartzeko asmoz

IRATI GOITIA | OÑATI

"Ongi etorri infernura!", zihoen deabruak berak, egubakoitzean, asteburuan zeterrenaren iragarle. Izan ere, Arantzazun azaldu eta bera izan zen Gaueko Lasterketa Bertikalea egiten lehena, eta gorako bidean, suz piztu zuen ibilbidea, argi-zuziei su emanez.

Proban, baina, ez zen bera gailendu. Indartsuagoa izan zen Iñigo Lariz. 27 minutu eta 57 segundo behar izan zituen Bellozako zubitik Buetraitz gainera iristeko. Hala, Agustin Roc eta Ionut Zincaren aurretik nagusitu zen. Lariz indartsu ibili zen proban eta erritmo bizian igo zituen maldak. Emakumezkoetan, Montserrat Vazquez izan zen lehena (0:37:42). Bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu ziren Nerea

Amilibia eta Maddi Arrazola, hurrenez hurren. Euskal Herriko Txapelketa ere jokatu zen egubakotzean [ikus sailkapena] eta koparako puntuagarria ere izan zen.

Guztira 70 korrikalari irten ziren Bellotzako zubitik banan-banan, txirrindularitzako erlojupeko baten bezala. Amaieran, gehienek probaren gogortasuna azpimarratu zuten. Izan ere, 2,7 kilometrotan 720 metroko desnibelari egin behar izan zioten aurre. Horri hotza, lokatza eta behe-lainoa gehitu behar izan zizkioten. Roc-ek -Kilometro Bertikalean munduko eta Europako txapelketak irabazitakoa- zera esan zuen bukatzean, adibidez: "Irteera izan da niretzat gogorrena, kurba eta harri asko zeuden. Arantzazu pasa ostean hasi naiz benetan topera".

Bestalde, honakoa zihoen palmarenez izugarria duen Zincak: "Asko sufritu dut, baina gustatu zait". Biak ala biak, pozik, baita Iñigo Alzola arrasatearra (bosgarrena helmugan) eta Maite Zabaleta oñatiarra (emakumezkoetan laugarrena) ere, lehen debagoiendarrak izan ziren-eta.

Izugarritzko giroa

Jende ugari batu zen korrikalariak animatzeko. "Duru inguruan 30 automobil elkartu gara. Arantzazun, eta handik gora dauden lehen maldetan ere jende asko batu da. Tontorrean, berriz, 30 bat lagun. Ez genuen horrelakorik espero, harrিতa eta oso pozik gaude. Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei", zihoen Iker Lascurain antolakuntzako kideak.

MONTSERRAT VAZQUEZ
IRABAZLEA

"Frontala jarri dudana lehen aldian izan da, gustatu zait esperientzia"

Zorionak, eginiko lasterketarengatik.

Eskerrik asko.

Frontala jarri dudana lehen aldian izan da. Pentsatzen nuen izugarritzko kolpea hartuko nuela, baina beno, ez da gaizki joan. Eskaileretan eta harrietan pixka bat larri nindoan, baina berdea zapaldu dudana uenean gustura sentitu naiz eta orduan hasi naiz benetan aurrera egiten. Amaieran, harria zegoen berriz, ikusleek ohartarazi naute; eta beraz, kontuz joan naiz. Orokorrean, gustura.

Sentsazio onekin amaitu duzu lasterketa?

Bai, gustura nago eta asko gustatu zait esperientzia. Sentsazio erabat ezberdinak dira bizitzen dituzunak, izan ere, ez duzu ikusten eta pausua moztzen duzu beldurraren ondorioz, baina ondo.



SAILKAPENA

PROBA BERTIKALA

GIZONEZKOAK

1. Iñigo Lariz 0:27:57
2. Agustin Roc 0:28:06
3. Ionut Zinca 0:28:44

EMAKUMEZKOAK

1. M. Vazquez 0:37:42
2. Nerea Amilibia 0:38:28
3. Maddi Arrazola 0:38:40

EH-KO TXAPELKETA

GIZONEZKOAK

1. Iñigo Lariz 0:27:57
1. Ionut Alin Zinca 0:28:06
1. Imanol Goñi 0:28:47

EMAKUMEZKOAK

1. M. Vazquez 0:37:42
2. Nerea Amilibia 0:38:28
3. Maddi Arrazola 0:38:40

IÑIGO LARIZ
IRABAZLEA

"Oso lasterketa polita izan da, izugarritzko antolakuntza onarekin"

Nola joan da lasterketa?

Oso polita izan da, izugarritzko antolakuntzarekin. Ibilbidea


ezagutzen nuen, neguan Buetraitzen ibiltzen naiz-eta entrenatzen. Gauez, baina, guztiz ezberdina izan da eta izugarri polita iruditu zait. Lehen zatia ez nuen ezagutzen, ordea, eta gogorra izan da. Harri asko zegoen eta erritmoa ganoraz hartu ezinean ibili naiz.

Abantaila izan al da tokia ezagutzea?

Horrelako proba baten eta gainera gauez, beti da abantaila nondik zabiltzan jakitea, nahiz eta indarrak jartzen duen bakoitza bere tokian.

Nola dator denboraldia?

Zegama-Aizkorri, Espainiako bertikalen kopa eta munduko kopako pare bat egin nahi ditut. Espainiako txapelketa da helburuetako bat, zaila izango da izazko garaipena errepikatzea.



JOANES
GOITISOLO
GERNIKA




"Nahiko gogorra izan da, lokatza asko zegoen; goian, haizea eta behe-lainoa ere bai. Disfrutatu dut eta gustura nago eginikoaz".

NEREA
AMILIBIA
AIA



"Ondo joan da lasterketa, baina arraroa izan da gauez korritzea. Eskerrak aldapak ez nituela ikusten, oso gogorrak ziren-eta".

JOKIN
ATXAGA
OÑATI



"Espero baino hobeto. Eguraldi eskasak eta lokatzak igoera zaildu dute eta amaiera amaiezina egin zait, baina ondo".

MAITE
ZABALETA
OÑATI



"Ondo joan da. Herrikoa izanda, banekien zer zegoen; hala ere, gogorra izan da. Harriak labainkorak zeuden amaieran".

ALOÑAKO IGOEREAREN X. URTERRENAREN JAIA

Ikusteko moduko desafioa!

- ▶ Bikote azkarrena Jon Odriozolak (lasterka) eta Txomin de Vegak (bizikletan) osatu zuten
- ▶ Ezusteak ere izan ziren; hirutan zulatu zuen Uriartek eta 'Bonbak' orkatila bihurritu zuen

LARRAITZ ZEBERIO | OÑATI

Ikuskizun polita eskaini zuten zapatu arratsaldean kirol diziplina ezberdinetako zortzi kirolaririk. Bikoteka antolatuta, Aloñara igotzea eta jaistea zuten helburu. Oñatiko plazan lauk hartu zuten irteera: Iñigo Larizek (korrika), Walter Becerrak (korrika), Jon Odriozolak (korrika) eta Joseba Zubeldiak (bizikletarekin). Igotzea zen euren egitekoa, jaistea antolatzaileek aukeratutako bikotekidearen lana baitzen.

Walter Becerra eta Iñigo Lariz (00:53:40) iritsi ziren lehenengo Aloñara, biak batera. Becerrak Belarren zuen zain parapentearekin Iñigo Gabiña baina, haizearen eraginez, itzulera ere berak egin behar izan zuen. Larizi, berriz, Aitor Perez Rekartek hartu zion lekukoa; Joseba Zubeldiari (01:00:15) enduroko txapeldun Markel Uriarte aretxabaletarrak eman zion erreleboa; eta Jon Odriozolari (01:01:35), jaitsieretako espezialista Txomin de Vega elgetarrak.

Aloñatik azkenengo abiatutako De Vega izan zen Oñatiko helmugan lehena (01:22:08). Bigarren Walter Becerra iritsi zen (01:23:43). Perez Rekartek eta Uriartek zailtasun gehiago izan zituzten. Rekartek (01:31:33) orkatila bihurritu zuen eta Markel Uriartek (01:44:24) hiru aldiz zulatu zuen atzeko gurpila. Kontuak kontu, parte-hartzaileak, ikusleak eta antolatzaileak pozik geratu ziren Aloñako X. Igoera ospatzeko antolatutako desafioarekin.

TXOMIN DE VEGA
JAITSIERA BIZIKLETAN

"Asko gustatu zait"

"Zortea alde izan dut. Hasieran behe-lainoa zegoen eta trankil hartu behar, baina behin zabaldu duenean askatu freno eta behera! Proba desberdina izan da, eta horrelakoak ikusgarriak izaten dira. Asko gustatu zait".

WALTER BECERRA
KORRIKALARIA

"Errepikatuko nuke"

Lan bikoitza egin behar izan dut nik, igo eta jaitsi. Pena izan da eguraldierena eta bikotekideak parte hartzerik ez izatea. Jokatu dudan lehen



desafioa da, eta errepikatzeko arazorik ez, nire aldetik!".

AITOR LOPEZ REKARTE
FUTBOLARI OHIA

"Ikusleekin hartu dut sorpresa"

"Hotzak nengoen goian eta ez zen asko ikusten, baina gustura egin dut hasiera. Gero, orkatila bihurritu dut, eta beste kontu bat izan da. Gertu ikusi dut jendea: tontorrera igo, animatu... polita izan da. Pentsatzen dut horrelakoak gero eta gehiago egingo direla".

MARKEL URIARTE
ENDUROKO KIROLARIA

"Zorterik ez, gaur!"

"Hasi eta berehala zulatu dut atzeko gurpila. Konpondu eta beste bi aldiz zulatu dut. Gaur zorte txarra izan dut, baina ondo pasa dut, esperientzia berria izan da eta kirolari hauek ezagutzea polita izan da".

JON ODRIOZOLA
TXIRRINDULARI OHIA

"Ikuskizun polita gaurkoa"

"Egia esan, ez nuen espero hain azkar igotzea. 44 urte eta 80 kilo ditut, eta aldamenekoak 45 kilo eta adin hobea. Lokatzak eta behe-lainoak zaildu dute igoera, baina Oñatin afizio handia dago eta asko eskertzen dira jasotako animoak. Ikuskizun polita izan da gaurkoa".

JOSEBA ZUBELDIA
TXIRRINDULARI OHIA

"Zailena, igotzea, tokatu zaigu!"

"Errepideko bizikletarekin hasi naiz eta Gomiztegi pasata hartu dut mendikoa. Aldaketak sentsazio arraroak eragin dizkit, aldapa ere gogortu egin da... baina polita izan da!".



Aloñako desafioan parte hartu zuten zortzi kirolariak, proba amaitu ostean, oroigarria eskuan. | IMANOL SORIANO



Ikusleak, Urteagain inguruan, Joseba Zubeldia animatzen. | IMANOL SORIANO



Lopez Rekarte, Belar inguruan, goitik behera. | MIKEL ARREGI



Txomin de Vega, helmugan sartzen. | I.S.



Arantzabal erasoan, Hernaniko defentsez inguratuta. | JAGOBA DOMINGO

OHOREZKO ERREGIONALA

Defentsako hutsegite baten ondorioz, Antzuolak porrot

Norgehiagoka bigarren zatiko 20. minutuan apurtu zen eta orduantxe ikusi ziren gol aukera onenak

JAGOBA DOMINGO | ANTZUOLA

Partidu trabatua izan zen zapatuan Eztala futbol zelaian ikusi zena. Hernani hartu zuen etxean Antzuolak, bi taldeak sailkapenean berdinduta zeuden, eta gol bakarrak erabaki zuen partidua.

Bigarren zatian heldu zen gola. Hernaniren pare bat abisuren ostean, ezker hegaletik ateratako falta baten ostean heldu

zen 0-1ekoa. Falta motzean atera zuten bisitariak eta Hernaniko defentsak, ezker hegaletik barneraketa egin ostean, area txiki-erdira erdiratu zuen. Bertan Antzuolako defentsak egon beharrean, Elizalde, Hernaniko aurrelaria, zegoen, eta gola egiteko baloia bultzatu besterik ez zuen egin behar izan. Elizalde, gainera, 66. minutuan irten zen zelaira eta

irten eta sei minutura egin zuen gola. Etxekoek gaizki defendaturiko jokaldian etorri zen gola, eta minutu batzuk lehenago ere antzerako jokaldi bat egin zuten Hernanikoek, horrenbesteko zortetik irten gabe, ordea.

Bi taldeendako gol aukerak

Lehenengo zatian joko nahasia izan zen nagusi. Baloi asko goitik

eta bi taldeen defentsak atzean serio zirela hasi zuten norgehiagoka. Antzuolakoek Arantzabal bilatzen zuten baloi luzeekin, eta kontraeraso batean, atsedena heldu zegoela, gol aukera sendoak izan zituzten Arantzabalek eta Aranek, biek.

Aranarena izan zen antzuolarren gol aukera garbiena; 40. minutuan bi defentsa atzean utzi zituen eta, atezainaren aurrean zegoela, jaurtiketa ahula egin zuen. Hernanikoek ere aukera pare bat izan zituzten lehenengo zatian; etxeko defentsaren akatsak, baina, ez zituzten aprobetxatu.

Aldagelatik bueltan Hernanikoak indartsu zelairatu ziren, hala ere, bi taldeek gol aukerak izan zituzten 20. minututik aurrera. Momentu horretan partidua apurtu zen, eta kanpokoek gola egiteko aprobetxatu zuten.

EMAITZA

ANTZUOLA

0-1

HERNANI

FITXA TEKNIKOA

Antzuola: Iturbe, Asensio, Zabala, Agirre, Arana, Zabalo, Ibabe, Arantzabal, Aranbarri, Linazisoro (Larrea, 57.min.), Zubikarai.

Hernani: Orokieta, Aduriz, Alvarez, Lujanbio, Gomez, Goia (Loran, 89. min.), Iñurritegi (Bereziartua, 71.min.), Martin, Elberdin (Elizalde, 66.min.), Olabide (Barrena, 65.min.), Urio (Olasagasti, 71.min.).

Beste: Hernaniko delegatua kanporatu zuen David Gomez epaileak.

FUTBOLA

Golik ez Aloña Mendiren eta Aurrera taldearen artekoan

"Kosta egin zitzaigun partiduan sartzea, baina bigarren zatian, eta batez ere azken 20-15 minutuetan, aukera politak sortu genituen", esan du Andoni Azkargortak, Aloñak eguenean Ondarroan jokatu-tako partiduen inguruan. Bi minuturen faltan gol aukera garbia izan zuten oñatiarrek, baina berdinketarekin amaitu zen norgehiagoka.

FUTBOLA

Aretxabaletako taldeak 0-1 galdu zuen zapatuan Lesakan

Beti Gazte taldeari primeran etorri zaizkio azken jardunaldiko hiru puntuak. 20. minutuan Aretxabaletakoei egindako golari esker lortu zituzten, eta UDAk partidua ona egin arren ez zuen nafarren defentsa estua zulaterik izan. Etxekoak atzean sartu ziren, eta aukerak sortu arren Aretxabaletakoei ez zuten gola egiterik lortu.

FUTBOLA

Bergarako taldeak 0-2 irabazi zuen herenegun Azpeitian

Aspaldiko partez irabazi egin du Bergarako taldeak. Enekok egin zizkion bi golak Lagun Onak taldeari; lehenengo 10. minutuan eta bigarrena 30. ean. Aitor Arrateren esanetan, garrantzitsua zen garaipena eskuratzea. Bergara, orain, 13. postuan da eta azken aurreko postuan dagoen Getariako Keta taldearen aurka jokatu du etxean.

FUTBOLA

Mondrak 3-1 galdu du Soralezko taldearen aurkako partidua

Taularen goiko aldeko taldea da Soraluzeko eta Mondrako mutilek ezin izan zuten mendean hartu. Soraluzen jokatu-tako partidua gehiegi korapilatatu zen arrasatearrendako. Erregional preferente mailako zazpigarren postuan dira orain Arrasatekoak. Hurrengo astean azken aurreko doan Eibartarrak taldearen bisita jasoko dute.

ARETO FUTBOLA

Eskoriatzako jubenilak Euskadiko txapelkunorde

Atzo, domeka, gazte mailako Euskadiko txapelketa jokatu zuten Sukiak (Araba), Eskoriatzak (Gipuzkoa) eta Berriotoxak (Bizkaia). Narciso Pavon gustura agertu da Eskoriatzako gazteek egin duten txapelketarekin. Bigarren egin dute eta Sukiak lortu du Espainiako txapelketarako txartela. Talde nagusiak Saltxaileak hartuko du asteburuan.



KENPO

RAFA CARRIE

Emaitza onak Espainiako Kopan

Apirilaren 26an jokatu ziren Linaresen (Andaluzia) kenpoko Espainiako txapelketa eta kopa. Euskal selekzioarekin Atama Eskoriatza-Oñati eta Ziorla klubetako zortzi ordezkari joan ziren. Nabarmendu ziren bereziki Arianne Piñero, Joseba Izurtegi, David Sinisterra eta Miguel Angel Palacin. Lan ona egin zuten baita ere Nagore Ipiñak, Josu Letonak, Beñat Arratibelek eta Karla Zabalak.

ESKUBALOIA

Izarraitz Aloña Mendikoek 30-28 galdu dute Ordizian

Kanporaketak jokatzeko aukera izateko nahitaez irabazi behar dute igoera faseko azken partidua

L.Z. | OÑATI

Ordizia arerio gogorra zen; igoera fasean hiru partidutik hiru irabazita, oñatiarrek hartu zituen atzo etxean, eta laugarrenean ere garaipena lortu zuen. Rafa Zuluetaren mutilek 30-28 galdu zuten.

Oñatiarrek garaipena behar zuten, eta hiru puntura gelditzea gogorra izan zen. Hala eta guztiz

ere, egindako lana eta erakutsitako jarrera aitortu behar zaie.

Urteak dira Oñatiko taldeak azkenengoz igoera fasea jokatu duenetik, eta ilusio handiarekin ekin diote txapelketari. Kanporaketak jokatzeko aukera izateko, ordea, ezinbestean irabazi behar dute hurrengo norgehiagoka, igoera faseko azkena, Gaztelueta taldearen aurka.

ESKUBALOIA

Ford Mugarri Arrasatek 29-28 galdu du Gipuzkoako Kopa txapelketako lehenengo norgehiagoka

Ereintzaren aurkako norgehiagoka puntu batengatik galdu zuen Ford Mugarri Arrasatek zapatuan. Jokalari berriak probatzea zen asmoa eta horrela egin zuen norgehiagoka horretan Pablo Gartziaren taldeak. Batera askotan jokatu ez izanak sinkronizazio falta apur bat ekarri zuen, eta hortik emaitza. Kopako hurrengo arerioa Tolosa izango da. Arrasatearrek etxean jokatu dute maiatzaren 18an.

Beñat Rezusta | Pilotaria

"Beste bikoteari aldeia ateratzea lortu genuenean asko gozatu nuen"

- ▶ Erakustaldia eman zuen pilotari gazteak Bigarren Mailako Binakako finalean
- ▶ Behin txapela irabazita, buruz buruko txapelketa du orain buruan bergararrak

JULEN APERRIBAI | BERGARA

Maila profesionalean urtebete ere ez du egin Beñat Rezustak (Bergara, 1993), baina dagoeneko lortu du lehenengo txapela. Erik Jaka aurrelari lizartzarrarekin batera Bigarren Mailako Binakako Txapelketa irabazi du. Zale ugari inguratuz, Gorka Esteban eta Miguel Merino lau tantotan utzi zituzten Iruñeko Labrit pilotalekuan. Rezustarekin hitz egiteko aukera izan dugu, berak hain ondo ezagutzen duen Bergarako Udal pilotalekuan.

Ondo ospatu al duzu txapela?

Oso ondo. Partidua eta gero lagunekin afaldu nuen Bergaran bertan eta, aspaldi parrandarik egin gabe nengoenetz eta Zumaian festak zirela aprobetxatuz, bertan ospatu nuen.

Herrian harrera ofizialik egin al dizute?

Ez dut harrera ofizialik jaso, baina herritar ugari babesa izan dut. Hirurogei pertsonaz betetako autobus bat joan zen bertara eta sekulako giroa jarri zuten, eskertzekoa benetan. Inoiz ez dut horrelako egoera batean jokatu eta, egia esan, partidua hasi aurretik bergararrak ikusi nituenean aldageletara joan behar izan nuen urduriegi ez jartzeko. Beste bikotea animatzera ere jende asko joan zen. Kostatuko zait berriz ere horrelako giroan jokatzeko.

Ez zen oso partidu lehiatua izan. Gozatzeko aukerarik izan al zenuen?

Guretzako neurketa ederra izan zen. Jendeak beti nahi izaten du partidu parekatuak ikusi eta emozio gehiago egotea, baina guk gure aldetik gehiago ezin dugu eskatu. Hasieratik eroso sentitu ginen eta, beste bikoteari aldeia ateratzea lortu genuenean, asko gozatu nuen. Uste baino errazago eta hobeto irabazi genuen.

Finalean pilota biziak erabili zenuen. Hobeto moldatzen al zara material mota horrekin?

Profesionalean debuta egin nuen kosta egiten zitzaidan pilota biziak erabili zirela, baina orain ohituago nago. Gai horri buelta asko eman zaizkio eta pilotak biziak zirela ere entzun dut. Biziak izan baziren ere, ez dut uste esaten den bezain azkarrak zirenik.

Ez da ohikoena ezkerria eta atzelaria izatea. Ezaugarri bikoitz horren abantailak zeintzuk dira?

Garai batean atzelari ezkerria izatea ezinezkoa zela ere esaten



Beñat Rezusta, Bergarako Udal pilotalekuan. | JULEN APERRIBAI

zidaten, historian oso gutxi egon baitira. Aurrelari bezala probatutakoa naiz, baina ni beti sentitu izan naiz erosoago atzean. Eskuinera pilota botatzen didatenean gehiago kostatzen zait, baina marra ere hurbil egoten denez, aurkariarentzat ere ez da erraza izaten. Ezker paretan ondo ibiltzen naiz, abantaila dut besteekiko-eta. Pentsatzen dut ikusi dela ezkerria izanda ere atzelaria izan daitekeela, bigarren mailan behintzat, eta oso gustura nago.

"Kostako zait berriz ere Labriteko finalean bezalako giroan jokatzeko"

"Pentsatzen dut ikusi dela ezkerria izanda ere atzelaria izan daitekeela"

Erik Jaka izan duzu aurrelari. Zer moduzko bikotekidea izan da?

Ni berekin oso gustura ibili naiz. Profesionalean debuta egin aurretik ere elkarrekin asko jokatuakoa ginen. Entrenamenduak eta gimnasioko lanak ere batera egiten ditugu. Azken finean ordu asko dira batera eta hori igarri egiten da. Kantxatik kanpo giro ona dugu eta barruan ere islatzen da hori, ondo ulertzen baitugu elkar. Hori garrantzitsua da bikote batean. Binakakoa berarekin jokatu nuela esan zidanean

ilusio handia egin zidan eta are gehiago berekin txapela irabazi izanak.

Pilota profesionalerako saltoa egin eta denbora gutxira irabazi duzu txapel hau. Lehenengo maila hurbilago ikusten al duzu orain?

Orain urtebete baino hurbilago ikusten dut aukera hori. Hala ere, pilotan ez da erraza lehenengo mailan debutatzera iristea. Partidu on bat egin eta gero badi-rudi nahikoa maila badaukazula, baina gero partidu txar bat eginez gero alderantzizkoa gertatzen da. Nik momentu honetan buruz burukoan daukat burua eta ez dut beste ezertan pentsatu nahi. Neurketak jokatu eta ahalik eta maila onena eman nahi dut.

Eta txapelketa horretara begira nola ikusten duzu zure burua?

Aspaldian buruz buru ibiltzeko nago. Dagoeneko urtebete izango da modalitate horretan azkeneko partidua jokatu nuenetik. Aurretik ibilitakoa naiz hala ere. Euskal Herriko txapelketan eta buruz burukoan parte hartutakoa naiz eta nahikoa ondo moldatzen nintzen. Atzelaria izanda errematean hasieran kosta egingo zaidala badakit, baina orain arteko entrenamenduetan ondo xamar sentitu naiz eta gogoz nago.

Bestela, uda alderako zein asmo dituzu?

Orain arte partidu asko jokatzeko ibili gara eta eskuek ez didate arazorik eman. Gogor entrenatu dut, baina udan partidu asko egoten dira herrietako festetan eta guri jartzen dizkiguten guztietan jokatzeko moduan izaten baldin banaiz pozik egongo naiz.

Badirudi Debagoieneko pilotak baduela harrobia. Zein uste duzu dela horren arrazoia?

Bai Bergarako eta baita bailara gainontzeko herrietako pilota eskoletan lana ondo egiten ari diren seinale da hori. Debagoieneko txapelketa ere antolatzen da eta klubetatik pilotari gazte asko ari dira ateratzen. Jendea lanerako prest dago eta gazteak ilusioarekin daudenez emaitzak onak ari dira izaten.

Inguruko pilotari batek txapela irabazi izana gazteentzat ere motibagarria izango da...

Pilota munduan dabilzan gazteek ikusten badute beraiek bezala pilotan hasitako norbait txapel bat irabaztera iritsi dela, pilotan jokatzeko jarraitzeko ilusio eta motibazio gehiago izan dezaketela pentsatzen dut bai.

"Haurrak iraindu egiten nau; nola jokatu behar dut zuzentzeko?"

Jarrera aldatzeko garrantzitsua da haurrak irainaren esanahia ulertzea

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Haur batek bere gurasoak iraintzeko ohitura hartzen badu, beste edonor iraintzeko gauza izango da. Baina nola zuzendu jarrera hori? *Entrepadres* atari digitalean ematen duten lehenengo gomendioa da hasiera batean, behintzat, ez larritzea eta umearekin ez haserretzeko. "Ume txikiak inguruko helduengandik ikasten dituzte horrelako hitzak, eta erabiltzen dituzte esanahia oso ondo ulertu barik". Beraz, lehenengo pausoa litzateke haurrekin hitz egitea. "Galdetu zergatik erabili duen hitz hori, esan nola sentitu zaren entzundakoan, eta azaldu berak erabilitako hitzak zer esanahi

duen. Berebiziko garrantzia du haurrak irainaren esanahia ulertzea", diote.

Iraintzea, hitzez jotzea

Haurrek euren haserrea bideratzen ikasi behar dute eta helduak gara bide horretan lagundu behar diegunak. "Ez iraintzeko ulertu behar dute hitz horiek min egiten dutela". Azaldu diezaiekegu, esaterako, iraintzea hitzez jotzea dela.

Adituen esanetan, emandako azalpenak ulertuz gero eta iraina gertatzen den guztietan gurasoen edo hezitzaileen oharra jasoz gero, laster zuzenduko da jarrera okerra. Garrantzitsua da ez haserretzea eta umea bera ez iraintzea.

Eredu izan

Esan gabe doa alferrikakoa dela umea zuzentzea guk geuk okerreko jarrerak baditugu. Umeek ikusitakoa eta entzundakoa errepikatzen dute, eta guk geuk hitz iraingarriak erabiltzen baditugu, umeak berdina egingo du. Gehienetan hau izaten da haurraren jarrera desegokien iturria.

Irainak probokatzeko erabiltzen baditu, ez aztoratu. Helburua lortzen badu, errepikatu egingo du zuzendu nahi dugun jarrera hori. "Erakutsi umeari hitz egokiek gehiago lortzen dela, eta irainekiko arau eta muga zehatzak ezarri etxean", gomendatzen dute adituek.



Mutikoa haserre. | EGUI

Umeen osasun psikologikoa zaintzeko gakoak dira denbora eskaintzea, maitasuna eta atsedena

Eusko Jaurlaritzak 2013an egindako Osasun Inkestak azalera du 15-24 urte bitarteko gazteen %13k antsietate eta depresio sintomak dituztela

L.Z. | ARRASATE

Egokitzapen arazoak, estres sintomak, jarrera arazoak... askotan ez ditugu osasun psikologikorekin lotzen, baina gehienetan azalpen bat izaten dute. Sintoma argienak dira tripako minak, lotarako arazoak, amesgaiztoak, antsietate krisiak azterketa sasoiak... Eusko Jaurlaritzak 2013an egindako Osasun Inkestak azalera du 15-24 urte bitarteko gazteen %13k antsietate eta depresio sintomak dituztela.

Prebentzio neurriak

Diaz Robredok dioenez, garaiz detektatuz gero, arazo horiek badute konponbidea, gehienek. Lau jarraibide ematen ditu: finkatu denbora bat umearen atsedenerako, aisialdirako denbora antolatuz neurritz kanpoko neke iturri izan ez dadin, neurtu eskolaz kanpoko arduren zama, eta eskaini zuk ere denbora etxeko elkarbizitzari.

Etxeko giroa

"Familiari dagoen giroa eragin zuzena du familia hori osatzen duten kideen osasun psikologikoan", dio adituak. "Egunerokoa gurasoak akaso ez gara horren garrantziaz ohartzen, baina txikiak izanagatik seme-alabek argi sumatzen dute gurasoen arteko harremana zelakoa den". Adituaren esanetan, segurtasun giroa sortu behar dugu gurasoak, eta lasaitasun handiagoarekin egin



Ama umearekin jolasean. | BISBIGLIO

behar diegu aurre seme-alaberen eguneroko arazoei.

Diaz Robredok argitzen du umeen osasun psikologikoa neurtzeko sintoma konkretu batzuetan jarri behar dugula arreta: ondo edo gaizki lo egiten duen, apetitu duen, jolasteko eta ondo pasatzeko gogo duen. "Batzuetan profesionalen laguntza beharrezkoa izango da, baina kontuz etiketak ipintzeko gaur egun dagoen gehiegizko joerarekin", ohartarazten du.

Autoestimua indartu

Osasun psikologikorako garrantzitsua da, baita ere, umearen autoestimua indartzea. Horretarako, ezinbestekoa da umeari denbora eskaintzea; guretzat

garrantzitsuak direla sentiaraztea. "Umeak sentitu behar du berarekin zaudenean zure arreta guztia eskaintzen diozula, eta ez arreta konpartituta", diote adituek.

Umearen autoestimua indartuko dugu bere lorpen txikiei garrantzia ematen diegunean, bere ahaleginen lekuko garenean, bere aurrerapausoak baloratzen ditugunean, oparitutako marrazki horri gure arreta eskaintzen diegunean... "Saririk onena zure onespena da", dio adituak.

Denbora eskaintzea ezinbestekoa da; entzutea eta berarekin jolastea. Egunean tartetxo batez bere gustuko ekintzaren bat elkarrekin egitea, jolasa gidatzeko ahaleginik egin gabe.

2 eta 4 urte arteko umeek 400 agindu jasotzen dituzte egunean, batez beste

Agindu gehiegi direla diote adituek, eta taktika askoz ere eraginkorragoak badaudela

L.Z. | ARRASATE

"Altxa!", "Jantzi!", "Ez jo!", "Jan!"... Egunean 400 agindu asko dira. Ezinezkoa da umeak guztiak betetzea eta oso dinamika nekagarria da hezitzailearendako. Egia da gurasoak gurela umeen segurtasuna eta ongizatea bermatu behar dugunak, baina aginduez gain bestelako formulak ere badaudela ohartarazten gaituzte *Bebesymas.com* webgunean. "Ezinezkoa da haurrak agindu horiek guztiak betetzea 2 eta 4 urte bitarteko etapen senak, modu oso indartsuan, mundua esploratzeko eskatzen dionean", diote. "Arauk ezartzea garrantzitsua da, baina gutxi eta argiak izan behar dute".

Irudimen handiagoa

Bestelako taktikak erabiltzeko gomendioa egiten dute adituek. "Ikusten dugunean umea asalatuta dagoela aginduak ematea baino eraginkorragoa da askotan proposamenak egitea: "Margotuko dugu?", "Jolastuko duzu jostailu horrekin?"... Umeak askotan aspertuta daude eta ez dakite egoera horri ze konponbide eman, adierazten dute. "Askotan nahikoa da zer egin dezakeen proposatzea gogaitzen gaituen jarrera horretatik umearen arreta desbideratzeko".

Irudimena gehiago erabiltzeko eskatzen digute adituek umeari behin eta berriro ezezkoetan oinarritutako aginduak ematea baino.



Mutikoa jatorduan haserre. | MARIO INOPORTUNO

KULTURA

Mendiaren gainekeo film ikusgarrienak Amaian

- ▶ Mendi Tour jaialdia maiatzaren 13an iritsiko da Arrasatera
- ▶ Hiru film eskainiko dira eta sarrera bost eurokoa izango da

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Abentura eta mendiarekin lotutako muturreko kirola iritsi da aurten ere Debagoienara, Arrasateko Mendi Tour jaialdiaren eskutik. Hala, Arrasatera gerturatzeko diren ikusleek, mendiaz, alpinismoaz, piraguismoaz edota muturreko eskiaz gozatzeko aukera aparta izango dute, maiatzaren 13an, martitzena, Amaian. "Iaz ere Amaia antzokia goraino betez. Eskaintzen diren filmek harrera ezin hobea izaten dute eta aurten ere jendeak gustura ikusiko dituelakoan gaude", azaldu digu Mikel Nuño Besaide Mendi taldeko kidea.

Mendia ardatz duten film sarituak ikusteko aukera izango da. "Gure helburua da mendia eta mendian egiten diren kirola herritarrei gerturatzea. Mendi Tourreko filmei esker, mendia, eskalada edota eskia gerturatzea ere bada gure asmoa, besteak beste", gaineratu du.

Hala, hitzekin edo musikarekin jantzita, irudi ikusgarriekin lagunduta kontatzen diren istorioekin gozatzeko aukera aparta izango dute ikusleek. Hausnarketarako, ondo pasatzeko eta hunkitzeko bidea ere badela azpimarratu nahi izan dute.

Euskarazko azpitteluekin

Cascada film laburrak, Bilbao Mendi Film Festibaleko dokumental onenaren saria jaso duen lanak, irekiko du Arrasateko Mendi Tour jaialdia; 19:30ean emango zaio hasiera. *Cascada* filmak, Mexikoko oihanaren barruan, piraguista talde batek

ur-jauzi "perfektuaren" bila egindako bidaia islatzen du. Mexikora bidaiatzen duten abenturazale batzuen esperientzia pertsonala narratzen da bertan. Kayak-a praktikatzeko igarotzen duten denbora tartearen berri ematen du, ur-jauzietan behera egindako jaitsierak erakutsiz. Zortzi minutuko iraupena du.

Ondoren, muturreko eskiaren inguruko film ikusgarriaren txanda izango da: *Valhalla*. Patagonian eskiatzen ibilitako kirolzale amorratu baten istorioa kontatzen du. Paisaia ederrak ikusteko aukera eskaintzen du. 60 minutuko iraupena du. Ondoren, atsendaldia egingo dute.

Eta hirugarren lana *Cerro Torre* filma izango da; Bilbao Mendi Film Festibaleko film onenaren saria jaso zuen, 2013an. Alpinismoa du ardatz. Zailtasun handiko gailurra da Correo Torre. 3.133 metro ditu eta Patagoniako hegoaldean dago. Bi lagunek igoeran edukitako gorabeherak kontatzen ditu filmak. 100 minutuko iraupena dauka jaialdiko azken lan horrek.

ESANAK

"Hausnartu, ondo pasatu eta hunkitzeko balioko du"

MIKEL NUÑO | BESAIDAKO KIDEA



'Cascada', piraguista talde baten istorioa kontatzen duen lanak irekiko du jaialdia. | 'KLAKETA.NET'



'Valhalla', muturreko eskiaz eta paisaia ikusgarriekin gozatzeko filma. | SWEETGRAS PRODUCTIONS



'Cerro Torre': Patagoniako gailurrik gogorrena igotzeko bi lagunek gorabeherak jasotzen dituen istorioa. | 'KLAKETA.NET'



Circle of Trusteko kideak breakdance erakustaldia egiten. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Ama, dantzari izan nahi dut

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Divenire ikuskizuna amaitu bezain laster, Amaia Antzokiko irteeran, neska-mutikoak oholtzan ikusitako pausoak imitatzen saiatu ziren zapatu arratsaldean. Ikuskizunaren laburpena izan zitekeen momentu hori, izan ere, arte eszenikoak, musika eta ikus-entzuzkoak ederki uztartzeaz gain, mezu bat helarazi zioten Arrasateko antzokian batu zen publikoari: norbera da nere buruaren etsairik handiena eta izan nahi genukeen hori izan arteko bidea zaila eta luzea izan arren, ez dela etsi behar azpimarratu zuten, dantza eta musikarekin.

Alan Westin irakaslearen hitzekin hasi eta amaitu zuten ikuskizuna. Westinek gizakiaren arazoan errudun bakarra gizakia bera dela zioen, zoriontsu izateko gakoa norberak duela, alegia. Egunerokoan egiten duguna bihotzez egiteko apologia izan zen.

Nolabait, breakdance taldeko kideek urteetan sufritu duten eboluzioa islatzen saiatzen dira *Divenire*-k irauten duen ordubete. Izan ere, *Divenire*-k hori esan nahi du: zerbaitetan bilakatzea edo zerbait izatera heltzea. Urte erdiz ikuskizuna prestatzen egon ostean, lana oholtzan erakusteko unea heldu zitzaion.

Nor bere buruaren aurka

Amaia antzokiko agertokia ilunetan zegoela igo ziren arratsaldeko protagonistak. Bihotzaren

FITXA

DANTZA

'DIVENIRE' (CIRCLE OF TRUST ETA LOGELA MULTIMEDIA)

Estiloa: Dantza garaikidea eta breakdance.

Non: Amaia Antzokia.

Eguna: Zapatua, maiatzak 3.

Iraupena: Ordubete.

taupadak, bozgorailuetatik; eta pantaila erraldoian, zainetako odol jarioa. Segidan, dantzarien gorputzek sorturiko bihotza bizia hartuz joan zen eta, hurrengo minutuetan, dantza urbanoak eta garaikideak eskua eman zioten elkarri. Ez da ohikoena breakdance estiloa oinarri duen talde batek dantza garaikidea besarkatzea, baina zapatuan, estiloak batu daitezkeela frogatu zuten.

Divenire ikuskizunaren lehenengo zatian, gizakiaren barne borroka islatu zuten, dantza eta musikarekin. Koreografiak ikuslearen arreta lehenengo momentutik bereganatu zuten eta, musikarekin eta isiltasunarekin jokatuz, giro intimoa sortzea lortu zuten; momentu batzuetan, ikusleak beste mundu batera garraiatzea ere lortuz.

Esan bezala, dantza urbanoaren agresibitatea alde batera utzi

zuten eta, Jordi Vilaseca dantzari garaikidearen zuzendaritzapean egindako lanari esker, dantza garaikidearen leuntasunari heldu zioten. Hala ere, breakdance zertzeladak sumatzen ziren. David Ventosak uztaiarekin egin zuen saioa ere aipatzekoa izan zen, ikusleak aho bete hortz utzi zituen eta bere trebeziarekin.

Bigarren round-a

Violadores del Verso taldeko Kase O-ren kantuek eman zioten hasiera ikuskizunaren bigarren zatiri. Musika lasaiari, hip-hopari, funkari edo tartean elektronikari utzi zion lekua, eta dantza garaikideak transmititzen duen lasaitasuna urduritasun bilakatu zen. Amaia antzokiko ikusleak txaloka jarri zituzten dantzariak, eta talde zein banakako koreografiarekin txundituta etxeratu ziren emanaldia amaitutakoan.

Elektronikak eta folkak girotu dute kartzela

El_Txef_A eta Amorante, Bergarako gaztetxean

J.D. | BERGARA

Egubakoitzak Kartzelan egitasmoaren bosgarren edizioa hasi zen egubakoitzean, eta ez edonola: aurtengo Bergarako gaztetxean gozatu ahal izango diren berrikuntzen artean musika klasiko eta elektronikoa baldin badaude, El_Txef_A izan da azken horren erakusle. Aitor Etxebarriaren alter-egoa da El_Txef_A eta, gaztea izan arren, jada nazioarteko errekonozimendua jaso du. Egubakoitzean, bere musikaren alde lasaie eta goxoena erakutsi zuen.

Aurretik, baina, Amorantek, Iban Urizarren bakarlarri proiektuak, estreinatu zituen aurtengo Egubakoitzak Kartzelan egitas-

moko zuzenekoak. Folk musika oinarri hartuta, ikuspegi pertsonala eman zuen Rafa Ruedarekin edo Andra kan taldearekin ibilitako musikariak. Eguraldi txarra zela-eta, kontzertuak barruan egin bazituzten ere, indartsu hasi zen Egubakoitzak Kartzelan bosgarrenez, eta hala jarraitzeko asmoa du datozen asteotan, Peti, Lou Topet edo Bergarako Orkestrako soka taldearekin.

Zuzenean Txapa irratiari

Txapa irratiak maiatzean zehar Egubakoitzak Kartzelan egitasmoaren barruan egingo diren kontzertuak irrati bidez jarraitzeko aukera eskainiko du.



El_Txef_A, aurtengo Egubakoitzak Kartzelan jaialdiaren estreinakoa. | IMANOL SORIANO

Kalitateak eta sentimenduak bat egin zuten Iluntz tabernan

Edu 'Manazas' eta Marcos Collek sekulako blues errezitaldia eskaini zuten

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Iluntz tabernan sartu aurretik, kaletik Robert Johnson edo Liltte Walter bluesman mitikoen diskoa jarrita zegoela iruditu zitekeen arren, Edu *Manazas* eta Marcos Coll ziren oholtza gainetik, ongi-etorria ematen. Biak ala biak maisu, nor bere instrumentuarekin; gitarra hartuta eta ahots urratuarekin lehenak, eta armonika eskuetan zuela bigarrenak,

Chicago, Illinois zein Orleansera eramán zituzten tabernako ikus-entzuleak.

Blues errezitaldi bikaina eskaini zuten bikote bezala musikari madrildarrek eta publikoa irribarretsu utzi zuten ordu eta erdiko emanaldia amaitzerakoan; batzuk, gehiagorako gogoz, tartean. Bi musikariak kalitatearen segurtasuna dira: hainbat urte daramatzate errepidean, eta

horrek musika egiteko orduan kalitatea bai, baina kontzertu bat aurrera eramateko segurtasuna ere eman die. Hasieratik Iluntzko publikoarekin jolasean aritu ziren, eta benetako ikuskizuna oparitu zieten.

Pako tabernan atzo

Zapatuan bakarrik ez, atzo ere Oñatiko Pako tabernako ikusleak aho zabalik utzi zituzten.



Edu 'Manazas' eta Marcos Coll, Iluntz tabernan. | IMANOL SORIANO



Trikikonboko ikasleak, gaztelekuan. | JOSETXO ARANTZABAL

Ikasleen trikitixa eta rock doinuek Oñatiko gaztelekua girotu zuten

Atzo arratsaldean Jose de Azpiazu eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten

J.D. | OÑATI

Metallicaren *Nothing else matters*, Alannah Milesen *Black Velvet*, Mixel Ducauren *Kolore kolore* edo Gozategiren kantu ezagunek alaitu zuten Oñatiko gaztelekua atzo arratsaldean. Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako Trikikonbo eta Konbo elektrikoko ikasleek kontzertua eskaini zuten.

Guztira hamasei ikasle igo ziren gaztelekuko oholtzara: zortzi Konbo elektrikoa, eta sei Trikikonboan.

Ikusle dezente elkartu ziren gaztelekuan ikasleei animoak eman eta trikitixa zein rock doinuez gozatzeko asmoz, eta ordubetik ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten ikasleek.

Ikasturte amaierara begira

Dagoeneko, ikasturtea bere azken txanpara heltzen ari da, eta atzokoa amaituta, ekainaren 20an Foruen plazan egingo duten kontzertua prestatzeari ekingo diote datozen asteotan.

Santiagoko katedralean kantatuz amaitu dute Donejakue bidea

Goikobalukoek 2009an Orreagan hasitako zikloari amaiera eman diote

J.D. | ARRASATE

Asteburu ahaztezina izan da Goikobaluko kideek Galizia aldean bizi izan dutena. Santiagoko katedralean eman zuten kontzertua aitzakiatzat hartuta, hiriburuko

zein Galiziako hainbat txoko eza-gutu dituztela aitortu dute.

Hala ere, Santiagoko katedralean abestu zutenekoa oroitzapenen kutxan gordeko dute; izan ere, emanaldi horrekin Goikoba-

luko abesbatzakoek euren Donejakue bide propioa amaitutzat eman zuten. 2009an hasi zuten bidea Orreagan, eta egubakoitzean botafumeiroaren lekuko izanda amaitu zuten bidea.

Botafumeiroa bertatik bertara

Eguenean heldu ziren abesbatzako kide eta lagunak Galiziara eta lehenengo geldialdia Monte do Gozon egin zuten. Bertatik Donejakue bidearen azken bost kilometroak oinez egin zituzten Santiagoko katedraleraino, eta bertan *Goizean argi hastian* eta *Euskal Herriko kantuak* abestera animatu ziren. Ostean, denek batera azken entsegua egiteko aprobeztatu zuten.

Egubakoitza izan zen egun handia; 11:00etan katedralera heldu ziren, eta eguerdiko mezan

kantuan lagundu zuen Arrasateko abesbatzak. Kontzertua 13:00etan hasi zen, baina bidaiako momentu gogoangarrienetarikoa meza eta kontzertuaren artean bizitako izan zen. Botafumeiroa bertatik bertara ikusi zuten Goikobaluko kideek eta, nolabait, kontzerturako indarra eman zien. Santiagoko katedrala jendez gainzka zegoela eskaini zuten emanaldia, eta hiru ordu laurdenez polifonia, Aita Madinaren klasiakoak zein folkloreko kantuak kantatu zituzten agertoki ezin hobean.



Santiagoko katedralean eskainitako kontzertua. | GOIKOBALU



Goikobaluko kide eta lagunak, Monte do Gozon. | GOIKOBALU

NAZIOARTEKO X. MAGIA MOSTRA

Magia
Mostra
osoa
20 euro!

2014, MAIATZAK 9 - 10 eta 11

ELGETAKO ESPALLOIA KAFE ANTZOKIAN

9 - BARIKUA

22:30 MAGIA SAIOA

Woody Aragón Madril Prezioa: 15 € - bazkideendako 10 €



10 - ZAPATUA

10:30 MAGIA TAILERRAK UMEENDAKO - Doan

22:30 MAGIA GALA Prezioa: 18 €

Bazkideendako: 15 €

Pablo Cánovas
Kordoba



Rubén Vilagrand
Bartzelona



Daniel Ka
Kantabria



Vittorio Marino
Italia



Jordan
Gómez
Frantzia



Bertox
Frantzia



11 - DOMEKA

10:30 MAGIA TAILERRAK UMEENDAKO

13:00 MAGIA KALEAN - Doan

. Adrián Conde. 'La Petite Caravane'.



Sarrerak salgai. Bi ikuskizunetarako bonoa: 20 €. Bazkideendako: 16 € - www.espalloia.com - Tel.: 943 78 90 85

ANTOLATZAILEAK

ELGETAKO
espaloia
KAFE ANTZOKIA

MagialdiA
VITORIA-GASTEIZ

BABESLEAK



Elgetako
Udala

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



KULTURA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

10
URTE
espaloia

GURE MUSIKA TALDEAK

GOSE

Gose eta familiako partaide batzuk, *Bonberenea Sessions* zuzeneko amaitu ostean. | TAYAKO

"Disko arrosa atera genuenetik izan dugu horrelako kontzertu bat egiteko desioa"

- ▶ Azaroan Tolosako Bonberenean grabatutako zuzeneko kaleratu du Gosek
- ▶ Gose & the family; bederatzi kantutan kolaborazioak izan zituzten

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Hirukote arrasatearrak Gose & the Family *Bonberenea sessions* zuzeneko DVDa kaleratu berri du. Azaroaren 23an grabaturiko hogeiki kantu eta bederatzi kolaborazio; Doctor Deseoko Francisekin berreskuratzen dugu; badira urte batzuk ez dugula *Bondage* zuzeneko jo, eta hasieratik kantu hori Francisekin egiteko gogoia genuen. Zigor DZk egindako ekarpena ere aipatzekoa da; *Renato* kantuan *scratch*-a egin zuen platerekin, eta emaitza sekulakoa izan zen. *Renato* zuzeneko guztietan jotzen dugu, baina DZren ekarpenak berezia egin zuen, platerak beste instrumentu bat izan daitezkeen.

Zer aurkituko dugu *Bonberenea sessions* zuzenekoan?

Bonbereneakoek hasieratik planteatu zigutena; zuzeneko berezi bat leku berezi batean. Disko guztietako kantuak daude zuzenekoan. Esan bezala, kontzertu berezi bat egin nahi genuen, errepertorio berezi batekin. Zuzeneko inoiz jo dugun kanturen bat dago, aspaldian errepertoriotik kanpo zeuden kantuak berreskuratutako ditugu... bitxikeriak daudela esan genezake.

Zein bitxikeria aurkituko ditugu?

Zuzeneko lehenengoz egindako kanturen bat dago. *Bondage* kantua Doctor Deseoko Francisekin berreskuratzen dugu; badira urte batzuk ez dugula *Bondage* zuzeneko jo, eta hasieratik kantu hori Francisekin egiteko gogoia genuen. Zigor DZk egindako ekarpena ere aipatzekoa da; *Renato* kantuan *scratch*-a egin zuen platerekin, eta emaitza sekulakoa izan zen. *Renato* zuzeneko guztietan jotzen dugu, baina DZren ekarpenak berezia egin zuen, platerak beste instrumentu bat izan daitezkeen.

"Egun luzea eta gogorra izan zen; baina ahaztezina ere"

la argi utzi zuen; hori bai, atzean indio egokia baldin badago. Bestalde, Andoni eta Pettirekin *Surik bai?* kantua egin genuen, bertsio akustikoago eta blueseroago bat irten zen. Antzart dantza taldeak ere sekulako lana egin zuen. Hainbat gauza daude, ez da Gosen ohiko kontzertua, eta argi daukagu inoiz ez dela horrelakorik errepikatuko!

Gose & the Family; kolaborazioek berebiziko garrantzia dute, ezta?

Bai, gure lagunekin eta lagundu digutenekin kontzertu berezi bat egiteko gogoia aspalditik genuen. Disko arrosa kaleratu genuenean, horrelako kontzertu bat egiteko gogoarekin geratu ginen, eta *Bonberenea sessions*-ekin arantza hori kendu dugu. Ez dugu disko hori zuzenera ekarri, baina orduan izan genuen ideiarekin zerikusia handia du.

Izan ere, horrelako zuzeneko batek produkzio lan handia izango du.

Sekulakoa; eskerrak familia handia den. Laguntza handia izan genuen; besteak beste, Zubiatearena, Patxi Bonbero komandantearena eta Tolosako bonbero guztiena. Horrez gain, zuzenekoan parte hartu zuten guztiekin egun aproposa aurkitzea eta denok taula gainean egotea... lan handia dago atzean! Agenda arazoak tarteko lagun bat edo beste kanpoan geratu da, baina hurrengorako gordeko dugu. Horrez gain, eskertzekoa da lagun guztien prestutasun eta esfortzua. Pirritx eta Porrotx, adibidez, saio bat bukatu eta zuzenekoan etorri ziren, Francis diskoaren grabazioan murgilduta zegoen, DZ Esne Beltzarekin estudioan zegoen... benetan eskertzekoa da.

Eta eguna bera nolakoa izan zen? Ohi baino nerbio gehiago...

Bai, berezia izan zen. Aurreko egunean joan ginen dena prestatzeko. Tentsio handia zegoen, dena ondo irten zedin nahi genuen-eta. Horrelakoetan, baina, kontzertu erdian zaudenean, amaiera hurbil ikusten duzu eta ez duzu amaitzea nahi izaten; oso azkar pasatzen dira, post-koito bateko sentsazioa izan zen. Kolaborazio asko egunean bertan entseatu genituen soinu proban eta Josema teknikoak lan handia egin behar izan zuen. Egun luze eta gogorra izan zen, baina era berean ahaztezina. Kasu honetan, lan karga oso handia izan zuten agertoki atzean dauden Goseko kideek.

Horrelako kasuetan zer da garrantzitsuagoa, aspektu bisuala, soinua, zerbait transmititzea...?

Hasiera batean, gure asmoa ez zen, inondik inora, zuzeneko kaleratzea. Bonberenea Ekintzak da DVDa kaleratzearen erruduna! Momentu honetan ez gaude horrelako istilu baten sartzeko moduan. Gure asmoa kontzertu dinamiko egitea zen, eta erronka handia izan zen kolaboratzaile guztiak ikuskizunean integratzea eta

kontzertuak erritmoa izaten jarraitzea. Gurekin zeuden ikusleak kontzertu berezi bat bizi izatearen oroitzapenarekin amaitzea zen helburua; kontzertuaren parte izan zirela sentitzea. Dena zaindu genuen, baina ez genuen nahi betiko hurbiltasuna galdu. Bonbereneakoek kameraren muntai guztia egin zuten, eta gu bertan etxean moduan sentitzen garenez, dena oso naturala izan zen. Euren erabakia izan zen zuzeneko kaleratzea.

Zuzeneko asko estudioan konpondu ohi dira; zuen kasuan hala izan da?

Ez; gure kasuan, gainera, elektronikak garrantzi handia du, eta ordenagailuek ez dute hutsik egiten; beraz, abesteko eta instrumentuak jotzeko momentuko gure inperfekzioek kutsu erreala ematen diete; horrek bizia ematen dio zuzeneko bati. Gainera, Gose talde elektronikoko kontsideratu ahal den heinean, ez luke zentzurik izango zati humanoak berriz ere estudioan grabatzea. Akatsak egon daitezke, eta ez gara, inondik inora, horiek ezkututzen saiatu.

Talde handi guztiek zuzeneko disko edo DVDak kaleratu dituzte; zeintzuk aukeratu zenituzkete?

[Osoron] Nik Thin Lizzyren *Live and Dangerous*; rock munduan zuzeneko esanguratsuenetakoa da. Aurreko galderan diogun moduan, zuzeneko estudioak berriz ere grabatu zuela dio kondairak; hala ere, oso gustuko dut. [Ines] Nik duela gutxi furgonetan ikusi genuen bat aukeratuko dut: Prodigyren zuzeneko batena. Nire ustez, rock talde baten zuzeneko bat eta elektronika talde baten zuzeneko bat guztiz ezberdinak dira. Esan bezala, talde elektronikoko batean makinek zeresan handia dute eta horiek perfektuak dira; bilatu behar dena zera da, gizakion inperfekzioa. Hori da sinesgarri bihurtzen duena, talde humano hori oso humano izatea, alegia.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Zumaraga. Etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua. Bi logela, egongela, sukaldia eta komuna. Dena kapora begira. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638 33 03 01

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. Kurtzibide leian etxebizitza jantzia ematen da errentan. Hiru logela eta bi bainugela. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 73 29 83

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta edo Arrasate. Hiru logelako etxea hartuko nuke errentan Arrasaten edo Aretxabaletan. 632 38 52 28 edo 632 17 45 11

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, bi logelakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 14 59 17

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 46 90 51

Arrasate. Pertsona bakarra-rendako etxebizitza behar dut errentan. Mutil arduratsua naiz. 722 45 33 59

Arrasaten. Neska arduratsua naiz eta alokairuko etxebizitza bilanabil Arrasaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675 00 93 22

Baseri bila Debagoienan. Kaixo! Soraluzeko hirugazte gara eta Debagoienan errentan dagoen baseri bila gabiltza. Baldintzen inguruan hitz egiteko prest gaude. Mila esker; plazerra izango da! 645 71 50 50

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldia erabiltzeko aukerarekin eta internetarekin. Leku lasaia da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero, deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 74 87 51

Pisukide bila. Hiru neska langile Arrasaten pisukide bila gabiltza gela bat betetzeko (neska zein mutil). Alde zaharrea, handia eta argitsua da. Lau logela, bi komuna, sukaldia eta egongela handi eta eguzkitsua ditu. Alokairua, wifi eta telefonoa, gehi gastuak, guztira 230 euro dira pertsonako, hilean. Animatu eta deitu. 608 57 97 70, 665 71 69 10 edo 670 58 63 32.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Adinertaineko emakume euskalduna behar da bederatz hilabeteko umea zaintzeko. Egun batzuetan goizez eta beste batzuetan arratsaldean. Deitu 21:30etatik aurrera zenbaki honetara: 630 71 92 67

BERGARA

Esperientziadun zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. Bidali CV: srijatetxea@gmail.com

Lan eskaintza. Antzuolan, hiru urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko, esperientzia duen emakume euskaldun bat behar da. Pposable bada, Antzuola edo oso gertukoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Arrasate. Nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldari lanetan arituko nintzateke. Marta Cecilia Ocampo. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 15 96 97

Arrasate. Neska lanerako gertu. Erizain laguntzaile naiz. Nagusiak zaiduko nituzke egunka edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

Bergara edo Arrasate. Emakume arduratsua lanerako gertu dendar bezala, etxeko lanetan, eskailerak edo elkarrekin garbitzen, edo baita pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ere. 625 86 99 51

Bergara edo Arrasaten. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest larunbat, igande eta jaiegunetan. 688 61 11 01

Bergara, Arrasate edo Oñati. Erizain laguntzaile ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. San Juande Diosen lan egindakoa eta esperientzia handikoa. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Bergara. 49 urteko emakumea lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 89 82 39

Bergara. Adinertaineko emakumea, informea dituen, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Goizetan eta eguerditan umeak zainduko nituzke. Psikopedagogia eta haur hezikuntza ikasketak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 64 64 27

Debagoiena. 24 urteko neska eskaintzen da nagusi eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernan lan egiteko. Laguntzaile graduatua daukat eta eskarmentu handia nagusiak zaintzen. Gidabaimena eta autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 20 59 43

Debagoiena. Arrasateko Eguzkine naiz eta etxeko garbiketarako gertu nago. Kantzautan, denborarik gabe edo gaixo bazaude, nik lagunduko dizut. 650 06 01 35

Debagoiena. Bertako neska, eskarmentuduna, gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

Debagoiena. Edozein lanetarako prest dagoen mutil bat naiz. Telefonoa: 610 12 49 64

Debagoiena. Emakume arduratsua, informea, garbiketa lanetarako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696 27 25 34

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu elkarrekin, atariak, lokalak eta abar garbitzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 686 27 45 81

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu interna moduan lan egiteko. Klinika laguntzaile tituluduna. Autoa daukat. 688 82 69 68

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 11:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. Elkarrekin garbitzen esperientzia dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 46 90 51

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketarako egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoa ateratzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua gertu hainbat lan egiteko: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak eta abar egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 622 13 16 64

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 602 04 16 67

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: ume edo nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 663 40 92 67

Debagoiena. Neska arduratsua nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. Orduka edo egunez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645 01 05 84

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaindu edota atari, elkarrekin eta abarren garbiketarako gertu Debagoienan. Baita etxeko lanak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 08 14 33

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta umeak zaitzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 48 47 76

Debagoiena. Neska prest gauean lan egiteko, ospitalean edo etxeetan. Geriatria laguntzaile tituluduna. Autoarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 00 51 60

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke. Garbiketarako, ume edo laguntza behar dutenak zaindu, ile-apaindegi laguntzaile edota dendaria jardundakoa naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638 25 73 91 edo 943 79 80 05

Debagoiena. Pertsonen zaintzan lan egingo nuke orduka, etxean bertan bizi izaten edo egun osoz. Tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. 602 64 68 17

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Frantseseko eskolak hartu nituzke Bergaran. Frantseseko eskolak hartu nahiko nituzke Bergara, lehenbailehen hasteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 66 36 14

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta atariak garbituko nituzke. 639 02 00 81

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta atariak garbituko nituzke. 632 98 17 79

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara eta Sandra Milenarengatik galdetu: 634 90 87 63

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke 8:00etatik 13:00etara, edo gauean. Gidabaimena eta lege-argiriak daukat. 697 66 89 20

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Txakurra galdu Arrasaten. Apirilaren 7an, arratsalde aldera Ekilore inguruan galdu zen arratoi txakur txikia. Marroi kolorekoa, bularrean ile zuria zuela. Norbaitek ikusi ezker hona deitu, mesedez: 943 79 86 35 edo 650 16 17 50

Txakurra galduta. Txakur bat galdu da Oñatin, Lizargarate inguruan. Kanela kolorea, hanka zuria eta mutur zuria du. Norbaitek ikusi badu deitu hona: 646 39 87 31

8. DENETARIK

802. EROSI

Kutxa-izozkailua erosiko nuke. 656 75 76 98

Lotarako zakua. Negurako bigarren eskuko lotarako zakua erosiko nuke. 628 51 22 78

Trangia erregailua. Alkoholarekin dabilen bigarren eskuko Trangia erregailu kita erosiko nuke. 660 43 64 29

803. EMAN

Lurra ematen da. 50 kamioi-kada lur ematen dira. Inork gura izanez gero, zuloen bat betetzeko, deitu zenbaki honetara: 667 91 55 90

Txakurrentzako kaiola. Txakurrag egazkinean eta abarretan eramateko kaiola ematen dut opari. Luzera: metro bat. 615 70 02 98

806. GALDU

Jaka eta telefonoa Oñatin. Larunbat gauean, apirilaren 5ean, Oñatiko taberna baten jaka beltza ahaztuta utzi edo lapurtu zidaten. Poltsikoan telefono mugikorra, Samsung galaxy SII neraman. Sikiera SIM txartela berreskuratzea balego, eskertuko nuke. Angel. 666 95 79 85

Lepoko zintzilikarioa. Harri bitxi zuri handi bat eta 3 txikiakin gorri, berde eta txurirekin atondutako zilarrezko zintzilikarioa galdu nuen martxoaren 18an ospitale inguruan. Balio sentimental handia du. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara mesedez. Mila esker. 660 82 61 81

Patinetea Arrasaten. Apirilaren 12an, arratsaldean, ahaztuta utzi genuen patinetea Arrasateko Herriko plazan. Aurkitu baduzu deitu mesedez telefono honetara (Aitor). Mila esker. 618 06 91 80

Urre koloreko Seiko erlojua Oñatin. Urre koloreko Seiko etxeko erlojua galdu nuen apirilaren 10ean, eguena, Santa Marina eta Errekaldeko plazatxoaren artean, Oñatin. Esfera borobiliduna da. Aurkitu baduzu mesedez eraman udaltzaingora edo deitu zenbaki honetara: 638 607 809

808. BESTELAKOAK

Autokarabana. Autokarabana errentan hartuko nuke San Juanetako asterako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 68 91 12

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Bazkide bila. Bergarako Muriñondo elkarta bazkide berri bila dabil. Interesa baduzu, deitu zenbaki honetara: 605 76 32 96



lbergara 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Aranerrea 79 m², 3 logela, berogailua, trasteleku. Garajea aukeran. 170.000 €.
- Zabalategi 82 m², 3 logela. Igogailua. Oso prezio ona. 125.000 €.
- Iraburu 82 m², 3 logela, berogailua. 120.000 €.
- Bidekuruzeta 58 m², 2 logela. 35.000 €.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berritua. Garajea aukeran. 138.000 €.
- AUKERA
- Bolu 66 m², 2 logela. Trasteleku. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekuruzeta 65 m², 2 logela. Trasteleku. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- San Antonio 86 m², 3 logela, trasteleku eta garajearrekin. Igogailua. 210.000 €.
- Ibargorri 90 m², 3 logela. Igogailua 235.000 €.
- Mastreka 73 m², 2 logela, berogailua, igogailua. Oso ondo. 195.000 €.
- Ibarra 129 m², 4 logela, berogailua. 168.000 €.
- Azkarruntz 75 m², 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berritua.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berritua.
- Zurrategi 83 m², 3 logela. Berritua. 114.192 €.
- Ibarra 65 m², 3 logela. Berritua. 114.192 €.
- Zubiarre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalategi 54 m², 2 logela. 96.000 €.
- Matxategi 60 m², 2 logela. Igogailua. Erabat berritua.
- Fraizkozuri 78 m², 3 logela. Balkoia, trasteleku eta garajearrekin. 205.000 €.
- Martxo 140 m², 4 logela. Berria. Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berritua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargorri, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxategi, 115 m², 3 logela, trasteleku eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

ANTZUOLA:

- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €
- Sagasti 86 m², 3 logela. 163 m²ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Behoko Auzoa 60 m², 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Aiherra 83 m², 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

SORALUZE:

- Sagor Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:

- Torrealdea 77 m², 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iburbe, adosua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

OSINTXU:

- Osintxu 85 m², 3 logela. Igogailua. Berritua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 80 m², 3 logela. Balkoia. Oso ondo. 160.000 €.

ETXKO SUKALDERAINO

Amaia Diaz de Monasterioguren | Dietista

- ▶ Dietista da ogibidez; afizioz, berriz, komunikatzailea
- ▶ Guztiaren gainetik, bizitza maite du: "Pozik bizi izatea" da haren leloa

"Jatea gustatzen zait, janarekiko kontaktua... Sukaldea oinarria da"

MIREN ARREGI | OÑATI

Nutrizionista da Amaia Diaz de Monasterioguren (Oñati, 1976). Nutrizionista, hiru seme-alabaren ama eta bizitzako segundo bakoitzaz azkena balitz bezala bizi duten horietakoa.

Zelakoa da Amaia Diaz de Monasterioguren?

Simplea eta konplexua, era berean. Gorabehera askokoa eta sentikorra.

Nolako da sukaldearekin duzun harremana?

Egunerokoa, egunero jan behar dugu eta. Jatea gustatzen zait, janarekin kontaktuan egotea, usaina, taktua... Sukaldea da oinarria.

Zein da zure espezialitatea?

Ez daukat espezialitaterik. Dena gustatzen zait. Orain momentuan, sagar erreak ditut labean.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun onena?

Lagun on bat gonbidatuko nuke beti nire etxera. Ardo on bat eta patata tortilla eder bat; edo arrautzak patatekin eta entsalada bat jatera.

Eta etsairik handiena?

Hori ere etxera. Itxean jakin behar da jendea lurtuzten.

Zeinek gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan eseritza?

Zurekin, esaterako. Denongandik dugu ikasteko. Edozeinekin eseriko nintzateke mahaian: adineko pertsona batekin, ume batekin... Badira hainbat mahaiaren bueltan eseriko nituzkeenak, baina tamalez ezin dut, dagoneko mundu honetatik joanak dira eta.

Zergatik dietista?

Kasualitatez. Erizaintzan sartzerik izan ez nuelako.

Zure ogibidearekin lotuta, zein duzu

gogokoen edo zein miresten duzu?

Mari Jose Rosello telebistan komunikatzaile gisa ezagutu nuen lehen nutrizionista izan zen. Eta nik uste dut haren jarraitzaile izan naizela. Mari Jose Rosello eta *Saber Vivir* saioko jarraitzaile izan naiz.

Dietista ez bazina...

Komunikatzaile izango nintzateke. Edo artista... Askok gustatzen zaizkit telebista, irratia... Komunikazioa, azken finean.

Zer duzu maite bizitza honetan?

Bizitza bera. Indarra ematen didatenak dira nire seme-alabak.

Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute.

Pozik bizi izatea, osasuna eta umorea. Hori ez dadila falta.

Zure bizitzako adekdota bat.


Askok ditut. Denetik gertatzen zait. Ez dago kasualitaterik. Kasualitatea da. Esna egon behar dugu bizitzak bidaltzen dizkigun seinaleak ulertzeko.

Bizimodu honetan ezinbestekoa.

Ohetik jaikitze gogoa izatea. Geldi ez egotea. Aktibo egotea. Ilusioa izatea, martxan egotea, ingurura begiratzea.

Damu zara...

Ezertaz. Gaizki egindakoetatik



Amaia Diaz de Monasterioguren. | ITZIAR BASTARRIKA

"Nire bizitzako etorrerak eta agurrak; horiek ditut bihotzean"

ere asko ikasten da. Atzera begiratzen dut indarrak hartzeko eta aurrera begiratzen dut ilusioz. Askok amesten dut. Oso fantasioso naiz.

Zer errepikatuko zenuke.

Ama naiz. Erditu eta umea gainean ipintzen dizuten momentua da ikaragarriena. Hori da izan dudana sentsaziorik handiena.

Agurrak ere oso gogoan ditut. Etorrerak eta agurrak: une horiek errepika ezinak dira, nire barruan gelditu direnak. Une horietara bueltatuko nintzateke.

Zerk beldurtzen zaitu.

Maite ditudanei huts egitea. Lanetik etxera iritsi, sofan eseri eta...

Zerbeza bat edo kolakao bat.

Nora ospa egingo zenuke gusturra?

Ba, momentu honetan, Arantzazura. Edo mendira, edo itsasora.

Ze ohitura, esaldi, aholku konpartituko zenuke?

Momentua bizi behar da. Hori da garrantzitsuena.



Lehen platera: Berdurak salteatuta: orburuak, esparragoak eta perretxikoak, oliba olioarekin.

Bigarrena: Risottoa.

Postrea: Marrubiak esne-gainarekin.

Edatekoa: Ardoa.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

CHERRY TOMATEEKIN EGINDAKO FOCACCIA

Gure etxean bada ohitura handia asteburuo pizzak prestatzekoa. Hasiara batean oso osasungarria ez den ohitura dirudien arren, pertzepzio hori erabat alda daiteke pizzaren masa eta tomate saltsa etxean egindakoak badira eta gainontzeko osagaien erabilera ondo neurtzen badugu. Nik neuk egubakoitz iluntzean edo zapatu goizean prestatzen dut asteburu osorako masa mordoa, eta primeran geratzen da.

Eta monotonoa dirudien arren, mila modu daude masa horri erabilera emateko. Duda barik, pizza egin daiteke, edo calzone bat edo parmesano-makilatxo batzuk edo baita paninia ere.

Eta txapuzero izateko gogo eta irudimen apur batekin, itoginak tapatzeko ere erabil daiteke, beharra izanez gero.



Focaccia, cherry tomateekin osatutakoa. | THE COOK ROCKER

Nik gaur proposatzen dudana da focaccia egiteko erabiltzea etxean egindako masa hori.

Ogi zuri laua

Italiako jaki tipikoa da focaccia. Wikipediaren arabera, ogi zuria da, forma biribila duena, laua, eta normalean jakiren batekin estalita egiten dena. Gehien erabiltzen diren elikagaiak dira

tomatea, gazta, tipula eta usain-belarrak.

Focacciaren masak, berriz, pizzaren masaren osagai berberak ditu: gluten kopuru handia duen irina, olio, ura eta legamia. Eta haren jatorria antzinako etrusko edo antzinako grekoetan dago. Italiatik kanpo, berriz, focaccia sandwich modura ere erabiltzen da.

Fitxa

- ▶ Denbora: 100 minutu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★

KANPOALDEAREN OSAGIAK

- ▶ Ogi egiteko erabil daitekeen irin kilo bat.
- ▶ Legamia freskoa, 15 gramo.
- ▶ Lau koilarakada irin.
- ▶ Ura, 500 mililitro.

- ▶ Gatza, koilarakada eta erdi (edo zelan ere, betiko moduan, hori norberaren gustuen arabera izango da).

BETEGARRIAREN OSAGIAK

- ▶ Gerezi tomateak (cherry), urdaiazpikoa eta rukula.

Prestaketa

1. Legamia ur epeletan urtu. Irin guztia katilu batean jarri eta ura botako diogu. Hori guztia ondo nahastuko dugu, bola antzerako bat lortu arte, eta hari gehituko dizkiogu gatza eta olio. Amasatzen segituko dugu, masa eskuetan itsatsi arte (15 minutu). Gero, pausatzen utziko diogu, legamiak eragina izan eta masa potolatu arte (45 minutu).
2. Masa bola bat hartu eta irinez estalitako superfizien batean landu egingo dugu. Zapaldu egingo dugu, baina ez pizza baten besteko fin utzi arte. Behin guri komeni zaigun tamaina eta lodiera dituenan, tomatetxoak erditik moztu eta masaren gainean jarriko ditugu.
3. Guztia labean sartuko dugu, 180 graduan, 20-25 bat mintutuan. Gero, ogia zabaldu eta urdaiazpikoarekin, rukularekin eta olio apurtxo batekin bete egingo dugu.

Gidari gabeko autoak bidean probatu ditu jada Googlek

Azken urtean 24 auto ibili dira Kalifornian eta istripu bat bera ere ez dela gertatu diote Googlekoek

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Ia erdi ezkutuan bada ere, 2009an ekindako proiektuak jada kilometro asko egin ditu eta, hain zuzen, Googlek azaldu berri du azken urtean hainbat prototipo enpresak egoitza duen hiritik zirkulatzen izan dituztela, betiere alboan gizaki batekin, eta esperimendua arrakastatsua izan dela, istripurik gertatu barik.

Googlek 24 Lexus RX450h auto ipini ditu errepidean azken urtebetean eta softwareari garapenak egiten jardun dute. Azaldu dutenez, sistema gauza da, "gizakiak ez bezala, ehunka objektu, egoera eta seinale aldi berean kontuan hartzeko, neke izpirik gabe eta arreta galtzeke". Googletik nabarmendu dute auto horiek modu automatikoan zihardutela, ez dutela istripurik izan batere, guztira ibilitako 1.260.000 kilometroetan. Sistemarekin segurtasuna jada bermatu dutela diote, eta proiektuak aurrera jarraitzen duela.



Googleren Lexus-etako bat. | GOOGLE

Markak hautsita ere, WhatsAppek etekinik ez dakar, oraingoz

500 milioi erabiltzaile aktibo dauzka, baina Facebookek ezin du inbertsioa berdindu

J.B. | ARRASATE

WhatsApp mezularitza aplikazioaren zabalkundeak geldiezin jarraitzen du eta jada 500 milioi erabiltzaile aktiboen marka hautsi du. Halere, egun Facebooken jabetzako den aplikazioak atarramentu aldetik, oraingoz, ez ditu Zuckerbergen nahiak asebetze, 2013an 20 milioi dolarreko diru-sarrerak ekarri baitzizkion WhatsAppek, enpresaren truke 19 milioi ordaindu ostean. Alorreko lider jarraitzen du WhatsAppek baina erabiltzaile kopuruan; ez, oster, errentagarritasunean.

Line japoniarra da diru gehien ematen duena, mundu mailan, hain zuzen. WeChat-ek eta WhatsAppek erabiltzaileei dagokienez alde ederra ateratzen badiote ere, lehiakide biak batera baino diru gehiago ematen du Linek. Doako mezuak eta txatetan osagarri diren *sticker* deritzen marrazkitxoengatik ordaindu beharreko nego-

zio ereduarekin lortu dute Linekoek sakela betetzea. Horrela, 2013. urtean 505,8 milioi dolarreko diru-sarrerak izan zituztela eman dute aditzera. Kopuru horretatik benetan urrun geratzen dira, hortaz, WhatsAppek pilatutako 20 milioiak eta Asian hain handi egin den WeChat aplikazioaren 48 milioiak.

Eredu mistoaren gakoa

Oinarritzko zerbitzua doan eskaini eta osagarriak kobratzearen ereduarekin asmatu Linek. Japonian berebiziko arrakasta izan du sistemak, eta hortik datozkie sarrera gehienak. Akziodun gutxi batzuen jabetzako da enpresa eta mundu mailako zabalkundea mailakatu dabil izaten. WhatsAppek, oraingoz, Facebookena izanda ere, bereari eutsi eta ez du ez publizitaterik ezta bestelako erosketak aukerarik txertatu, oraingoz.

OpenSSLren hutsegite larria enpresa nagusiek finantzatzeko dute

Larritasunaz jabetuta, indarrak batuta, 2.000 milioi dolarreko urteroko dohaintzak espero dira

J.B. | ARRASATE

OpenSSL ustez konexio segurua bermatzen zuen protokoloaren hutsegite kritikoa konponketaren proiektua teknologiaren alorreko mundu mailako handiak hartuko dute euren gain. Zabaldu denez, enpresa handi horien administrazio kontseiluetan garbi geratu da halakorik ezin dela atzera gertatu, eta, horregatik, indarrak batu eta konexio protokolo seguru baten proiektua elkarrekin finantzatzeko dute.

Milioika dolar urtero

Enpresa askok dagoeneko eman dute aditzera zenbateko diru ekarpenak egingo dituzten. Hala, The Linux Foundationek 3,9 milioi dolar bideratuko ditu hiru urtean OpenSSLrekin lotutako kode irekiko egitasmoen garapenerako. Amazon, Cisco, Dell, Facebook, Fujitsu, Google, IBM, Intel eta Microsoftek agindu dute urtean gutxienez ehun mila dolarreko

dohaintzak egingo dizkiotela proiektuari.

Prozesua azkartu guran

Proiektu berri baten lanean hasiko badira ere, aurreko akatsa oraindik guztiz konpontzeko dago, eta segurtasun hutsek berdin jarraituko dute, milioika webgune, ordenagailu eta zerbitzari eguneratu ezean.

Orain arteko SSL protokolori dagokionez, aditzera eman da programatzaile bakar batek soilik egiten zituela mantentze-lanak. Kalkulatu dutenez, garapen berrirako urtean 2.000 milioi dolar bideratuko dira, dohaintza bidez, baina lan plangintzarik ez da aurreratu, oraingoz.

Arazoaren larritasunaz jabetuta, indarrak batu eta prozesua azkartu gura dute enpresek. Egitasmoaren emaitza kode irekian eta mundu guztiarentzat eskuragarri ipintzea izango da azkena, behin garapenak eginda.

Google Plus eraldaketa sakon baten atarian legoke eta baliteke sare sozial izaera ere lagatzea

J.B. | ARRASATE

Google Plusen orain arteko zuzendari izan den Vic Gundotrak konpainia laga eta gero, sare sozialak bizirik jarraituko duen zalantzak areagotu egin dira. Googletik diote etetik urrun dela sare soziala, baina geroago eta argiago geratzen dabilena da bere izaera soziala alde batera lagako duela Google Plusek, bizirik iraun nahi izanez gero. Sare sozial izateari utzi eta aplikazioen plataforma izaera hartuko omen du Google Plusek, hedabide nagusietan aurreratu denez. Hangouts eta

Photos atalen arrakastari eutsi eta aplikazio espezifikoen bilgune lanak hartuko lituzke Googleren egitasmo sozialak, hasierako asmoei huts egin eta gero. Enpresan bertan, lantaldeetan aldaketak egon dira, produktuei begira, zurrumurruari motibo handiagoak emanda. Googleren azken urteetako apusturik sendoenak orain Android sisteman eta aplikazioen artean aurkitu beharko omen du tokia. Zerbitzuaren balizko eteteak Googleren bilaketan emaitzei zelan eragingo ote dien da galdera nagusia.



Google Plus sarearen logoa. | GOOGLE

Talde bideo-deiak egiteko aukera gaitu du Skypek, doan

Kontaktu batekin baino gehiagorekin aldi berean bideo-konferentziak egin ahal izateko aukera gaitu du Skype zerbitzuak. Erabiltzaileen artean gehien erabili ohi den modalitate bat da hori, orain arte *Premium*-entzat eskuliboa izan dena. Windows, OS X, Windows Phone, Android eta iOS bertsioetan. Googleren Hangouts aplikazioak aspaldi zekarren aukera bera gehitu dio orain Skypek zerbitzuari, erabiltzaileen ohitura berrietan pentsatuta.

Ahots bidezko deiak, iOSen Tuentiren bertsioan ere bai

iOSerako eguneraketarekin, Tuenti sare sozialaren aplikazioak Appleren gailuetan ere ahots bidezko VoIP deiak egin ahal izateko aukera ematen du, iPhone 3GS modelotik gora. Orain, Windows Phone-eko erabiltzaileak bakarrik geratzen dira zerbitzu hori barik. Aplikaziotik atera gabe eta Tuenti Movil-en bezeroentzako datu limitearen agortzean eragin barik ahots bidezko deiak egiteko aukera ematen du aplikazioak. AppStorean dago eguneraketa.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGAAgur
'La sexta 3'

Amaitu da *La Sexta* kateak ematen zituen filmak ikusteko aukera. Eta horrekin batera, beste 8 telebista kate ere bitirako ezabatuko dituzte.

PPren gobernua konturatu da telebista publikoaz gain (*TVE*), oso kate gutxi dituela bere kontrolpean. Ondorioz, Zapatero presidente ohiari 9 kate era bidegabean jarri zituela leporatuz, erabaki dute lehiaketa publiko bitartez banatuko dituztela berriz ere 9 lizentzia horiek.

Teoria oso polita da. Aukeraketa lehiaketa publiko bitartez egiteari oso ariketa demokratikoa dela deritzot.

Baina... Nortzuk osatuko dute epaimahaia? Kasualitatez, PPre gobernua berak osatutako kontseilu batek. Kontxo! Orduan zeintzuk izango dira telebista kate berrien irabazleak? Akaso Gobernuko laguntxoena? Bai zera! Ez duzue pentsatuko ba, kontseilu horretan ustelkeri eta eroskeriarik egongo denik ezta? Ez horixe! PPK inoiz ez du halakorik egin! Gardenkeria guztien artean gardenenak eta garbienak eurak dira eta, ezta? Non dauden eskutitzak? Ze eskutitz?

La Sexta 3 zine kate interesgarria kendu nahi badute, ken dezatela, baina ez dezatela pelikularik kontatu!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 5



Kultura kontuak

Break dancea eta ikus-entzunezkoa bateratzen dituen *Divenire* ikuskizuna berabagari izango dugu. | 20:00

12:00 Debagoiena zuzenean

13:00 Nere herrie

13:30 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Tertulia

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Kantari

17:30 Ibilean

18:05 Nere herrie

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Amaia DJ

19:30 Harmailatik

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Harmailatik

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Debagoiena zuzenean

00:20 Harmailatik

MARTITZENA, 6



'Auzorik auzo'

Oñatiko Olabarrieta auzoa ezagutuko dugu martitzenean, Mireia Bikuña kazetariaren eskutik. | 20:00

12:00 Kontzertua

12:30 Tripa-zorri

13:05 Ikusmira

13:25 Amaia DJ

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Harmailatik

15:30 Onein

15:55 Zorion Agurrak

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Nere herrie

17:30 Ibilean

18:00 Kontzertua

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Pedalka

19:30 Kantari

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Harira

22:30 Berriak

23:00 Gurean gaur

23:50 Debagoiena zuzenean

00:20 Harira

EGUAZTENA, 7



Artzain txakurrak

Gomiztegin artzain txakur erakustaldia egin dute umeendako eta horixe ikusi ahal izango dugu. | 20:00

12:00 Tripa-zorri

12:30 Klaketa

13:15 Ikusmira

13:30 Kantari

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Harira

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Kantari

17:30 Klaketa

18:15 Ikusmira

18:30 Berriak

19:00 Harira

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 7 akorde

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Debagoiena zuzenean

00:20 7 akorde

EGUENA, 8



Kapoeira

Senzala Capoeira taldea ezagutzeko aukera izango dugu *Debagoiena zuzenean* saioan. | 20:00

12:00 Nere herrie

12:30 Ibilean

13:05 Gernika-Lumo XIX duatloia

13:30 Ur eta lur

13:55 Zorion Agurrak

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 7 akorde

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Ur eta lur

17:30 Tertulia

18:30 Berriak

19:00 7 akorde

19:30 Amaia DJ

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Amaia DJ

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Debagoiena zuzenean

00:20 Tertulia

EGUBAKOITZA, 9



'Tertulia'

Emakumeek herriko festetan duten rola eta jai ereduaz jardungo dugu egubakoitze-ko tertulian. | 19:00

12:00 Ikusmira

12:15 Ibilean

13:25 Zorion Agurrak

13:30 Kantari

13:50 Gernika-Lumo XIX duatloia

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Amaia DJ

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Klaketa

17:45 Ur eta lur

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Tertulia

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Tertulia

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Debagoiena zuzenean

00:20 Tertulia

ARRASATE IRRATIA

Disco sorta bat zozketatuko dugu egubakoitzean

Arrasate Irratik *Igo autobusera!* irratsaioan, egubakoitzean egingo dugu disco sorta baten zozketa. Sari hori lortu nahi baldin baduzue, animatu eta parte hartu! Hauek dira bideak: deitu 943 25 05 05 telefonora edo bestela idatzi irratia@goiena.com helbidera.

Kurtzetxiki balioan jartzeko proiektuari buruz, gaurko saioan

Arrasateko Ingurumen zinegotzia, Pello Garai, izango dugu gaur, astelehena, *Igo autobusera!* irratsaioan 11:00etan. Garaik Kurtzetxiki balioan jartzeko proiektuan orain arte eman dituzten pausuak azalduko dizkigu eta aurrera begirako asmoen berri ere emango digu irratian.

Asteburuan Elgetan egingo den Magia Mostra berbeta gai

Aurten hamargarren urtez ospatuko da Magia Mostra Elgetan. Asteburu honetan egingo dute, hain zuzen, eta aurtengo edizioaren nondik norakoen berri emango digu ekimenaren antolatzaileak bihar, martitzena, 11:00etan. Egitarauaren berri ere emango digu eta bestelako xehetasunak ere jasoko ditugu.

TELE-ALBISTEAK

'7 akorde' musika saio berria estreinatuko dugu eguaztenean

Donostiako 'rock and roll' talde bat eta Arratiako bost gaztek osatutako beste bat izango ditugu



Janire Zubizarreta aurkezlea, lehen musikaria elkarriketazten. | GOIENA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek ekoiztutako saioak emititzen hasiko gara Goiena telebistan, eguaztenean 22:00etan.

Lehenengo saioa etzi, eguaztenean, estreinatuko dugu eta bi musika talde izango ditugu Janire Zubizarretak aurkeztutako saioan. Ezagutuko ditugun lehenak *rock and roll*-a lantzen duten Donostiako talde batekoak izango dira: *Niña Coyote* eta *Chico Tornado* taldekoak, hain zuzen. Koldo Soret gitarrista eta ahotsak eta Ursula Strong bateria joleak osatzen dute bikotea eta 2013. urtean kaleratu zuten euren lehenengo lana.

Horiek ezagutu ostean, Arratiako bost gaztek osatutako talde bat ezagutuko dugu: *Eskean Kristó*. 2013. urteko maketa lehiaketa irabazi zuen taldeak eta bost abestik osatutako lehenengo maketa grabatu zuten orduan. 70. hamarkadako *rock and roll*-a dute ardatz. Pixkanaka-pixkanaka talde gehiago ezagutuko ditugu *7 akorde* saio berrian.

Aloñako Igoera, 'Harmailatik'-en gaur, 19:30ean

A.T. | ARRASATE

Aloñako Igoerak 10 urte bete ditu aurten eta berrikuntza ugari izan ditu. Jardueraz eta kirolez betetako asteburua izan da oraingoa Oñatin eta ekitaldiek eman duena jasoko dugu, *Harmailatik* saioan, gaur, astelehena.

Egubakoitz gauean lasterketa bertikala egin zuten; zapatuan, txapeldunen desafioa izan zen, besteak beste; eta domekan ospatu zuten Aloñako X. Igoera.

Horietan guztietan gertatutako berri emango dizuegu eta protagonisten adierazpenak ere entzun ahal izango dituzue kirol saioan. Antolatzailen balorazioa ere jasoko dugu Xabi Urzelaik aurkeztutako saioan.

Elgetako alkate Oxel Erostarbe, 'Harira' saioan

A.T. | ARRASATE

Bihar, martitzena, Oxel Erostarbe Elgetako alkatea izango da *Harira* saioan 22:00etan. Herria izango du aztergai Eneko Azkarate aurkeztearekin batera. Patxi Basauri EAJko bozeramailearen agintaldiaren balorazioa ere izango da saioan eta baita herri-tarrek dituzten inpresioak ere. Elgetako Bilduko zinegotzi bozeramaileak, ordea, ez du parte hartuko. Uko egin dio eta saioan parte hartzeaz. *Harira* saioa 8. atala izango da martitzenekoa eta orain arte ez dio inork uko egin *Harira*-n parte hartzeko egingo dako gonbitari. Elgetakoa da bailarako kasu bakarra Bildu gobernatzen ez dagoena eta oposizioan dagoena.


ZORION AGURRAK



OÑATI
Peru Guenetxea Irizar
Maiatzaren 8an, 4 urte. Zorionak, txikito! Ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo bat danon eta, bereziki, Izarren partetik.



OÑATI
Aiantze Arregi Orueta
Maiatzaren 7an, 4 urte. Zorionak, txikitina! Ondo pasatu zure urtebetetzia eta pa handi bat Iraiaren, Aneren, aitatxoren eta amatxoren partetik. Mua.



OÑATI
Ekain Guridi Carrascal
Maiatzaren 7an, 7 urte. Zorionak, potxolo! Ondo pasatu zure egunian eta muxu handi bat etxeko partetik; bereziki Asier, Beñat, Jone, Gorka eta Nora.



OÑATI
Mara Mugarza Urizar
Maiatzaren 7an, 5 urte. Bost urte honeitan etxekoei emundako guztixagatik, gaur zuri be mila kilo zorion eta beste horrenbeste muxu. Infinitura!



BERGARA
Gorka Ibarra Guridi
Maiatzaren 6an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean eta mila patxo etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Oxel Aldalur Zuazua
Maiatzaren 6an, 2 urte. Zorionak, tximistaa! Konturatu orduko bi urte eta mutiko handi-handixa ein zara. Ondo pasatu eta muxu pilo bat aitatxoren eta amatxoren partetik!



OÑATI
Malen Agirrebalzategi Lizarralde
Maiatzaren 6an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Allau da jada eguna! Gure etxeko neskatilla txikiñak bi urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Txokolatzeko muxu goxo-goxuak zuretzako etxeko danen eta, bereziki, Eleneren partetik.



OÑATI
Aner Urrutia Garcia de Albeniz
Maiatzaren 5ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunian eta patxo handi-handi bat etxeko danon eta, batez ere, Danelen eta Katixaren partetik.



BERGARA
Iker Ibarra Eguren
Maiatzaren 5ean, 6 urte. Zorionak, begi urdin! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik; bereziki Leire, Jone, Mikel, Gorka eta Ane.



OÑATI
Aiora Díaz Aizpurua
Maiatzaren 4an, 9 urte. Zorionak, maittia. Egun zoragarria pasatzea opa dizut. Egun handia da zuretzat. Muxu handi bat familia osoaren partetik.



BERGARA
Intza Goiti Zubia
Maiatzaren 3an, 4 urte. Zorionak aitatxoren, amatxoren eta Egoitzen partetik! Musu pila-pila, patata tortila!




ARETXABALETA
Xabat Larrinaga Elkoro
Maiatzaren 3an, 4 urte. Zorionak, pirata! Familiako guztion partetik. Muxu handi bat eta ondo pasatu eguna!



ANTZUOLA
Ibone Urzelai Otaegi
Maiatzaren 3an, 5 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo handi bat etxeko partetik.



BERGARA
Oier Iturbe Garmendia
Maiatzaren 2an, 5 urte. Zorionak, Oier! Egun ona pasatu zure urtebetetzean. Familiakoen partetik.




BERGARA
Aiur Lezeta Iturralde
Maiatzaren 2an, 2 urte. Zorionak, Aiur, zure bigarren urtebetetzean! Muxu pila-pila, patata tortila, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Uxue Lopez Lasa
Maiatzaren 1ean, 7 urte. Zorionak eta, familia guztiaren partetik, oso ondo pasatu zure egunean!



ANTZUOLA
Bidart Aizkorbe Jauregi
Maiatzaren 1ean, 2 urte. Zorionak, txikitina! Ondo pasatu eguna! Patxo handi bana. Aitatxo eta amatxo.



ARETXABALETA
Igotz Cantera Herrasti
Apirilaren 30ean, 2 urte. Zorionak, potxolo, eta patxo handi bat familiako guztion partetik.




OÑATI
Maialen Romaratezabala
Apirilaren 29an, 29 urte. Ez eguzkixa ez ilatargixa, zu zara gure argixa. Edarto ospatu geben zure urtebetetzea. Zorionak danon partetik.




OÑATI
Naroa Elorza
Apirilaren 23an, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako etxeko eta, batez ere, aitarien, amaren, Urtziaren eta Sandraren partetik. Muxu handi bat eta ondo pasatu eguna. Aupa, sapauru.



OÑATI
Nahia Guridi Olalde
Apirilaren 18an, 5 urte. Zorionak gure etxeko printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo pila bat etxeko danon eta, bereziki, Danel pirataren partetik.



BERGARA
Hodei Elkorobarrutia
Apirilaren 18an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Lau urtetxo jada! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea eta muxu pilua familia eta lagun guztien partetik. Bereziki Maddik.



OÑATI
June Romero Ugarte
Apirilaren 18an, urtebete. Zorionak, pitxita, zure lehenengo urtetxoan! Segi gure bizitzak irribarrez betetzen! Patxo pila bat etxeko partetik.



ARRASATE
Lide Azkarate Ojanguren
Apirilaren 18an, 8 urte. Zorionak, Lide! Garaziren, amatxoren, aitatxoren, lehengusu Oihanen eta Hegoiren, osaba-izeben eta aita-amamen partetik.



ARETXABALETA
Elene Iztueta Etxenautia
Apirilaren 18an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, "sorgintxo"! Ondo-ondo ospatu zure bigarren urtebetetze eguna, neska handi! Txokolatzeko patxo erraldi bana Araitzen eta Doltzaren partetik.



BERGARA
Julen Unamuno Marzan
Apirilaren 17an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, txapeldun. Muxu bat etxeko partetik, batez ere Ekaitzek.



OÑATI
Maren Oleaga Mugarza
Apirilaren 17an, urtebete. Zorionak, printzesa! Patxo handi bat eta belarritxotik tirakadaxo bat etxeko danon eta, batez ere, Anttonen eta Beñaten partetik. Pa!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitzez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitzez Goienaren ordezkariaren batera.

Eguazteneko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarri ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Zauririk ez, baina burukomina, itzela

Argazkiko pistola erabiltzeko ez da baimenik behar: eragin dezakeen ajeak, baina, balek baino min handiagoa eragin dezaket. nopuedocreer.com



37

HERRIALDE

Aste honetan zehar ospatuko da Eurovision jaialdia: astean zehar bi finalerdi egingo dituzte, eta final nagusia zapatuan izango da. 37 herrialdek hartuko dute parte denera; errekorra baina, 2008ko eta 2011ko edizioek dute, 43 herrialderekin. www.eurovision.tv



Max. 25°

Min. 7°

Temperaturak nabarmen egingo du gora eta astea bero kontuekin hasiko dugu. euskalmet.net

goiena

2014-05-05

Olatz Beobide Aktore donostiarra kamara aurrean edo agertokietan baino gehiago kamara atzean ibili da aspaldian, bera izan da-eta 'Goenkale'-ko azken zazpi denboraldietako zuzendaria | TXOMIN MADINA

"Antzerki obrak komikiak balira legez irakurtzen nituen umetan"

1. Zazpi urte darozu Arraldeko ezkutuko alkatea izaten. Nola baloratzen duzu zure agintaldia?

Norberak bere agintaldia txarra edo ona izan dela esatea lotsagabea litzateke, baina audientziak ikusita eta kalean entzundakoekin, esango nuke ondo doala.

2. Gidoian hainbeste bueltarekin, ez duzue aspertzerik izango.

Ez. *Goenkale*-n hasieratik dauden Maitte Duque eta Pedro Fuentesek erakutsi zidaten nola egin denboraldia saskia beteta hasi, eta gauzak atera arren, beteta segitzeko. Aparteko gidoilari taldea dago.

3. 20 urte eta gero, tinko dirau telesailak. Non dago sekretua?

Egotekotan, lan handia eta jende profesional asko dagoela, kamara aurrean eta atzean. Aldaketarako gaitasuna ere hor dago: kutsua mantenduz aurrera egitekoa.

4. Zuzendaria aktore izatea, zein puntura arte da lagungarria?

Ni antzerkitik eta aktore izatetik nentorren. Erreminta telebista izan arren, istorioak kontatzeaz ari gara eta aktoreak zuzentzen jakitea eta euren gaitasuna gertu egotea abantaila bat da.

5. Hain entzuna den aktoreen banitateari aurre egiteko baliagarria izango zaizu behintzat...

Hain entzunak ez diren hainbat gauza ere badituzte; adibidez, grabatu ostean testuak ikasten orduak ematea. Aktoreak beti defendatuko ditut: artisauak, langileak dira.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Arnak kenduko nituzke: armarik gabe, gizakiok ezingo genituzke egin egiten ditugun basakeriak"

AGM

6. Zure lehen urratsen artean, Bana Bana dago, umeendakosia. Gogoratzen dizute oraindik ere?

Gutxi, urteak pasa dira-eta! Toti Martinez de Lezeak eman zidan aktore eta aurkezle aritzeko aukera; asko ikasi nuen. Saio zoragarria zen, egun ez dagoen horietakoa.

7. Egin duzu aktoreek hainbeste desio duzuen bizitzako papera?

Oraindik ere ez. Baina aurrerantzean *Goenkale* beste batzuek zuzenduko dutenez, zuzendari zein aktore moduan beste lan batzuk egin ahalko ditut.

8. Zenbat kosta zitzaizun zu abokatua izatea gura zuen aita aktore izan gura zenuela konbentzitzeko?

Uste dut nik ez, bizitzak konbentzitu zuela. Askok egin zuten gurasoek euskal kulturagatik, baina horretaz ezin zela bizi usteko zuten. Posible dela erakutsi diet.

9. Etxean bazenuten beraz arte-rako eta euskalgintzarako joera.

Luxua zen: *Ez dok amairu*-ren garaian, Mikel Laboa eta Xabier Lete etxean egoten ziren, adibidez. Umetan pastoralak ikusten genituen, antzerki obrak komikiak balira legez irakurri... Gurasoek altxor itzela eman ziguten.

10. Zertan eragin zizun 80ko hamarkadan Londresen antzerkia ikasten egon izanak?

Burua zabaltzen, ikusten kanpoko ere interesgarria dela. Nahi badugu, pertsonok elkar ulertu dezakegula ere bai.

MARKOS BALENTZIAGA



Oilar-jendea

Kontu jakina da oilategi politikoan, batez ere han, oilarrek aparte behar izaten dutela bata bestetik, eta zeinek bere eremua, ondo markatua. Alderdi berean ere, oilarra beti oilar; hainbestez, laster egingo dio mokoka edo jaurtiko dio ezproin-kolpea etsaia-ri; gandorrera lehena, jaurti ere.

Askotan, paradoxikoki, oilar horiek mimetismo osoz irudikatzen dute oilar-kolegek eginikoa. Hara: Aznarrek, esaterako, bai politikako lehen lerroan jardun zuenean, eta bai orain, lehen lerroko Raxoiren aurretik dabilenean -protagonismoan-, inguruko edozeini bizkar gainetik jarduten dio eta, nora joan ere, han harro-harro agertzen da beti.

Aznarrek hori. Orain begiratu Aznar mini-jainkoak berak izendatutako Raxoik zer beste itxura ematen duen horixe bera ez dena: informazioa ukatzen du, mesprezu-jarrerak hartzen ditu, irain-hitzak esaten ditu... hitza eman eta jaten ez duenean.

Europako hauteskundeak galtzeak kalte handia lehar-kioke Mariano Raxoiri, beste edozein galtzailerari letxe, jakina, baina alderdiko oilategian norke ordezkatu faltarik ez du izango oilar harroskoak.



"BADAKIZU ZERGATIK AZTERTZEN DUDAN NIRE ENTZUMENA GAES-en?"

"Egunen batean dena errepika diezadatela saihestu nahi dudalako"



www.gaes.es

* kontsultatu baldintzak hurbilen duzun zentroan.